

# L

# Luma berrien eleak

2005eko Iraila

3. zb. • 3 €



Elkarizketa:

**Oier  
Guillan**

**Idazle Berrien**  
sorlanak,  
iritziak, ipuinak,  
poesiak,  
gazte-literatura  
liburu-iruzkinak,  
solas eta jolasak



Arg.: J. M. Ota. Zuz.: Ina. Irudiak: M. Aguirre. Arg.: J. M. Ota. Zuz.: Ina. Irudiak: M. Aguirre.

IDAZLE ESKOLA



[www.asmoz.org/ieskola](http://www.asmoz.org/ieskola)

# Donostiako Hiria 2006 kutxa Literatur Sariak

gizarte elkartza

kultura



## Donostiako Hiria 2006 kutxa Literatur Sariak.

Idazlanak onartzeko epea 2005ko urriaren 15ean  
amaituko da.

GUDAT, Illarra Bidea, 4 // 20018 Donostia, edo  
telefono horretara deituz:

**943 000 850**

e-mail: [certamenes@begira.com](mailto:certamenes@begira.com)

Argibide gehiagorako, oinarriak eskatzeko eta  
lanak beren aurkezteko: [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net)

\*)FEZ uste salbu ezizateko Sariak.



### **Euskarazko ipuina**

Saria: Garaikurra eta 7.000 €\*



### **Euskarazko antzerkia**

Saria: Garaikurra eta 14.000 €\*



# Aurkibidea

## ► IRITZI ETA GOGOETA

Pili AGIRRE • <i>Birziklapena</i> .....	4
Juan Luis MUGERTZA • <i>Hello. idazle Eskoalkoak!</i> .....	6
Juan Mari APAOLAZA • <i>Etxera bidea</i> .....	7
Mikel SANTIAGO • <i>Lilit</i> .....	8
Laida AZKARGORTA • <i>Nola igaro egun bat...</i> .....	10
Maider SUKUNTZA • <i>Adioak</i> .....	11

## ► NARRAZIOAK

Arantxa URBIETA • <i>Bost minutu</i> .....	12
Alfredo RODRIGUEZ • <i>Epaixka</i> .....	14
Ander ZULOAGA • <i>San Martin eguna</i> .....	16
Ainhoa ODRIOZOLA • <i>Ene oroitzapen minena</i> .....	18
Garbiñe ETXANIZ • <i>Buenos Aires</i> .....	20
Anttoni LOPETEGI • <i>Erabakia</i> .....	22
Araitx GARAITA • <i>Postaria</i> .....	24
Iker ZALDUA • <i>Serapio Miranda</i> .....	26
Asier IRIONDO • <i>Kimikako Irakaslea</i> .....	28
Oihaneder INDAKOETXEA • <i>Hitzezko sekretuak</i> .....	29
Isabel ETXEBERRIA • <i>Edo agian</i> .....	30
Juan Mari ZUNZUNEGI • <i>Iratxoa eta gotzaina</i> .....	32
Iñaki ALBISUA • <i>Amet</i> .....	33

## ► ELKARRIZKETA

Iker ZALDUA • <i>Oier Guillan</i> .....	34
---	----

## ► NARRAZIOAK

Izaskun JAUREGI • <i>Itsusi</i> .....	42
Josune ARANGUREN • <i>Habi-Ohea</i> .....	43
Eduarne LAZKANO • <i>Tentazioak</i> .....	44

## ► GAZTE LITERATURA

Maribel AIERTZA • <i>Koadroko neskatxa</i> .....	46
Zuriñe VELEZ DE MENDIZABAL • <i>Egia ote</i> .....	48
Maider ZIAURRIZ • <i>Agur</i> .....	50

## ► POESIA

Iker ZALDUA • <i>Bidaia...</i> .....	52
Aritz GALARRAGA • <i>Egunero...</i> .....	53
Patxi LOPEZ DE TEJADA • <i>Belar-Ikatza...</i> .....	54

## ► SOLAS ETA JOLAS

Arantxa AURREKOETXEA • <i>Mila eta bat</i> .....	56
Arantxa AURREKOETXEA • <i>Une laburreko...</i> .....	57
Joseba ZUBIZARRETA • <i>Sugus</i> .....	58
Anttoni LOPETEGI • <i>Koloreak Mintzo</i> .....	60
Juan Mari APAOLAZA • <i>Horoskopoa</i> .....	62

## ► IRAKURKETAK

Aritz GALARRAGA • <i>Komunikatzen</i> .....	64
Aritz GALARRAGA • <i>Biolinaren jatorria</i> .....	65
Aritz GALARRAGA • <i>Anne</i> .....	66
Aritz GALARRAGA • <i>Kontsumo Gizartea</i> .....	67
Aritz GALARRAGA • <i>Pospolo kaxa bat bezala</i> .....	68
Aritz GALARRAGA • <i>Auzoak eta auzoak</i> .....	69
Markos UNTZETA • <i>Gaua basamortuan</i> .....	70
Iasmina GORROÑO • <i>Krokodiloa</i> .....	71

## ► NOR DA NOR .....

## ► ARRASTOA .....

### L. LUMA BERRIEN ELEAK SALGAI PUNTU HAUTAN:

DONOSTIA: Delta (E.S.T.E.), Bilintx, Hontza. • BILBO: Urretxindorra • IRUÑA: Xalbador, Auzolan, Kalaska (Zabaldi elkartean). • GASTEIZ: Arriaga • LEGAZPI: Ekai • AZPETAIA: Eklipse • SOPELA: Nikola Euskaltegia • ONDARROA: Zurru-Murru • DURANGO: Denda-Hitza • BEASAIN: Gaztetxea • GAZTELU: Herriko Taberna • ZEGAMA: M<sup>a</sup> Jexuxen denda • HERNANI: Lete liburudenda • BERGARA: Etxepare.

### © IDAZLE ESKOLA

#### Zuzendaria:

Tere Irastortza

#### Idazkuntza Kontseilua:

Tere Irastortza, Vicente Huici,  
Jose M<sup>a</sup> Velez de Mendizabal.

#### Idazkuntza Kontseiluko ikasleak:

Maribel Aiertza, Arantxa Aurrekoetxea,  
Juan M<sup>a</sup> Apaolaza, Isabel Etxeberria,  
J.L. Mugertza, Iker Zaldúa.

#### Irudiak eta Argazkiak:

Cristina Fernandez.

Azaleko argazkia, J. M. Olazabal  
"Eustaquio Aguirreola. Pintore eta  
argazkialaria. Pintor y Fotógrafo"  
liburutik hartua.

#### Eskerrik beroenak :

Asun Monzon, MUGALARIko kideari.  
MUGALARIko talde osoari eta Cristina  
Fernandez-i. Bergarako Udai Artxibategiari.

#### Maketazioa : FMA eta K3

#### Inprimaketa:

K3 Inprimategia.

Amillaga 1 - 6. Pab. - 20570 Bergara.

L.G.: SS-803/04

## BIRZIKLAPENA

**E**nergia ezin da ez sortu ezta deuseztatu ere, eraldatu besterik ez da egiten. Errausketa, beraz, materiaren eraldaketa hutsa da, eta geure burua engainatu egiten dugu zaborra erretzean gure arazoa hauts bihurtuko dugula uste dugunean. Izan ere, metodo honen bitartez kalteak urrutira bidali besterik ez baitugu egiten.

Baina ondorio horiek ikustezinak dira gehienontzat. Ikusezinak, airean lainoaren antzera ezkututzen direlako, ozono geruza gure eguneroko bizitzatik urrutiegi geratzen delako, eta azken finean, ukitu, ikusi, entzun edo usaindu ezin ditugun kalteak guretzat existitzen ez direlako.

Gainera, zaborra urrutira botatzea gurean oso hedatuta dagoen ohitura da. Hemen botatzen ditugun milaka etxeko-tresna zahar eta hondakin elektronikoko, esaterako, haurrentzako lantegi bihurtuta pilatzen dira ekialdeko zenbait herritan. Eta jakin badakigu burdin herdoilduez eta adimen artifizialeko hondakinez osatutako kanposantu horri isurketa kutsagarria dario la eta bertan «lan egiten» dutenei heriotza dakarkiola. Baina erraza egiten zaigu ez ikusiarena egitea, irudi horiek telebistako berriemaileen audientziak mantentzeko beharrezkoa den morbo dosia besterik ez baitira izaten.

Dena den, dosi hori nahikoa pozoitsua litzateke munduari begiratzeko irekitzen dugun leiho horretatik burmuinean zuzenean egunero sartuko baligute. Lehenengo mundu honetan, ordea, gaitz bakoitza neurrira diseinatutako irtenbidearekin batera saltzen da, eta Gobernuz Kanpoko Erakundeak antidoto ezin hobekak suertatzen dira gure kontzientziak lasai uzteko, gure ardurara eta erantzukizuna biltoki horietatik erraz birzikla ditzakegula sinestarazten baitigute.

Gure ondoan bizi direnen lan istripuak, gure haurren eskubideen aurkako erasoak, hemengo emakumeon askata-



<<Energia ezin da ez sortu ezta deuseztatu ere, eraldatu besterik ez da egiten. Eralda ote gaitzeko gizakiok?>>

sun gabeziak, bertako herri txikion eskubideen ukatze sistematikoa, eta orokorrean, inguru hurbilenean egunero sortzen den zaborra, ordea, zailagoa da ezkututzen. Hemengo zarama, lehen esan dudan legez, usaindu, ukitu, ikusi eta entzun egiten baita. Hala eta guztiz ere, eta gure erakundeek arazo horri aurre egiteko ondo antolatutako kudeatze sistema bati esker, ondo prezintaturik dauden bil-



toki ezberdinen bitartez bideratzen dira hondakin horiek, kiratsa gure etxeetara irits ez dadin.

Hala eta guztiz ere, gure konplizitatea ezinbesteko bihurtzen da garbiketa sakona egin ahal izateko. Hori dela eta, behin eta berriro eskatzen digute zeregin horietan lagun diezaiegun. Eta guk, elkarlan horren komenigarritasunaz zalantza izpirik ere azaldu gabe, ahalegin guztiak egiten ditugu, denon artean lan arinagoa izango delakoan. Birziklapenak auke-za ezin hobea ematen digu gizartearekiko elkartasuna eta parte hartzea etxeko intimitatean gauzatu ahal izateko.

Bestela, nola uler liteke gizakioi dagozkigun eginkizunak erakundeen esku geratu behar direlako ustea hain sakonki barneratu dugun honetan hain deserosoa den konpromisoa harraraztea?

Izan ere, gure bizimoduan bizi-kalitatez mozorrotutako produktibitatea, errentagarritasuna eta kontsumoa eztabaida ezineko dogmak bihurtu dira, eta erlijio berri horren izenean hainbeste sakrifizio egin behar dugunez, besteen eskuetan uzten dugu gure seme-alaben heziketa, gure elikadura, gure osasun fisikoa zein mentala, gure zaharren zainketa eta beste hainbeste guretasun. Beraz, paradoxikoa dirudi teorikoki hain oinarrizkoa den eginkizuna gure ardurapean jartzeak.

Hau guztia esaten dudanean, baina, ez dut esan nahi birziklapenaren aurka egoteko argudiorik dagoenik. Batez ere, hori esatea, politikoki, tabakoaren aldeko aldarrikapena bezain ez-zuzena izango litatzeteelako. Gertatzen dena da susmagarria iruditzen zaidala ekologiaz bat-batean sortu den interesa, eta ez dakit ez ote den politikoek janzten

duten mozorro hutsa izango. Ez. Benetan oinarrizkoa iruditzen zait egunero sortzen dugun alferrikako bolumen horri erabilgarritasuna ematea.

Beraz, sukaldaritzarekiko zaletasuna daukan honek plastikoz, lataz eta tetra-brikez beteta dagoen plastikozko poltsa madarikatuarekin borrokatzen jarraituko du, afaria prestatu bitartean oinen artean sartzen zaion arren. Eta beste horrenbeste egingo du kartoia eta papera sartzeko atean zintzilak daukan poltsagatik atea itxi ezinik ibiltzen den arren. Hori, kristalezko botilak eta piper poteak birziklatzeko derrigorrez egin behar den (eta lotsatiak garenontzat hain desatsegina den) zarata salagarria aipatu gabe.

Materia organikoarekin sortutakoak ez dira hobekak, ordea. Bizidunak izandakoen hondakinek jasan ezineko kiratsa sortzen dute, eta usai sarkor hori ezkutatzeko egiten diren ahalegin guztiak alferrikakoak izaten dira, gure usaimenak ondo funtzionatzen badu, behintzat.

Baina, lehen esan bezala, energia ezin da ez sortu ezta deuseztatu ere, eraldatu besterik ez da egiten. Eraldaketa horretan jarria dute hainbatek, bada, konponbidea: norbaiti entzun nion behin hondakin organikoak izozgailuan sartzea omen zela hobereena; behin izoztu eta gero erabat gelditzen baita usaia botatzeko prozesu kimikoa, eta horrek nabarmenki errazten omen du urrutira eramateko lan penagarria.

Energia ezin da ez sortu ezta deuseztatu ere, eraldatu besterik ez da egiten. Eralda ote gaitzke gizakiok?

*Pili Agirre*

# *Kalegats*

## *Euskal Letren Agerkaria*



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

**Euskal Idazleen Elkarte**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxe: 943 27.72.88

## HELLO, IDAZLE ESKOLAKOAK!

**B**arkatu! Kaixo! esan nahi nuen. Ez dakit zertan nengoen pentsatzen. Azken urte hauetan gure herriaren egoera txarrak eraginda (hildakoak nonahi, umeek jatekorik ez, emakumeen aurkako gehiegikeriak...) oso urduri nago, eta euskaraz idazten dudan bakoitzean, konturatu gabe, munduko jabeen (kar-kar-kar) hitzak tartekatzen ditut: *fish, chicken*... Adituen uestetan, oso ohikoa omen da hizkuntza bat ikasten ari zarenean holako akatsak egitea. Baina, tira!

Zer pentsatzen zenuten: euskalduna nintzela? Bai zera! Ni oso urrutikoa naiz. Ez zarete jabetu gutunaren zigiluaz, ala? Gurean hitzak sugeak bezalakoak dira: pozik daudenean gora egiten dute, eta goibel daudenean etzanda egoten dira, tapaki batez estalita, haserre antzera. Gurean gehienok dariz egiten dugu, eta dezentek pastunez. Bitxia, ezta, kulturen arteko aldea!

Nik irailaren 11koa gertatu aurretik ez nuen euskaldunen hizkuntzaren berri, ezta zuena ere. Buruan gauza asko nuen eta, hizkuntza bat zeuenaren moduko ikasteko, denbora behar da. Bestela, galdetu euskaltegiara joaten direnei; horiek bai jatorrak! Nik ordura arte txori asko nuen buruan, edota, hobeto esanda, hegazkin asko, baina behin egoera txukundutakoan, erabaki nuen beste lagun batzuekin batera, eta apaizen antzera, monasterio moduko batera joatea erabaki nuen. Orain halaxe nago, eta ez Tora Boran Iparraldeko Aliantzakoek dioten moduan, baizik eta Amezketako barnetegi batean EGA azterketa prestatzen.

Esandakoa ez zabaldu, mesedez! Bestela, talibanen eta amezketarren arteko lotura bolo-bolo zabalduko dute eta...

Oraindik Euskal Herriko baserritar petoekin berba egiteko moduan ez nago, baina... oraingo martxari eusten badiot, eta okerrik gertatu ezean (egoera dagoen bezala ikusita, auskalo!), sagardotegi sasoiari bertara joateko moduan egongo naizelakoan dago nire irakaslea. Dena den, nire azentuak, oraindik, oso nabarmen uzten nau. Ez dakizue zer-nolako barreak egiten dituen herriko tabernako Jose Marik kafesnea eta bonba eskatzean: «Sabela leheretzeko asmua diagu, ala?». Eta nik, orduan, pare gelditzeke beste barre bat itzultzen diot. Gurean bonbak beti izan dira bizitzaren osagai bat. Hala ere, Jose Mariren bonbak ez du inor hiltzen, baketsuak dira.

Ohera joan aurretik, Kasianoren diskoak eta Zaramaren "Ze urrun dagoen Afganistan", barkatu! Kamerun entzuten aritzen naiz belarri pixka bat egiteko; baina ez da-



Irudia: Cristina Fernández

kit, bada! Sikiera, hegazkinek jaurtikitako bonben burrunbaren doinua alde batera uzteko balio izango balu!

Zer ari zarete pentsatzen? Zoratuta nagoela? Bai, ezta! Munduaren erdiak hori esan ohi du, baina beste erdiak ez. Beraz, ero baina bero.

Lehengo egunean izan nuen nik zuen berri; ordenagailuaren pantailari begira nengoela. Hantxe zegoen txukun-txukun, ele handiz idatzita: Idazle Eskola. Gero, azpian ikastaroaren helburua, ikasgaiak, irakasleen izenak... Baitz izan nintzen matrikula egiteko, baina ikusi eta gero

zer-nolako lanak (5.000 karakterekoa) egiten dituzuen, hobeto pentsatu, eta... kiba egitea erabaki nuen. Zelako pergutada! MUGALARI gehigarrian idatzi! Nik ez dakit zuek, baina ni egongo nintzen...

Geuk ere, noiz edo noiz, irakasleak aginduta, idazlanak egiten ditugu oparitutako boligrafoa herdoilak har ez dezan, baina ez horren luzeak. Nik orduantxe aprobetxatzen dut Kabulera hegan joateko, eta zeruan enarak ziztuka, kalean saltzaileak oihuka, meskitetan muezinak deidardaka... irudikatzeke.

Eta Korana besapean meskitan sartu-irten bat egin dut, eta otoitzak ozen irakurtzeari ekin ohi diot.

Euskal aditzak (ninderraion, diezazueket...) zailak dira, baina... Korana ere, ez pentsa! Ah, hori bai!, behin hasiz gero... ez naiz gelditzen. Zuei ere gauza bera gertatuko zaizue, ezta? Eta orduantxe Afganistango historiaz ezer gutxi dakien irakasleari gauza asko kontatzen dizkiot. Zuek ere baduzue irakasle bat bizarra zuria duena, ezta? Jerardo ez da? Batzuetan Kandahar inguruko mendi lepoetako laino itxiak gogorarazten dit bere bizarrak. Horrek Afganistango historiaz ez dakit ja-

kingo duen, baina Euskal Herrikoaz!

Mundu osoa ibilia da gurean. Mundu osoa etorri da Afganistanera gure herrialdeaz jabetzen saiatzera, baina afganiarrok ostikoka bidali izan ditugu. Munduko herririk abegitsuena gara. Guretzat gonbidatu bat lagun bat da. Baina norbait gure etxera, edo gure herrira, heldu eta etsai baten moduan portatzen bada, orduan etxea defenditzen dugu. Nola du izena "Nire aitaren etxea" idatzitako olerkariak? Tere? Ez, ezta? Terek, defenditu baino, irudiz jazen du etxea, eta hori zailagoa da, nire modukoentzat. Gabriel Aresti da, guk bezala, otsoen aurka aritzen zena. Persiarrak duela 4.000 urte heldu ziren. Baita Alexandro Handia ere, eta gero grekoak, arabiarrek, turkiarrek, ingelesak, sobietarrek eta, azkenik, amerikarrek. Hauek oraindik ez dira joan, baina laster joango dira.

Zer moduz bukatzen badut? Jesus! Barkatu, Ala! Dagoeneko, 5.000 karakter idatzi ditut! Badaezpada, utzi lekutxo bat matrikula egiteko, ze... Besterik gabe,

*Bin Floren.*

*Juan Luis Mugertza Unanue*

## ETXERA BIDEA

**E**txe-atariko ordekan, motza izan arren, abiatzerakoan gauza asko akordatzen dira; lehenengo pausoe-kin tolestaten dira buruan: hartutako enkarguak, aste guztian izendatutako eginkizunak, beti egiteke izaten diren gauzak, eta noizbait egiteko gogoa izan duena ere bai. Aranondo txiki baten parera iritsitakoan, esan liteke bidea hasi dela. Bizkarrean bultzada nabaritzen da. Kontuak atzean gelditzen dira. Oinek presaka kolpatzen dute kaminoa. Korrika txikia sarritan sortzen da. Begirada bideari itsatsi zaio. Burua atzera gelditzen saiatzen da alferrik. Pausoak baldarrak eta kargatuak dira. Nekea barrenetik hasita nabaritzen da. Lehenengo begiek eta geroxeago oinek antzematen dute barrenean ordeka.

Derrigorra bukatu izan balitz bezala, oinek gorputzari jariatzen diote beheko ordekan. Oinak eta burua pixkanaka ibilera berrira ohitzen hasten dira atseginez. Zelai-barrenean zehar-zehar putzuek adierazten dute bidearen norabidea. Aurrera bidean etxeari albora begiratzearekin batera sumatzen da bidearen gainbehera. Bidearen barruan nonbaitera doaneko sentsazioa gaintzen zaio goiari eta beheari. Nekatuta baleude bezala kexatzen dira oinak aurreko jaitziera ikusi orduko.

Bide zabalago batean sartuta, mendi magal osoa jaitsi behar du bideak; baina ez zuzenean, baizik eta, jira eta bira, batera eta bestera eginez. Bide zati hau ez zaio sekula mendiari txertatu, lur-jauziak direla eta sarritan eten baita kaminoa; beraz, urte sasoi gehienetan obrak egoten dira. Ibilbideak pinudi galantak ditu alboetan; baita, ordea, sagastiak eta intxaurrenondoak ere, baserri inguruetan. Beheko aldean baserriak ugaritzen hasten dira han-hemenka; baina oraindik ez dute etxe-atarian posta-kutxarik; ezta herriko farolarik ere. Azkeneko kurbaren ondoren errekarri jarraituz, herri ingurura iristen da bidea.

Bidea herrira gerturatzen denean, hitzez eta kontuz jantzen da. Bide alboan baserriak multzotan kokatzen dira, eta batean ez bada bestean, beti izaten da bide-ertzean bakarren bat hitza emateko. Kaminoa estua da harik eta bailarailako bidera iritsi arte, nahiz-eta auzo hauetan automobil franko daukaten. Edozein erataria ere, segituan dago kamino nagusia, hau da, kamino ona, edo herri-arteke kaminoa. Esan liteke baserri hauek kalekoak direla, ez kale-kalean daudelako, baizik eta kaletik datorren kaminoaren ondoan daudelako. Atzean dira auzo hauetako baserritarrek, herrira joan-etorriak egiteko, alegia. Tamaina politeko pa-

rajeak deritzo jen de askok, izan ere, baserriko laboreak egiteko leku lasaia izateaz gain, kaletik gertu egoteak ematen dien abantaila kontuan hartu behar da. Bide zati honetan askatzen ditu bidaiariak bere oinetako eta buruko giharrak. Goitik datorrenak beti ekartzen duelako berriren bat behekoentzako, eta behekoek, badaezpada ere, beti galdetzen dutelako.

Herrirantz jarraituta, herri-tarteko kaminoan, auzo-kaminoan ez bezala, automobilak dira nagusi. Kaminoa zabalitzen den bitartean da, baina oinezkoarentzat bidea estutu egiten da. Hemen bukatu dira kontuak, aurrera eta atzera, begiak eta belarriak luzatuta egiten da kilometro bat eskas duen zati hau. Zati honetan, arriskua nabaritzen da gorputzean, oin-puntak non doazen da izan beharreko ziurtasun bakarra. Automobilaren ziztua nondik ote datorren justu-justu antzematen da. Ondoko baserritarrek patatak garaiz egiten ari ote diren irizten dio. Elizako kanpai-hotsa entzuten ote den iruditu, eta beharako autobusa albotik pasatakoan, bostak izango direla pentsa liteke.

Ezezaguna eta arrotza suertatzen da bide-puska hau. Ziztu bizian doazen automobilerik ingurua hustuko balute bezala.

Sarreran, herria enfokatzeko hirurehun metroko ibilbide zuzena egiten du bideak. Irudiak kokatzen eta argitzen joaten dira, bide zati honetan. Pauso bakoitzeko aldatzen da

ikuskitzuna; eta barrutik, bidean sortutako burutazioek oraintxe egiten dute berriro ere agerraldia, igogailuetako isilunetan lez. Jendea bere automobilean airoso doala ikusi, baina inorekin hitzik egin gabe igaro beharreko bide-zati hau, ez badirudi ere, aldapa gora dago.

Kalera iritsitakoan, bide asko ageri dira, eta aukeraketa segituan hasten da. Beharrezkoa duk bidaia bukatutzat ematea. Irstea. Bidetik irten, tabernako atarian eserita jarri, eta oinak segituan konformatzen dituk. Bidaia hau ez duk ezer Aizkorrira igotzearekin alderatuta. Ehizera joateko egiten den bidea duk. Bizikletaz igotzeko, azkeneko tramuan aldapa galanta dik. Hortik joaten duk, baita, meategietara. Dagoeneko bidaia oroitzapena dun. Nekea dun gelditzen den arrasto bakarra.

Buruak, ordea, ez du bidea hain erraz eteten, inertzia indarrek ere horretara bultzatuko lukete, baita indarren batek, ere. Sekula ez da bide bera bitan egiten. Aldatzen dira: bideko paisaia, bide lagunak; eta nola ez, bidaiaria.

Nire etxeko bidea ez da misteriozua, ez du bizitzako lotsarik astintzen, eta ez du inor harrapaturik uzten: etxetik kalera doa, eta baita, kaletik etxera ere. Egunean behin bakarrik egin zitekeen oinez ibiltzen zirenean.

Juan Mari Apaolaza Estensorolea

## LILIT

**G**auak harrapatu gaitin gaur ere, egunero legez. Hai-zeak leiho bat zabaldu din, eta hotzikara batek adierazi zidan hire erresuman sartu garela, hi haizela erregin, harik eta eguzkiaren lehen izpiek gure ama lurra argitu arte. Urduri negon, eta ez zekinat zergatik, izan ere orain dela hila-betera arte, ez baininan hire berririk, Lilit. Baina egia esan, hire izena entzun ninan unetik, aldatu egin naizela aitortu behar dinat. Zer dela eta? Nire barruak hainbestetan adierazitako justizia sena higan haragitua ikusi hainbestetan.

Tximista azaldu bezain laster jo din trumoiak. Euria ari din, zaparrada, eta hontza ere entzuterik izan dinat horrenbesteko zalapartaren artean. Zer ari haiz ospatzen? Hainbeste urtetako bazterketa bukatu ote dun? Bibliak oso bazter txikia gorde zionan izadiaren lehen emakumeari. Urruti kokatzen hau, basamortuan, gaizkile artean, deabrua bera izango bahintz bezala. Beste hainbat gauzatan legez, engainatu gaitizten, Lilit, eta Ebari utzi zioten lehen emakumearen papera. Adan eta Eba, inoiz ez Eba eta Adan. Adanen saihe-tsak, ondorengo Eba guztiak menperatu izan balitu bezala.

Ausarta izan hintzen, Lilit. Adanen buztin beretik sortua paradisura, Jainkoaren irudiko Adanen modura, eskubide berdinez jantzia gaur esango genukeenez. Eta Adani oldartu hintzaion, eta bide batez Jainkoari ere, hire berdintasun hori aldarrikatuz. Ez huen ulertzen Adanek gaineratik egoteko zeukan behar hori, zergatik agindu behar zinan berak, eta ez hik. «*Ez al gaituzu zure irudiko egin, Jainkoa, gizon eta emakume?*» esaten hion behin eta berriz Jainkoari. Baina Jainkoak ez zinan erantzun, edo hobe esan, erantzun zinan bai, Paradisutik bidaliz. Hortik aurrera, belaunaldi asko izan ditun hitaz ezer jakin ez eta Eba eredu izan dutenak. «*Adani jarraitu behar haiztaio, bere esanetara bizi, bere saihetsetik sortua haiz eta*».

Urteetan zehar, hitaz beldur izaten irakatsi zieten hire berri zeukatenei. Ekaitzetako deabrua izan haiz batzurenzat, umeak lapurtzen zituen gaizkilea besterentzat, gaua, ilargi beltza. Hire ausardia gaitzetsi nahi zintan ordea, hire indarra, hire egia. Gehienontzat ezkutuan izan haiz, eta hi gabe joan gaitun mundua eraikitzen. Eta bazirudin, hegoaldeetik datorren haize epela balitz legez, orain hasi garela nabaritzen hire eragina, Lilit.





Irudia: Cristina Fernández

Zer esango zuketen senarraren makilkadak gauero jaso-tzen dituzten emakumeek hire ereduak erakutsi izan baliete? Inork ulertzen ez duen on nagusi baten izenean egoera horretan irauteko eskatzen dieten horiek hiri egin zinatena egiten ari zaizkie emakume gaixo horiei. Hire berri izan balute, agian hire arnasaz aurre egingo zioteten egoera horri. Adanek agintzen din oraindik.

Ebaren gaintetik, baina laster agerian izango haizela sumatzen dinat.

Egia aitortuko dinat. Beti pentsatu izan dinat mitoetan gordetzen zela munduan aurkitzen ez dugun justizia. Ebarenak,

aldiz, beti utzi nain urduri. Ez ninan ulertzen Adanen saihetsetik sortzea. Hi, ordea, hor hengoan, Lilit.

Hunkituta naukan nire gelan bakarrik, leihotik begira, euri tantak eta haizea aurpegian dantzan, zeru beltzari so, gauean harrapaturik, higan murgildurik. Badakin mundua bestelakoa litzatekeela hi aintzat hartu izan bahindute?

Mendebaldean eragin handia izan din kristautasunak, eta ondorioz Bibliak. Bertan dagokinan lekua eman balinate, ziur naun emakumearen egoera ez litzatekeela gaur egun daukaguna. Oro har, gure mundua ez zunan den modukoa izango.

Gaua egunaren parean egongo zunan, bien edertasuna ezberdina izan arren, gauza beraren bi aurpegiak direnez gero.

Berdin emakumea eta gizonezkoa. Buztin beraz eginak biak. Eskubideetan berdinak.

Gauak beti sortu zidan horrelako zirrara berezi bat. Ilargiari miresmena zionat, eta hi haiz ilargi beltza, Lilit. Borrokan den emakume ororengan hago, orain ikus hazaket hauen begietara zuzen begiratuz gero, maizegi malko asko ezagutu duten begi lausotuetara.

Leihoa itxi dinat eta ohean sartu naun. Lotsa sentitzen dinat, ez haudalako lehenago aurkitu, ez dudalako susmatu ere egin hi izan bahintzenik. Badakin, harroak izaten gaitun gu, eta maiz gaintetik begiratzeak plazer berezi bat sortzen zigun. Ez dinagu sinetsi nahi izaten hi haizela guztiok parekatzen gaituen uholdea, inork ezin geldid dezakeen indar beti erekoa.

Haizea entzuten dinat oraindik kanpoan. Hor habil, sumatu egiten haut, baina ez hatzait begi bistra agertzen. Eder imajinatzen haut, ile adats luzez, eta sendo, urteetako historia oinazez bizi izan duenaren sufrimendu aurpegiz, baina itxaropen begirada islatuz. Hire ausardia ordaindu egin behar izan huen, baina heurea hunan arrazoia.

Ilargia laino artean ezkutatu dun. Ez zihardun dagoeneko euririk, haizea baretu dun, eta bahoak, patxadatsu, samur, hire garaipena hurbil izango den esperantzaz. Ez dun mendekurik nahi, bestelakoa dun gauzak lortzeko hire bidea. Hi izango haiz gaur nire ametsetan, Lilit, eta zin daginat ez naitzela hire gaintetik jarriko, Adanen iturritik edandakoa baldin banaiz ere. Horretarako gure ondoan behar haugu, gau eta egun, Lilit, hire tximista, trumoi eta uholdeek bizi dugun lozorro honetatik behingoz iratzar gaitzaten.

*Mikel Santiago Arizaga*

## ● NOLA IGARO EGUN BAT EZER PENTSATU GABE ●

**G**oizeko seietan esnatzen naiz egu-  
nero. Gogorra da,  
oso gogorra. Horregatik iratzargailu tradizionala izorrratu zitzaidanean izorrratu nuen nik bera. Irrati-iratzargailu horietako bat erosi nuen, errazago esnatuko nintzelakoan. Baina bost urte daramatzat eguraldi partearen aurretik botatzen duten kantua madarikatzen. Lau galleta triste kafesnetan bustiz gosaltzen dut. Bitartean, galleta-kaxako osagaien zerrenda irakurtzen dut. Beste batzuetan merkataritza-zentroen katalogoen arteko analisi konparatiboak egiten ditut. Egun batean, publizitatean bakarrik urtebetez kontsumitzen dudak paperaren pisua kalkulatuko dut.

Gosaldu ondoren, jantzi eta autobus-geltokira joaten naiz arrapaladan. Markesinako kristalaren beste alde-tik perfume garesti bat eskaintzen duen neska ez-paingorria dut niri so. Hamar egunez behin aldatzen dituzte markesinetako publizitate-kartelak. Norbaitek, ordea, orri bat itsatsi dio bularretan. Pisu bat alokatu nahian dabilen norbait izango zen.

Azkenean, badator autobusa. CORTEFIEL, oso fidela ez bada ere. Larruzko jakadun modeloak barre egiten digu autobusaren alboko iragarkitik. Hotzik ez al du edukiko madarikatu horrek? Ez da ezer entzuten autobusean, alboko gizonaren ezulak izan ezik. Monotonía hausteko pan-



Irudia: Cristina Fernández

<<Ai, ilargia, egun batez zuri begiratu eta neoizko Coca Colaren txapa handi bat topatuko dut piztuta!>>

taila batzuk jarri dituzte, turistei hiri-promozionatzeko. Niri goardia-ko farmaziak non dauden jakiteko bakarrik interesatzen zaizkit, asko begiratu gero mareatu egiten bainaz.

Heldu naiz lanera, azkenean. Lan-ean, fax, telefono eta inprimagailuen hotsa ez entzuteko, irratia pizten nuen, lehen. Orain, galarazita dago. Jendaurreko zerbitzua hobetzeko eta giro egokia eratzeko hari musikala jarri ziguten duela hogei egun: etengabe errepikatzen diren lau kantu zozo. Gainera, kalitate maila handitzeko protokolo bat jarri digute: arauak koadro batean sartuta dauzkagu urrezko letra handiz bulegoaren erdian... baina mikrouhin-labea konpontzeaz ez da inor arduratzen... gaur ere alboko tabernan bazkaldu beharko dut, ekarritako makarroiak ezin ditut berotu eta.

Bostetan irteten naiz lanetik, eta etxeko atarira heltzen naizenean, buzoiak publizitatea jaurtitzen dit. Publikatarata dirudi. Zakarrontzira doa dena.

Afaldu aurretik: bat, erosketa batzuk egin behar ditut alboko supermerkatuan; bi, biharko bazkaria prestatu behar dut; hiru, laneko pare bat gauza berrikusi behar ditut. Banoa korrika supermerkatu-  
Hemen ere laneko musika bera jartzen dute. Supermerkatuek deprimitu egiten naute; ez dakit jendeak nola

ligatzen duen hemen. Debeekatuta egon beharko luke argi fluoreszenteen azpian maitemintzea. Gainera, ordaintzerakoan fideltasun-txartela eskatzen dizute! Nik ezetz, dirukontutan ez naizela fidela erantzun diot dendariari.

Irteterakoan, atean neska batek geldiarazi nau eta orri bat luzatu dit sinatzeko. Nik ezetz. Lana eskatu dit. Nik ezetz.

Dirua eskatu dit, nire borondate onagatik. Nik goizeko seietan esnatzen direnek borondaterik ez dutela erantzun diot, baina azkenean dirua eman diot, nire kontzientziaren lasaitasuna dudan jarritz.

Ez dut gogoko erositako jana poltsetatik atera eta jasotzea. Baina oraindik armairura bakarrik joaten diren produktuak asmatu ez dituztenez, bada... Gauza gehiegi erosi ditudala jabetu naiz, ordea, eta behar ez nituenak, gainera. Plastikozko poltsak goiko armairuan gordeko ditut. Atea irekitzean, ordea, aurretik barruan zeuden guztiak erori zaizkit gainera. Azkenean, zakarrontzira botako ditut guztiak.

Biharko bazkaria prestatzen hasiko naiz. Beratzen zeuden garbantzua eltzean egosten diren bitartean, lanetik ekarritako orri horiek ikusi behar ditudala otu zait. Eta honetan ari naizela telefonoak jo du. Lagunen bat izango da; baina, ez, telefonia-konpainia bertatik deitzen didate, ea Internetik dudana galdetuz. Nik, ezetz. Ea posta elektronikorik. Nik ezetz. Ea tarifa planorik. Nik planoak dudana bakarrik pazientzia dela diot. Haserretu egin zait. Azkenean, garbantzua erreko zaizkidala eta, moztu egin diot. Momentu horretan bertan ateko txirrinak jo du. Ama izango da. Baina bi emakume txiki agertu zaizkit atean ea hiltzen garenean nora joaten garen galdetuz. «Garbantzua» oi-

katu dut. Haiek «Bakea munduan». Nik «Garbantzua» eta atea itxi diet. Ate azpitik sartu didate Jesusen bihotza. Sakelakoak jo du oraingoan; berriz ere, publimovimegatar... laneko orriak sukaldeko mahaitik erori zaizkidala ohartu naiz azkenik...

Hortzak garbitu eta ohera noa lehenbailehen, bihar seietan esnatu behar dut eta. Eta ohe-ertzean eseri naizenean nabaritu dut isiltasuna lehenengo aldiz neure alboan. Eta eguneko unetik onena hau dela otu zait. Zenbat denbora nire baitan murgildu gabe! Zenbat denbora ez dudala idazten!

Intimitate-eskubidea omen dugu, baina aspaldian galdu zuen hark bere esanahia. Kartoizko kaxa handi bat bezala imajinatzen dut, baina barnetik hutsa. Eta gaurko eguna zer izan den pentsatzen dut, non galdu dudana nire intimitatea, neure etxean ere ez binaute errespetatzen. Teknologia-aurrerakuntzek norberaren esparrua babestu ordez, berau urratzeko bide gehiago ireki ez ote dituzten iruditzen zait. Leihotik begiratu eta zeruan ilargia ikusi dut:

«Ai, Ilargia, egun batez zuri begiratu eta neoizko Coca Colaren txapa handi bat topatuko dut piztuta!»

Eta sakelakoak jo du...

*Laida Azkargorta Ruiz de Egin*

## ADIOAK

**B**izi aro baten menpeko gara denok.  
Mundu honetara dagokigunean gatozen moduan  
dagokigunean ere bagoazela esaten da.  
Baina hori ez da egia,  
batzuk ordua heldu baino lehen badoazelako.  
Sonia eta Merce,  
zuen ordua heldu ez den arren joan zarete,  
betirako gure ondotik.  
Gure bihotzetan eta egunerokotasunean .  
Zaila eginen zaigu zuen irribarrea ahaztea, ez dugu ahaztu nahi eta.  
Zuen indarrak eta tinkotasunak dantza eragingo du.  
gure inguruan zuei jo,  
guri so.  
Zuen ametsak, gure ametsa dira.  
Eta izanen dira hasi duzuen itzulerarik gabeko bidaiari,  
samurtasun apur batez,  
zuen hutsari aurre egiten lagunduko digutenak.  
Zuen ordua heldu ez den arren,  
joan zareten arren , Merce eta Sonia.

*Maidar, Zabaldiko laguna*



## BOST MINUTU

**M**etroa berandu zetorren. Xan Martingo geltoki heze eta ilunean bakarrik. Eskumuturreko ordularian hamarrak eta hamar. Carlak, noiz-behinka, eskubikoari ere erreparatzen zion. Ez zuen argi gorriarik erakusten. Isilik zegoen; lasaitasunaren seinale. Puntako teknologia eskumuturrean lotua. Beste pultsera Andresek zeukan, bere senarrak, atzo goizean, aterpetxetik atera aurretik, kentzen saiatu zena. Hilabete da jarri ziotela eta oraindik ez du trikimailurik asmatu. Azken egunetako intentonak gehiago izan dira. Alabaina, lo egiteko ere ken ez daitekeen metalezko lokarria bere horretan utzi du, argi gorriaren beldur. «Eugeniok lagunduko dit» eta txikitako lagunarengana jo du. «Tailer bat dauka eta zerbait makinatuko du».

Carla, aldiz, goizean etxean zen.

Ganbaran orduak ematen ditu, etxean ipini behar zituzten altzairu zaharrei hautsa kenduz, edo eta kutxa zaharkituan dituen pitxi, oroigarri nahiz aspaldiko lagunaren postal eta eskutitzak irakurriz.

«Zure eskutitzik ez, Markos. Ezta zure postalen arrastorik ere. Ez dakit non dauden, edo baziren ere. Gure maitasun istorioaren hasiera postal batean harrapaturik geratu zen. Kilometro batzuk zapuztutako maitasuna adierazteko modu labur, simple eta mimatua nuen hura, Salamancatik bidalia, ikasle garai haietan».

«Hasieratik erori zinen hitz goxo haien artean, ohearen bakardadean behin eta berriro irakurtzen zenituenak; horrela imajinatu nahi zintudan, behintzat. Ni, aldiz, uneoro zure erantzun-

naren zain ninduzun, kilometro madarikatu haiek gaindituko zituen postalaren esperoan, maitasun keinu baten itxaropenez».

«Ez zen inoiz iritsi».

«Nire postontzia bankuko agiriez eta propagandez aisa bete ohi zen 'propaganda no, gracias' ohartxo jarri arren. Aitzitik, desiratutako eskutitzez inoiz ez».

«Eta, halako batean, urte batzuen buruan, Madrilen elkarrekin bizi ginen hartan, urrutiko parajeetan zenbiltzan postaltxo ailegatu zen: aurreko aurpegian hondartzako palmondoak zeru urdinari begira; atzealdea hitz bakar batzuez zizelatu, urruntasuna are gaindiezino bilakatu. Zure udako oporraldia zen, ondorengoetan ere errepikatuko zenuen Cariberako bidaiaren lekuko».

«Etxera itzultzean, zerorrek bidalitako postaltxo hauek ere jasotzen zenituen, nik ezteki idatzi eta eskainitakoekin batera, sekretupean gordeak agure ginenerako, bilobei erakusteko edo».

«Ganbara ezkutu honetan idatzitako hau ere kolekzio horri gehituko diozulakoan nago, bildumaren bukaera aldean; izan ere, gaurko hau nire azken postala duzu, gure maitasun istorioari amaiera ematen diona».

Ez zion inoiz bidali. Bere bizipenak gorde ohi zituen kutxa zahar hartan jaso zuen azken postal hura, bere lagunaren postal eta eskutitzen alboan, diarioaren orrietan ezkutatu, beldurraren beldurrez.

Pausoak eman nahi eta ezin. Esaterako, gizarte laguntzaileak hustu eta beste auzo batera aldatzeko esanagatik ere, ez du etxea utzi. Lan-tegi zaharreko zikoinek tximiniko habia bezala maite du



Irudia: Cristina Fernández

Carlak bere etxea. Udazkenarekin Afrikarako bidea hartu dute gehienek, bikote batek izan ezik. Azken egun hauetan, hauei begira igaro ditu Carlak goizeko lehen orduak.

Gaur ere, kalera irten aurretik, prismatikoak hartu ditu. Ondo bereizten ditu: arrak moko okerra du, emea bereganatzeko borroka sutsuaren ondorio; emeak, aldiz, aurtengo umaldian bat bakarra izan du, lehenengo hegaldi saiakeran, kumea habiatik erori eta lantegiko txatarra edukinontzian lurperatu zena. Harrezkero triste gelditu da zikoina ama, eta bere lagunak maitasun dantza bitxiak eskaini arren, tristeziak jota, ahuldadeak hartu du. Ezin dute Afrikarako bidaia burutu. «*Asteak dira ez dela mugitu ere egin*». Prismatikoak tximinira zuzendu... «*oraindik lepoman dauka lokarria*». Coca-Cola latak lotzeko plastikozko eraztuna da, habia konpontzeko erabili zuena; eta, orain, airea lapurtzen diona.

Zikoina arrak utzi dio dantzatzeari eta bere moko okerrarekin, hor dabil, urka-soka eten nahian. «*Nik nire ezkon-eraztuna komuneko zulotik bota nuen*». «*Eskumuturreko metalezko lokarriaren truke, Carla*».

Hiru hilabete Madrilgo epaile gorenak tratu txarrak jasaten dituzten pertsonentzat babes-sistema berri eta moderno hau onartu zuela. Esperientzia piloto programaren barruan sartu zituzten, Carla eta Andres. Senarra ez gertatzeko neurria zen. Ospitaleko larrialdi plantan sartu zutenean, Carlak ez zuen oraindio konorterik galdu. Aurreko zauriak sendatu zizkion erizain berberak askatu zion korapiloa, arnasa estutzen ari zitzaion senarraren gorbata gorria. Epailearen neurriak zioenez, bostehun metro errespetatu behar zituen senarrak, gainerantzean

txibato gorriak saltatu eta polizia aleraziko zukeen.

Bost minutuko atzerapena nahikoa izan zen, Carla geltoki zaharkitu hartako bankuan eserita, atzetik itzal batek harrapatu zuenean. Ahoa estali zion, eskuarekin.

Han zegoen. Metalezko eskumuturra ezaguna zuen. Borroka saio amaigabeari ekin zioten. Carlak poltsan zuen espraia gogoratu zuen. Udalak antolatutako auto-defentsarako ikastaroko aholkuak jarraitzeko ahaleginak ere egin zituen, geltoki isolatu hartan inor ez zegelakoan, ordura arte inoiz dantzatu ez zuten amodio-gorrotango piezarik odoltsuenean arrotz hura agertu zen arte.

Bi aste igaro dira harrezkerotik. Orain, Madrilgo epaitegiko areto nagusian dago Carla, epailearen galdeketa zain. «*Urtetan ganbarako kutxan gorde ditudan diarioko sekretuak kontatuko dizkiot berorri, epaile jauna*». Senarrarengatik malakorik ez. Kazetariak kanpoan bilduta daude. Fiskalak, aldiz, egunkaria irakurtzeko tartea hartu du. «*Bista ona dut, behintzat urtetan zikoinekin hobetu dudana*», gogoratu du Carlak.

Berriak hala dio: «*Gizon bat hilik aurkitu du metroko zaindariak, Xan Martingo geltokiko arrailen artean*». Aurrerago eskumuturreko sistema berriak huts egitearen zergatiari ari da, nik neure buruari ere egin diodan galdera bera: «*adituek diotenez, lurrazpiko garraibide sareetan eskumuturrekoaren alarmak ez du funtzionatzen, koberturarik gabe gertatzen baita*». Aurreneko orrialdera itzuli da fiskala, eta titularreko letra larriek kolpatu diote Carlari aurpegian. «*Punta-puntako teknologiari boikot*».

*Arantza Urbieta Aranzasti*

***Euskal literaturaren erreferentzia nagusia***

**Hilero 45.000 bisita**

**www.idazleak.org**



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

**Euskal Idazleen Elkarte**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA

Tel.: 943 27.69.99 • Faxe: 943 27.72.88



## EPAIXKA

### Gurutzetan


**O**rdu erdiko bidaia egin ondoren arratsaldeko lau eta erdietan heldu gara istripuaren lekura. Heldu garenean bost bat minutu itxaron behar izan dugu suhiltzaileek burdinen artetik gidaria atera arte. Tarte horretan ohatila eta tresneria guztia hurbildu dugu eta, era berean, suhiltzaileekin zein zaurituarekin hitz egin dugu lehen balorapena egitearren.

«Suhiltzaileen eta poliziaren arabera, zauritua kontziente egon da une oro. Lehen azterketa egiten aritu naitzen bitartean laguntzaileak kateterea jarri eta sueroa sartzeari ekin dio; ondoren, ornoak babesteko idunekoa jarri eta baita hanka immobilizatzeko ferula jarri ere. Lehenengo ebaluazio honetan zera antzeman diot: ezkerreko hankaren femurrean haustura irekia odol-jarioaz eta ezkerreko besoaren ukondoan bost bat zentimetroko zauri irekia».

«Kasu hauei dagokien protokoloari jarraitu diogu bai anbulantziak kanpo baita barruan ere. Zauritua gai izan da bidaian zehar nire galderei koherentzia erantzuteko eta ohiko galderei zein elkarriketa arruntari jarraitzeko. Hasieran min handia zuela esan digu; berehala nolotil sartu diogu kateteretik. Segituan antitetanikoa jarri diot ezkerreko ipurmasailan. Geroago, eskubiko hankaren odol-jarioa eteteko bere pisuari zegokion tronbina dosia jarri diot. Kasu hauetan normalizat jo genezakeen bezala joan da dena harik eta ospitalera iristear geundela bihotzekoak eman dion arte. Desfibrilatzailearen laguntzaz eta adrenalina infiltratuz bere sena ekartzen saiatu bagara ere, ospitalera sartu dugu.

«Nire ustez —horrela jakinarazi diet larrialdietako kideei— gu heldu garenerako odol asko zuen galdua eta, ohatilan jarri bezain laster, ferula ipini baino lehen, odol-presioari eusteko ezker hankan torniketea egin badiogu ere, bihotzak huts egin dio».

**Gurutzetako Ospitalean  
2005eko otsailaren 5ean  
G. Odriozola Dr.**



Irudia: Cristina Fernández

<<Laster batean jakingo duk hik ere justizia ematea zer den>>

### Inauterietan

- Ezetz ba! Eeee-zeetz! Ez duzu entzun? Putakume hori kendu zaitez nire gainetik! Aaaagg!

Ezin arnasa hartu.

- Aaaagg.

Putakume honek itoko nau, ito nahi nau.

- Uztazu arnasa hartzen. Bai; geldi egongo naiz. Ez naiz mugituko.

Eutsi, bizirik irten behar duzu hemendik, utziozu egiten, bestela larriagoa izango da. Amore eman, dena duzu zure aurka. Arnasa hartu, sakon, eta gauza guztien gainetik ez negar egin.

- Bai, errepikatuko dut zurekin batera. «Bon voyage». Bai, bidaia modukoa da. Berririo? «Bon voyage».

Ez, mesedez, ez; honezkerokoa nahikoa umiliatu zaitu, ez negar egin. Irentsi malko guztiak baina ez negar egin.

- Ezin dut gehiago, atean jotzen dut.

Ez saiatu, seguru ez dagoela ez Epaixka, ez... Kotxeak pasatzen dira, baina ez dira gelditzen. Ama, maite zaitut.

- Saiatuko naiz, baina ia ez dago lekurik; zuregana, bai. Bai, hemen da pizgailua; zarata egin gabe. Agian mugitzeaz batera. Astiro. Barrura. Badago, minutu bat gehien jota.

- Bai, «bon voyage».

Nora? Errepidera. Ez badator kotxerik? Hobe mendi aldera.

- Ez, ez dakit... Ez, ez diot inori esango.

Orain. Gogor... eutsi... ez askatu. Orro egin dezala putakumeak.

- Eeez! Ez nazazu hil. Baarkaatuuu... Aaagg. «Boonn vooyaagg»

- Nor zara zu?... Non nago?... Hau burukomina, zeregina didazue buruan?... Ze egun da gaur?... Emadazu eskua mesedez, ez utzi bakarrik. Eskerrik asko... Ez itzali argia. Nire amari deitu. Eraman nazazue plantara.

Ez dut hemen egon nahi... Badakit, medikua naiz ni ere.

Anestesiaren eragina, seguru. Bizirik nago. Eskerrik asko ama. Maite zaitut...

## Bidean

Lasai zaituz, ez da larria. Hezur pare bat hautsita dituzu eta odola galdu duzu. Ez duzu kezkatuta egon behar. Errekuperatuko zara arazorik gabe, ikusiko duzu. Ez zaituz lokartu. Hitz egin. Hitz egin nirekin eta ez itxi begiak. Nola duzu izena?... Zure aita bezalakoa, esan duzu?... Ez kezkatu, ordu erdi barru ospitalean izango zara eta laster etxean errehabilitazioa egiten. Zerbaiti alergia al diozu? Tira; umorea behintzat ez duzu galdu, medikuek gain beste zerbaiti? Antitetanikoa jarri behar dizut infekzioa ekiditeko, saiaturikoa naiz minik ez ematen mugitzean... Ez zaituz lokartu... Kontaidazu, zertan egiten duzu lan? Epailea esan duzu?

Putakume halakoa! Mila bider putakumea! Hi haiz hi inauterietan bortxatu ninduen. Begira non topatu haudan. Ze nazka

ematen didaan... Segi zure lanarekin. Ez etsi orain. Segi... A ze nazka ematen didaan. Putakume halakoa; hilko haut oraintxe bertan. Hi ez haiz bizirik helduko ospitalera. Ezta pentsatu ere. Ez duk merezi.

Mina? Derrigorrez. Femurra hautsita duzu... Bai, infekzioa ekiditeko. Zer da hemen duzun marka hau? Txertoa esan duzu?

Bai zera!, eta ni Teresa Kalkutakoa, notejode! Eraztun konzentrikoez osatutako txertoa... txerri halakoa.

Denbora asko daramazu justizia ematen?... Horrela esaten duzue epaileok: justizia eman, ezta?... Bai horixe! Urte asko dira, bai. Sasikume nazkagarri horrek, seguru nagon disfrutatutako egiten duala hire justizia ematen. Txerri basati horrek!

Begira, betidanik kezkatu nau justizia-ematearen prozedurak. Beti-beti justizia eman behar al da?... Beti?... Aurrean nor duzun begiratu gabe?... Berdin dio nor den?... Bai, jakina!... Horregatik adierazten al da justizia benda batez begietan? Begira, hori ez nekien. Banekien bendak oso garrantzitsuak direla medikuntzan, bereziki zauriak sendatzeko; baina ez nuen uste justizian ere hain garrantzi handia zutenik.

Laster batean jakingo duk hik ere justizia ematea zer den. Ez dakik ongi zenbat aldiz amets egin dudan honen moduko une batekin. Ez dakik ongi zenbat aldiz isuri zaizkidan negar malkoak. Hire kotxe nazkagarri hartan irentsi nituen guztiak. Justizia. Hitz ederra hire epaiketa-gelan harro erakusteko, baina hire moduko txerriek urrutitik ere usaintzen ez dutena.

- Nere, tronbina jarriko diot hemorragia eteteko; adi egon konstanteei, mesedez.

Eta hiri, sasijustiziero merke txerriari, belarrira xuxurlatuko diat hire justiziaren epaia: «bon voyage».

Alfredo Rodriguez Landa

## Liburuez gozatzeko irakasteko

# “Liburuen Xarma” bilduma

## Liburu-dendetan salgai!

Etxean jaso nahi badituzu, deitu Euskal Idazleen Elkartera: 943 27 69 99



**Euskal Idazleen Elkartera**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxe: 943 27.72.88



## SAN MARTIN EGUNA

**D**ame un purito», eskatu dio Manuelek tabernariari. Bazkalostean lanera joan aurretik kafea hartzen du plazako tabernan eta egunkaria irakuriz erretzen du. Ingurukoak begira ditu purokina noiz botako, lurlean itzali aurretik azken muturra erretzeko. Manuelek ez ikusia egiten du, errukia die, gerran noren alde borroka egin asmatu ez zutelako. Otartekoa eskuan, badoa lantegira, bere garitan eseriko da eta irratia entzunez pasako du arratsaldea. Don Joseri, nagusiari, enkarguren bat egingo dio propinatxo baten truke, horri esker, ez da oliorik eta ogi zuririk falta etxean. Zazprietan lanetik atera eta etxera abiatuko da.

- Gaur duk eguna, Carlos —esan dio Pedrok semeari.

- Bai, ederki gزندuta daude. Bolada baterako izango dugu zer jan —semeak aitari.

- Etor hadi seiak aldera, hobe dingu garaiz ibili. Pedrok arratsaldea baserrian eman du labanak zorrotzen, gakoak, baldeak eta gainerako tresnak txerribodarako prestatzen. Aita-semeak elkartu eta zazpietarako Manuelen etxerako bidera joan dira garaiko egun laburren iluna lagun.

Manuelek begiak zabaldu ditu, hankaz gora dago sabaitik zintzilik. Batera eta bestera mugitzen da askatu nahian, eskuak atzean lotuta ditu eta bere garrasiak ahoan duen trapa itotzen ditu. *Etxola Zahar* baserriko bazter ilun hartatik ez dute iheshiderik laguntza eskatzeko jaurti nahi di-tuen oiuhu etsiek.

Eskuak odoletan dauzkate Pedrok eta Carlosek. Zerriaren barrenak hustutzen ari dira. Bero dago oraindik zinkezko baldean odola, bere usainez bete du dena. Arropak, mahaiak, labanak eta baita lurrezko zolu marroiak ere



<<Maria Gorria, esan du ahapeka Manuelek. Bukatzerako bi tiro hots entzun dira. Ondoren, isiltasuna. Ahozpeztu gelditu dira ama-semeak>>

zipriztinak dituzte nonahi. Heste eta barrenei lurrin epel heze eta sarkorra darie. Hamabost urteko gazteak errai horiska odolduetatik begiak jaso eta Manuel ikusi du —esnatu da, aita—. Aitak ez dio erantzun. Mutikoa begira gelditu da. Bonbila lausoaren argitan, kateak ubeldutako orkatilak, odol xirripa gorri ilunek are zuriagoa egiten duten haragi biluzi guriaren dantza zoroa; eta lurretik hurbil, odolaren presio eramangaitzak hanpatutako lepoalde eta burua. Lurrean, itzala joan-etorrian, ihesi joan nahian bezala, behin eta berriz urruntzen da, baita itzuli ere, bera ere kondenatuta bailegoen. Baina, itzala nekatzen ari da, gero eta gutxiago mugitzen da, amore eman du. Carlosek bere lanari ekin dio berriz. Isilik ari dira, bakoitza berean. Pedrok, laban luzeska esku batean eta zorrotzarria bestean, hots erritmiko hotzez urratu du isiltasuna. Gazteak gorputzeko biloa lazten sentitu du, iritsi da ueña, hortzak estutu eta baldea hartuta, aitarekin, dagoeneko bere itzala mugitzeko gauza ez den haragi-zati desitxuratuari hurbildu zaio. Zintzurra ebaki dio aitak, odol usain gozoa mendeku usain garratzarekin nahastu da. Odolak, bere bidean, aurpegiko gorabehera eta zimurrak marrazten eta betetzen dizkio; azkenik, baldearen hondora amiltzen da lodi, eta han, lehenago bildutakoaren kondarrekin nahasten da ilun, soinu xume eta soila eginez.

Arnas estuka dator Juanita *Etxola Zahar* baserrira. Zurezko atea aurrean gelditu eta bi kolpe eman dizkio indarrez. —Hemen dira! Harrizurietako gainean ikusi dituzte!— oihu egin eta etorritako bidetik joan da presaka. Barruan, Maria, sasoiko emakumea, etxeko lanak egiten ari da. Bazekien une hau iritsiko zela, baina ez du horregatik berria lasai hartu. Izan ere, herrira aspaldi iritsi zen soldaduek beren bidean egindako sarraski ankerren oihartzuna.

- Carlos! —Kanpoan jolasean ari den seme txikiari dei egin dio. Semeak etorri denean

- Zer esan du Juanitak, ama?

- Ezer ez, haurra. Joan aitarengana eta esan hemen direla.

- Hemen direla zeintzuk? —Carlosek

- Inor ez, ttikia —esanez malkoek ihes egin diote eta seme-txoa bularra- ren kontra estutu du. Haurrak ere, zergatik jakin gabe, negar egin du.

- Zergatik ari zara negarrez, ama?

- Hoa azkar! —esan dio zakar Mariak malkoak xukatuz. Aita larrean da Joxemari-kin, belarretara joanak dira. Ondo zekien Mariak, horrelakorik gertatuz gero egin behar zuena, makina bat aldiz hitz egina zeukan senarrarekin. Seme zaharrenak, Joxemari-kin, hamabi urteko gizontxoak, amari lagunduko dio baserrian azken momentukoak prestatzen. Belaunaldiz belaunaldi familian izan diren urrezko txanponak eta balorezko ondasun urriak harrizko pareteko harri askeren baten azpian gordetzen eta susmorik sor dezakeen edozein paper edo liburu ukuiluko txokoren batean lurperatzen. Bitartean, Pedro Carlosekin senideen baserrira abiatu da. Senarrak zaharra eta herrena izaki, denbora behar du eremu malkartsuan gora eta behera ibiltzeko. Gerrogo, ama-semeak bide bera egitekotan dira.

Mendi kaskoan zain dago Manuel. Han urrutian tropa luzea datorrela ikusi du. Bertaratu direnean akordatutako hitzak esan eta eskua eman dio aurreratuta datorren tropatxoaren buruari. Bere lehengusu naparra ere taldetxoan dator. Ekar besarkatu dute, ederki hitz egiten du honek “*castellanoz*”, Manuel ere sailtu da nola edo hala. Berehala etorri dira gainontzekoak. Orduan, sarjentua hurbildu zaio. Gai estrategikoak aipatu dizkio, baina Manuelek ez dio bere hizkera militarra ulertzen. Lehengu-

suaren laguntzaz, herrirako sarrera eta hainbat xehetasun azaldu dizkio. Herriko jendea buruz ere galdetu diote. Horretarako, mediku ikasketak egiten ari zen gazte betaurreko-dun bat eseri zaie ondoan, eta izen bakoitzaren alboan helbidea eta beste zenbait ohar hartzen aritu da.

Formazioa berregin eta aurrera, herrirantz abiatu dira gurdibidean barrera. Zelaiak eta basoak tartekatzen dira lur gorabeheratsuan. Talde nagusiaren aurretik patruila doa, dozena erdi soldaduk, kaboak, lehengusuak eta Manuelek osatzen dute.

Miguel, berak bildutako zigarroa atera du alkandorako patrikatik, eta Manueli eskaini dio irribarrez. Hamazazpi urteko gazte segaila harro eta pozik doa, garaipena seguru dutela badaki. Don Serapio herriko apaizak esaten zien gorriak deabruak bidaliak zirela, eta bekatua eta desgrazia besterik ez zekartela. Eta nola behin ikusi zituen eliza bat erretzen eta konbentu bateko moja gaixoak egurtu eta bortxatzen. Eta Jainkoa alde zutela. Hau ez ahazteko «*detente bala, Dios está conmigo*» josia zeraman uniformean.

Muinoan gora zihoazen isilik, eguzkia punturik gorenean, kilkerak entzuten zituzten belar artean beren pausoekin eta norberaren bihotz-kolpeekin nahastuta. Zelaietan belar horildua, lehortua dagoeneko metak osatzeko zain. Zuhaitzetan hostoak ez ziren mugitzen. Haizearentzat ere pisuegia zen bero sargori hura. Etzan, eta beste aldean zer ikusiko jarri ziren zelatan. Mauserrak prest, kargaturik, metala bero aurpegiaren kontra. «Maria gorria», esan du ahapeka Manuelek. Bukatzerako bi tiro hots entzun dira. Ondoren, isiltasuna. Ahozpeztu gelditu dira ama-semeak.

## ENE OROITZAPEN MINENA

Ilea solte agertzen zait bera, ene oroitzapen minenean, zitara azaldu zen bezalaxe, egunero, eskolarako egiten zuen txirikorda lodia kenduta. Bakerodun printzesa hark baleki zenbat eskola ordu aspertuk amestu zuten ile haren askatasuna! Agur keinua egiteko besoa jaso zuenean, ikus ahal nuen non amaitzen zitzaien: ukalondoaren azpitik, ipurdi aldera eskaieran ahitzen zitzaien mataza jolastia. Ni, anaiari kendutako alkandoraz, handiegia aukeran, urdina, gustukoen nituen panazko galtzekin ados, beroegiak ziur udako gau sargori hartarako. Ez dut ahantziko bere gaztetasun samur hura, hortz zuri, masailetan loratutako azal gordin, seguru usteko kaixo lotsati hura. Garden gogoratzen ditut ene lehendabiziko zita haren bizipenak, ene oroitzapen nahienak eta minenak kristalezko ur araztetan dabilta, noiz aterako zain. Ene ahotsaren dardara, hartu nuen garagardoaren zapore mingotsa, ordaintzeko izan nuen era baldarra, herriko festak furi-furian, barraketarako egin nion gonbite zorigaiztokoa. Ene oroitzapenetarik minenaren putzuan daude.

Tabernetako burrunbatik atrakzioetarako burrunbara, elkarriketa goxoa. Karamelatutako sagarra, helduegia, ezpainak gorri desiragarriagoak. Hortz tarteko azaltzua kentzeko pasa zituen lotsak. Sorginak Edurne-Zurirentzako jarri zuen sagar pozoindua. Autotxoketako barre hasieran behartuak, tiro-pitxonean aukeratu zuen pelutxe kurtsia, eskuetara jositako bihotza zuena. Halaxe helduko niok neuk ere, askaezinezko besarkadan. Oroitzapenok igeri dabilta, eskura, atzo betetakoa dirudien ene uharkan.

Gorantz begiratu eta zalantzak uxatzea lortu zuen, noriarako eskaintza egin nionean. Ez omen zen tramankulu haien zale. Nork uste, gupil hark ene oroitzapenetarik nahiena garraztuko zuela. Eskua luzatu nion kabina kulunkaritik, igotzeko laguntza beharrik ez zuela ondo banekien ere, eta hala hartu zidan berak eskua estu, bakarrik igo zitekeela ondo jakinda ere. Barregami sentitu ginen apur batean, bata bestearen aurrean umeentzako kolupio itxura zuen kabina hartan kulunkan. Ijitoak katea jartzeko esan zigun eta oraindik eta haurrago sentitu ginen heldu bezala lehendabizikoz irten ginen gau hartan. «Noria Sanz, la más rápida». Bonbilla gorri eta horiek noriaren zirkunferentzia marrazten zuten gauean. Pixkanaka gorantz egin genuen geldiuneak eginez, jendea sartzeko. Goian ikusmira ederra, frontoia, autotxoak, jendea barra-barra, eta haietaz hasi ginen marmarrean, seguru aldamenean genuen gau epel hartako zeru izartsuari jaramonikegin gabe. Zeru hura ez dabil ene uhakan, hondoratu egingo zen agian.

Geometriazko kaiola zen hura, burdinazko barrek inguratua,

harrapatu nahi gintuzten arren, saiakera hutsean gelditzen ziren zutoin zuriak. Han goian aske sentitu nintzen ordea, ezjakin, ene oroitzapen nahienaren bukaeran nengoela susmatu gabe. Noria biraka hasi zen, makal lehendabizi. Beherakoan, kateari helduta, hatz koskorak zuri zituen. Atzerantz zihoan bera, eta noria bizkortu zenean oihera egin zuen, haizeak aurpegira ekartzen zizkion ileak kentzen ausartu gabe. Eskua luzatu nion orduan, jentil, eta azkar eutsi zidan barre urduri zoragarri harekin. Beste eskuaz ileari eutsi zion, keinua zertxobait lasaituz. Bat-batean noria gelditu zen, ustekabean, bi eskuak eman eta gure belarnek bat egin zuten. Orduan jakin nuen, ez ginela noria hartatik jaitziko musu eman gabe, gure aho birjinak urratu gabe, zein oker nengoen inuzente, jakin gabe.

Aurrerantz hasi zen orduan gurpila, atzerantz enetzat, eta bizkarreko haize hark beragana bultzatzen ninduen, bira bakoitzean gertuago. Nola jakin orduan, bira haietako bakoitza ozpin tanta bat bezala zela, ene ur ontzian, ene oroitzapen nahiena oroitzapen mingots bihurtuko zuena, ene oroitzapenik minena.

Hasierako emozioa gaindituta eskuak askatu eta gorantz jarri genituen, kilika gehiago nabari nahian. Pelutxe urdina belarunen artean jarri zuen, ilea aske, etorri zenean bezain aske. Suzko zuta-

bea zirudien haizeak eraginda. Beherakoan guztiz tente jartzen zitzaien. Gibeleda haizearen zelatan ni, ene koldarkeriari noiz azkeneko bultzakoa emango. Bere hortzei, ahoari, ezpainei so nengoen ni, bere ilea gora eta behera jolasean zebilen bitartean. Orain, garden dakusadan gertaerak ez nituen orduan irakurtzen asmatu. Bere ezpaineiso nengoen ni.

Supituki, eskuak katean jarri zituen berriro, keinua serio. Beragana hurbildu eta sorbaldeetatik heldu nion, unea zelakoan. Burdinazko barren tartean ausartegi jolasean zebiltzan ileei eutsi nahi izan zien baina berandu izan zen. Tente jarri zen.

Ene oroitzapen minena noria hark marraztu zuen, bere argiek airean zirkuluak marrazten zituzten bezala, musurantz hurbiltzen gintuen une hura ezabatuz. Askotan oroitzen naiz beretaz, nitaz, eta izango zitekeenaz, tramankulu hura tartean izan ez balitz. Noria gelditu zuten berehala. Dena gorri ikusten nuen nik, sorgin gaiztoak pozoindutako sagar zatiak alde guztietan zabaldu ziren, bere ile, pelutxe eta magalean, enean ere. Ez zion kanpora oka egiteko denborarik eman. Itxura garden baina zapore mina du ene lehen-go musuaren oroitzapenaren urak.



Irudia: Cristina Fernández



# EUSKAL HERRIKO kultur gehigarria



larunbatero **gararekin**

## BUENOS AIRES

A tsegin nuen bidaia-liburuetako pasarteak zuretzat irakurtzea, hori eta beste gauza batzuk. Orduan banekien gogoko nuela, liburuen, eta orain ere akordatzeko gure protokolo xume hartaz. Batzuetan, zulo bat sumatzen dut, hemen, sabelaldean, baina ez dut uste bakardadea denik, ez behintzat bakarrik egotearen bakardadea; horrelakoa uxatzen trebea bainaiz, nahi dudana guztietan hankaperatzen dut eta leihotik behera botatzen, oroitzapenek eta bidaia-liburuetan irakurritakoak lagun egin diezadaten. Horrela izaten da beti, beste bakardade bat etorri eta espazio honetara itzularazten nauen arte, bakarrik eta batez batera kondentatuz ahots-kordak eta aho-barrunbe guztia. Ezpainak behintzat nireak ditut oraindik, «egunen batean ezpainik gabe utziko zaitut, eta orduan, hortzik gabeko ahoa duzula pentsatuko du jendeak, aitona xahar batek bezalaxe», esaten zenidan aho ertzean muxu eman eta ezpainak xurgatzen zenizkidalako keinua egiten zenuen bakoitzean.

Zuri amodioa egitea ere atsegin nuen, bidaia-liburuetako pasarteak zuretzat irakurtzea adina, kasik. Horrelaxe gogoratu nahiko zintuzket beti, adats bezatu gabea gerriraino, belaur parera iristen zitzaizun kamisoiak, oinutsik eta ipurmasail ederrak niri begira... hatz-puntekin ferekatzen nituen, kuleroak jantzita zenezkanentz asmatu nahian, goizero, erantzi ote zenituen jakin nahian, maita zintzakedala ziurtatuko zidan seinalearen bila, eskuak kamisoiaren azpitik labaindu baino lehen.

Arropa zarpaildu hauekin ikusi baninduzu, han, Florida hotelean, ez zenukeen nirekin, nire bidaiekin amets egingo, eta ez zenituzkeen hirien izenak erakusten zituzten pegatina haiek maleta handian itsatsiko, gero, geltokiko aulki hartan, nire ondoan esertzeko, maletarekin. Paris, Belgrad, Viena, Erroma, Buenos Aires... maleta zein koloretakoa zen antzematea zaila zen benetan horrenbeste hiriren artean; baina horregatik izan ez balitz, ziur nago ohartu ere ez nintzatekeela egingo nire alboan eserita zeundenik, ez nizukeen hitzik egingo, zuk ere bazenekien. Gehienbat letra gorri handiz idatzi-

rik zegoen Buenos Aires hark eraman ninduen lehenengoz zurekin hitz egitera, sekula ez bainuen bertan izandako inor ezagutu.

Hirien maletarengatik izan ez balitz, lehen ere esan dizut, ohartu ere ez nintzatekeen egingo nire alboan eserita zeundenik, hotelean lan egiten zenuela ohartu ez nintzen bezalaxe. Bazenekien Buenos Airesengatik egingo nuela, nire hiri kuttuna zelako, eta zuk bazenekien, udako arrats luzeetan entzun baitzenidan hotelean, turistekin hizketan, bidaia-liburuek ziotena baieztatu nahian, beti. Buenos Airesi buruz nahiago zenuela ez hitz egin esan zenidan orduan, hantxe, nire ondoan eserita, maletarekin, oroitzapen txarrak zenituela han

igarotako egunez, baina nahi izanez gero, hitz egingo zenidala Paris, Berlin, Bratislava, Bangkok, Budapest, Helsinki, Havana, Younde edo Manilari buruz, eta agian, bihar edo etzi Buenos Aireseko kontuak esango zenizkidala nire etxean ostatu ematen banizun.

Oraindik ez dakit zergatik utzi nizun hemen geratzen, nire ondoan, berehala antzeman bainizun ez zenuela Buenos Airesen berri. Agian gosaltzeko egiten zenituen opilengatik, izango zen, edo etxean lo egin zenuen lehenengo gauean bertan nire ohean sartu zinelako. Agian, amets egiteko behar ninduzulako, zuk ez baitzenekien letra bat hurrengoarekin lotzen, edo besterik gabe, nire beharra zuen norbait behar

nuelako.

Liburu urdina inoiz ez zen apaletik mugitu, sekula ez zenidan eskatu irakurtzeko, gainontzeko liburuen artean ateratzeko zulo nabarmenegia uzten zuelako akaso Buenos Airesen.

Horrenbeste denbora eta gero zure ahotsa berriro entzuteak ez nau epel edo axolagabe utzi. Gogoratzen nola behin noria handi hartan ibili ginen, eta nola hura mugitzen hasi eta berehala traste hura geratzeko oihukatzen hasi zinen ezin zenuelako goitik beherako hura jasan... bada, horrelaxe sentitu naiz zure ahotsa entzun dudanean, bertigoa sentitu dut. Azkenean berriak Buenos Airesetik, eta Buenos Aireseko berri zure ahotik. Plaza de Mayo, La Boca, San Telmo, Recoleta, Palermo, Ti-







Irudia: Cristina Fernández

<<Atsegin nuen bidaia-liburutako pasarteak zuretzat irakurtzea, hori eta beste gauza batzuk>>

gre, San Isidro... zure deskribapenak bat datoz nire buru barruko koadroekin, eta horien koloreekin.

Grazia egin dit zure hitzak doinu berezi horrekin apainduta entzuteak... gero ohartu naiz, denbora asko dela hara joan zinela, sei urte ia. Hasieran eskutitza idatzi badizut ere, nire hitzak zinta batean grabatzea pentsatu dut gero, zuk egin duzun bezalaxe; zera pentsatu dut, eskutitza bidaliz gero argentinarrari emango diozula irakur diezazun, eta ez dut nahi zuk hori egiterik, zuri hitz egin nahi dizut.

Zure ahotsaren azpitik tango doinuak entzuten dira. Zure gorpuzkerari ongi doakio tangoa, eta baita zure ile luze beltzarenari ere. Argentinarraren arnasa zure lepoan pausatuz dantzan irudikatu zaitut, zure gerria bere besoen preso. Inoiz ez diot galdetu Matilderi zer izen zuen Argentinarrak, eta berak ere ez dit esan. 47. gelan egon zela baino ez dakit, eta hotelean pasa zuen lehe-

nengo gauean bertan galdetu ziola Matilderi nor zinen.

Etorri zinen bezala alde egin zenuen, bat-batean eta maleta handiarekin; hurrengo goizean iruditu zitzaidan inoiz ez zinela bertan izan, eta nire oheak inoiz ez zuela emakumerik ezagutu. Hirien maleta nire etxeko atetiko sartu aurreko egunerokotasunera bueltatu nintzen, inolako zailtasunik gabe, beti horrela izango zelakoan. Baina hamalagarren egunean ezin izan nuen ohetik jaiki, nahiz eta osasuntsu egon. Eta harrez geroztik horrelako egunak izan ditut aldian-aldian. Sekula ez dut inor maitatu, eta ez dut uste zu salbuespena izan zinenik. Baina ez nago ziur. Oheak preso hartzen zaituen egunetan ari mak laguntza ukatzen dio gorputzari. Agian, maite izan zintudala ohartarazteko modua izango da.

*Garbiñe Etxaniz Aiastui*




## ERABAKIA

**J**onen begiak ez dira hain txikiak. Itxura erromantikoa ematen dioten betaurrekoak gau-mahaietan utzi ditu eta instant batean nabaritu dut berezkoa duen begirada beltz sarkor hori nire gorputzeko zuntz finenak zeharkatzen; bat-batean, lotsa galduta bezala, ibilaldi geldoa une batez eten dute, begi-ninien iluntasunean desio eta grinek itoal-ditik askatu nahi dutela nabaritu dut; arnasaren hats beroa, nire lepo txokoan sentitu dut; begiak itxita ez dut errealaren ezer ikusten eta arrazoia erne egotetik ia lokartzera pasa da; bere besoek aurrea, eskuak gidari, nire gorputza inguratzen eta dastatzen hasi dira eta berehala ekin diogu dantzari: gozoa, geldoa, baina, etenik gabekoa. Galtzeko arriskurik gabe, galbidera eramane gaitzaketen bideak eta bidezi dorrak egin ditugu elkarrekin.

Iratzargailuaren eguneroko tik-tak erritmikoak bazterrean ahaztuz, motza egin zaigu gau luzea.

Eguzkia, ordea, goizero lez, itzartzen hasi da ilargiari agur eztea eginez. Goizaren ernatzea igarri nahi diguten



Irudia: Cristina Fernández

lehen argi izpiek Jonen profila nabarmentzen dute: ondo marraztutako ezpainak, euskaldun itxurakoa ez den sudurra... irekiak ditu Jonek begiak eta hatzekin nire ilea askatu nahian zerbait esan nahi didala dirudi.

- Laztana, lo zaude?

- Xiiiiiiiiiiii..., ahaztu orduaz Jon, ia loak hartzen gaituen.

- Baina, Ines...

- Hummm...

- Zerbait esan behar dizut Ines.

- Gero Jon, gero, edo... bihar... berdin da.

## II

Bi urte pasa dira Jon banandu zenez geroztik eta jada urtebete darama Inesekin, nahiz nor bere etxean bizi den. Ikastaro batean ezagutu zuten elkar eta aurreneko erlazioaz geroztik Jonek bikote-harremanei uko egitea erabaki bazuen ere, gustura dago Inesekin. Harreman itogarriengatik ihesi zihozela egin zuten topo, eta, elkarrekin hasi zirenean argi hitz egin zuten bion arteko harremanari buruz: askea, bakoitzaren espazioak errespetatuko zituena, baina, leialtasunean eta egian oinarritua izan behar zuen.

Asmoak eta errealitatea, ordea, ez dira beti bat etortzen eta garaian garaiko gorabeherei aurre egiterakoan, ustekabeen eraman gaitzakete gain-beherara.

Astebururo egin ohi duten moduan, elkarrekin bazkaldu dute eta kafea hartzeko asmotan egongelako besaulki zabalera hurbildu dira.

## III

- Zer dabilkizu buruan, Jon? Zerk kezkatzen zaitu? Begirada hori ezagutzen dut...

- Ezer ez. Ez dakit... beharbada bart ez dut lo gehiegirik egin eta...

- Goizean zerbait esan nahi ze-



nidan edo amets bat izan da?

- Ez, ez duzu amestu. Bada aipatu nahi dizudan zerbait, Ines; edo... zerbait baino gehiago... Mirenek deitu zidan duela bi egun; hurrengo asteburuan Jakara omen doa bi lagunekin eta...

- Eta zuk joan ote nahi duzun galdetu dizu, ezta?

- Bai, baina egia esan ez dakit...

- Ez zaitetz niregatik kezka, Jon. Ondo egingo dizu mendiko haizeak eta bide batez, izango duzu astirik lehengo egunean azaldu nizunaz pentsatzeko. Ez zaitut estutu nahi, baina erabaki bat hartu behar dugu edo hartu beharko dut...

- Ines... mila buelta eman dizkiot dagoeneko buruari. Ez...

- Baina, zer diozu, Jon? Zer dela eta esaten duzu orain hori? Zer esan nahi duzu?

- Beharbada... nirea izan da errua. Ez nizun Miren eta bion banantzeaz azalpen argirik eman.

- Zer gehiago jakin behar nuen, Jon? Lehenengo harremanean zortea ez zenuen lagun izan; baina urteak ez dira alferrik pasatzen eta eskarmen-tuek ez dute inor bizitza berregiteko aukerarik gabe uzten.

- Ines..., hori da arazoa: ez dakit bizitza era berean berregin nahi du-dan. Ez dakit...

- Jon, maite nauzu?

- Bai eta badakizu, baina orain

haur bat Ines...

- Badakit haur bat izatea ez dela inoiz zure asmoen artean egon; ez zen nire lehentasunetako bat ere, baina orain, haurdun geratu eta gero, desberdin ikusten dut; agian aita zu zarelako, ez dakit...

- Ines, nire banantzearen arrazoa jakin behar duzu: Miren eta biok elkar maite genuen, hori uste nuen behintzat, baina gure arteko harremana niri itogarria egiten zitzaidan; behar bada, ez naiz emakume bakarrarekin bizitzeko jaio, ez dakit.

Nik ez nuen lotura gehiagorik nahi, ez nuen aita izan nahi. Gau batean Mirenek haurdun zegoela esan zidan; ez zen berri ona izan niretzat; erabaki hura gure harremana sendotzeko hartu zuela esan zidan Mirenek, baina niri erabaki berekoia iruditu zitzaidan eta desadostasunarekin batera, abortuaren aukera aipatu nion. Orduan hasi zen gure harremana hondoratzen. Hurrengo egunetik aurrera hitza ukatu zidan. Etxe berean bizitzen jarraitu genuen, baina elkarbizitzarik gabe. Haurdunaldiaren erdian Miren arazoekin hasi zen: sabeleko mina, isuriak... Goiz batean larrialdietara jo behar izan genuen. Mirenek lau hilabeteko haurra galdu eta, arazoak zirela medio, berriro haurdun geratzeko aukera galdu zuen. Erabat sendatu zenean, banantzea erabaki genuen.

- Uf!, ez dakit zer esan, Jon, ez dakit zer esan. Bat-batean harrapatuta nagoela iruditzen zait.

- Baina Ines... nik maite zaitut...

- Bai, nik zu ere bai Jon, baina haurdun nago eta... ez zaitut behartu nahi nire ondoan egotera; bestalde... ez dut haur hau galdu nahi. Egoerari aurre egiteko adina indar badut, eta egingo dut. Jon, orain zuri dagokizu erabakitzea; zurea da erabakia.

*Anttoni Lopetegui Senperena*



## POSTARIA

**B**ezperako patata hondarrak arrapaladan eta gogo gabe irentsi, eta atearen zerrailari hiru buelta emanda atera zen etxetik Graeme. Gosariaren erre gustua ahoan zuela, haize hotza sentitu zuen aurpegian. Gogaituta zegoen patata erreak gosaltzeaz.

Bete-betea zeraman larruzko fardela, posta ugari banatzeko. Ez zuen lana eguerdira arte bukatuko. Betiko legez, herriko banaketak egin zituen lehenengo, iparretik hasi eta hegora. Soro eta lur sailak gurutzatzen zituen bidea hartu zuen gero, herritik kanpo sakabanatuta zeuden ne-

an, eta ez zen erraza lur sail eskas hartatik guztiak elikatu eta Lord Erneri arrandak ordaintzeko adina ateratzea. Samuel jauna gizon serio eta isila zen, eta egunonak ematera mugatzen zen. Haren emazte Fionnak, aldiz, geratuzineko hitz jariora zeukan eta inguruko kontu guztien berri ematen zion. Aspaldian Ligaren inguruko kontuak esaten zizkion batez ere. Aitzinegunean Mclaughlan jaunak, Boykott jaunaren

Giro ezberdina nabari zuen aspaldian nekazarien artean. Enpleguak, nazkatuta, bere lana utzi zuela kontatu



Irudia: Cristina Fernández

<<Graemek Boykott jaunaren gutunak (mehatxuak, jakina) eramaten zizkien askotan nekazariei. Horixe zeukan postari izateak, askotan berri txarrak helarazi beharra>>

kazarien etxoletarako norabidean. Egunero eginagatik ere, atsegina zitzaion ibilbidea. Gogoko zituen bidearen aldamenetako harrizko hormatxoak; sugandila eta landare igokariaren gotorlekuak.

Bidean aurrera egin ahala, larruzko poltsaren pisua eskumako sorbaldan hondoratzen sumatzen zuen. Egunetik egunera pisutsuagoa zitzaion poltsa. Sarritan, lanaldiaren amaierarako gogortuta geratzen zitzaizkion besoak eta bizkarraidea.

Samueltarren etxea zen lehenengoa. Goiz joanda ere, lanean aurkitzen zituen beti. Langile finak ziren, izan ere, Samueltarrak. Gainera, bikiak jai zirenetik, sei ziren etxe-

zion. Ohiko kexu eta aieneekin jarraitu arren, erreboltaren arra hazten zihoan. Duela zortzi hilabete Liga sortu zenetik, elkartasun sareak indartu zituzten, eta egoera jasanezin harekin akabatzeko prest ageri ziren. Miserian bizi ziren oraindik, baina ez honezkero makurkerian. Ez zioten beldurrik Boykott jaunari, Lord Erneren administratzaile gupidagabeari, eta Ligak harekiko salerosketa eta harreman guztiak eteteko agindua eman zienean, salbuespen batzuk kenduta, hala egin zuten. Errentak ordaintzeari ere utzi zioten. Horrez gain, herriko langile eta artisauen laguntza ere bazuten. Holmes dendariak, esaterako, Boykott jaunaren produktuak saltzeari uko egin zion, eskain-

tzen zizkion lukurrero baldintzez eta haren handiustee-kin ernegatuta.

O'Connors errementariak ere ez zituen jada adminis- tradorearen zaldiak ferratzen; ziotenez, pikutara bidali zuen Pub-ean, guztien aurrean.

Graemek Boykott jaunaren gutunak (mehatxuak, jaki- na) eramaten zizkien askotan nekazarietara. Horixe zeukan postari izateak, askotan berri txarrak helarazi beharra. La- borari batzuek errezeloz begiratzen zuten, nahiz eta gehie- nek ulertzen zuten bera mezularia baino ez zela. Urteetan beldurrez itxaron zituzten nekazarietara Lord-aren ordezkaria- ren kartak. Orain, osterara, axolagabekeriak apurtu ohi zituz- ten, batzuetan begiratu ere egin gabe.

Konturatu orduko, Heller agurearenera iritsia zen. Han zegoen Max txakurra, beti bezala zaunka, alai eta buztana mugituz bere aldamenean brinkoka. Inork ere ez zion hain harrera onik egiten. Burua emeki laztandu zion. Go- gor jo zuen atea. Heller jauna gortuta zegoen eta ostikoz jo behar izaten zuen atea entzun zezan. Lehenengoan en- tzun oraingoan.

- Egun on Heller jauna, hemen bi gutun zuretzat.

- Eskerrik asko seme. Enteratu al haiz? Atzo admi- nistratzailearen oiloak akabatu zizkiz baten batek.

- Ez dut ezer entzun, baina Samuelarrean bakarrik egon naiz oraindik.

- Ondo merezia zeukak zerri halakoak. Makina bat estualdi pasarazi zizkiguk. Erre bedi infernuan nigatik.

Domeketako abadearen sermoiek ere ez zuten lortzen giroa baretzerik. Abadeak istiluak ekiditu nahian hainbat saiakera egin bazituen ere, guztiek zekiten Lord Erneren interesak nekazarien beharren gainetik jartzen zituela. Haserrea belar txarra bezala ernatu zen landa munduan; ez zegoen hura geldituko zuen abade edo apezpikurik. Mendekua gura zuten. Etxez etxe ekin zion bideari Grae- mek. Boykott jauna zuten guztiek hizpide.

Erreka ondoko bidea hartu zuen basoa gurutzatzeko. Isabellaren etxea zen basoaz bestaldeko lehenengoa. Pau- soa arindu zuen irrikaz. Urrunetik erreparatu zuen Isa- bella, errekan arropa garbitzen ari zela. Graziaz eskegi- tzen zituen ikuzitakoak ondoko zuhaitzean. Ze ibilera ler- dena! Haren ondora hurbiltzen zen heinean gorritzen zihoan, edo hala iruditu zitzaion. Burutik kendu ezinik zerabilen azkenaldian. Ikusten zuenean berarekin izanda- ko ametsak burura etorri, eta lotsatu egiten zen igarri egingo ziolakoan.

- Egun on, Graeme.

- Egun on, bai.

- Guretzako ezer baduzu oraingoan?

- Dredlee jaunarentzako eskutitz bat besterik ez.

- Aukeran, nahiago etxean utziko bazenu, kargatu samar nabil eta. Aita kanpoan da, baina Niamh etxe buel- tan dabil.

- Jakina, gero arte orduan.

Dredlee jauna, Isabellaren aita, Ligako ordezkarietako bat zen. Mayo konterriko herri bakoitzak ordezkari bat zeukan Ligan. Bera izan zen Boykott administratzailearen aurkako mugimenduaren aurkako sustatzaile nagusieta- koa herrian. Gizon arteza eta eskuzabala zen.

Haserre zegoen Graeme bere buruarekin. Erdi mutu ge- ratzen zen Isabella ikusten zuen bakoitzean, inozoa balitz bezala. Sikieran gaur ez zen astelehenean bezala totelka hasi.

Boykott jaunaren etxea zen hurrengoa. Gorroto zuen hara joatea. Izan ere, Lord Erneren ordezkariak ondo irabazia zeukan fama. Benetan zen higuinaria eta harroputza; jasa- nezina. Ia beti tokatzen zitzaion harenera bisita, ordea, bera baitzen posta gehien bidaltzen eta jasotzen zuena. Nekaza- rientzako gutunak (mehatxuak, jakina) ez zirenean, Lord Er- neri erregulariki bidaltzen zizkion informeak ziren, eta, bes- tela, Lordak berari bidaltzen zizkion agindu eta betebeha- rren zerrendak. Sekula ezagutu zuen gizonik zakarrena zen Charles Boykott. Nekazariengan zuen boterea plazent zi- tzaion eta krudelkeriaz erabiltzen zuen. Dena zen mehatxua, mespretxua eta hantustea. Barre egiten zien nekazarietara kon- tatzen zizkieten nekezia eta zoritxarrei. Bere zerbitzari eta langileak ere arrandiaz tratatzen zituen. Jendea umiliatuz gozatzen zuen. Ok eragiteko modukoa benetan!

Buelta eman eta posta entregatu gabe joatea otu zi- tzaion orduan. Baina Boykott jauna zerbitzari gabe eta indarge ikustearen ideia ere tentagarria zen. Zer egin pen- tsatzen zuen bitartean, bide ondoko masustak batzeari ekin zion. Konterri osoko masusta ederrenak ziren bide hartako sasitzetan hazten zirenak. Poltsikorik ez eta larruzko poltsan jarri zituen masustak. Konturatu zenera- ko, administratzailearen eskutitzak fruituen tinta urdinaz beteta zeuden. Hark seinale bat behar zuen izan! Buelta eman, eta herrirako bidea hartu zuen.

Bere buruaz harro sentitu zen. Mayon azken urteetan gertaturiko errebolta garrantzitsuenaren partaide. Baze- kien nagusia haserretuko zitzaiola, eta lana galtzearen au- kerak beldur piskat eragiten bazion ere, ezinezkoa zen ororen gogoko suertatzea, eta, aukeran, nahiago zuen Isa- bella eta Dredlee jaunaren gustuko izatea, nagusi erretri- na kontentu edukitzea baino.

Etxera iritsi zenean, plazerrez fardela lepotik kendu eta sutara bota zituen Boykott jaunaren eskutitzak. Patatak erreko zituen afaritarako. Atsegin zituen patata erreko.

## SERAPIO MIRANDA

**G**osaria prest zuen, kafe usaia etxeko horma guztietan irris-tatzen zen, eta bere sudurzu-loetara erori zen. Orduak baino, gogok baino, horrek jarri zuen Martin sukaldera bidean. Beti egin ohi zuen bezala, eguraldiaren berri izan nahi zuen eta horretarako ez zegoen leihoa zabaltzea baino gauza hoberik. Iluna zegoen dena, behe-laino sakona eta hotza, oso hotza zegoen kalean. Ne-

baitzuen lantegia, mekanikaria zen Martin eta ez zuen lanera berandu iristea atsegin, nahiz eta inork ez zion horregatik kargurik eskatuko.

Autoan sartzearekin batera, euri tanta bat sumatu zuen kristalean jolasten. Laster, bi, hiru... euri motel bat hasi zen bere autoan erortzen, irratia piztu zuen, ez baitzuen atsegin goizeko isiltasunean euri tantak entzutea.

Zortzi aldiz kanpai hotsa entzutera-

eta egunero ordu bertsuan iristen zen atarira. Hala ere, beti erlojuarekin lehian ibili ohi zen, ez berandu ibiltzen zelako, lanean ez aspertzeko joko baten moduko bat zen beretzat, batzuetan muturreraino eramaten zuena. Agian horregatik, «bestelakoa» esaten zuen ezagutzen ez zuen jendeak hartaz hitz egin behar zuenean, izan ere, joko bitxi horretan errekor berri bat ipintzera zihoanean, edonork solasal-



Irudia: Cristina Fernández

Orduari begira zegoela, ordulariak keinu egin zion Lukasi, 6', <<gaizki habil! Zortzi minutuko aldea atera zidak gaur denborak! Ez seikoa!>>

guan aspaldi sartuta izanagatik, artean ez zen moldatzen egoera horretara, eta kafearen berotasuna zen, hotza kentzen ziona, kafeak esnatzen zuen eta jaiki ere kafeak jaikitzen zuen.

Irratiak eman zion abixua, «goizeko zazpi eta erdiak dira...». Mugitu beharra zuen, etxetik hamar kilometrora

ko Maria Luisak utzitako Seat zaharra aztertzen ari zen, olioak ihes egiten omen zion. Erraz konponduko zuen Martinek hori eta Maria Luisa arratsaldean pasako zen Seat zaharraren barruan etxera itzultzeko asmoz.

Lukas herriko postarietako bat zen, Martin bizi zen etxeko kalea zegoekin

ditxo bat hasten bazuen, Lukasek «berandu nabil» edo «barkatu baina urgente asko ditut gaur banatzeko» bezalakoekin mozten zuen. Batzuetan errepidea zeharkatzen zuen, solasal-diak ez harrapatzeko. Bestelakoa zen Lukas, bestelakoa joko hura ezagutzen ez zutenentzat. Martinentzat ere,



bestelakoa zen Lukas.

Gaur jokoa galtzeko bidean zen, goizeko hamarrak eta bost minutu adierazten zuen Martinen etxe alboko Farmaziako ordulariak. Orduari begira zegoela, ordulariak keinu egin zion Lukasi, 6', «gaizki habil! Zortzi minutuko aldea atera zidak gaur denborak! Ez seikoa!».

Bitartean, Arezagatik 450 kilometro-ra, Monpar udalerriko Serapio Miranda kalean, Susana. Urduri zegoen, telefonoak ez baitzion atzoko egun guztian berak nahi zuen deia eman, eta gaur ere ez zirudien hainbeste espero zuen dei hori emateko seinalerik egingo zuenik, dagoeneko 3 tila edan zituen bete-beteak irratiak «*Son las doce del mediodía*» gogorarazi zionean. Telebista ere orruka ari zitzaion «*El encuentro fue feliz...*» goizeroko saio aspergarri horietako bat zuen jarria, normalen arretaz entzuten zuena, etxea goitik behera garbitzen zuen bitartean. Zarata gogorra ateratzen zuen bizilagunaren aspiragailuak, tresna guztiak hari ziren hizketan, baina telefonoa ez, telefonoa isilik zegoen.

Martin etxera zetorren jadanik, Seat Zaharra ia konpondu zuen, jadanik ez zen olio arrastorik ageri, atzean uzten zuen bidean, baina, artean, lau tontakeria falta ziren.

Etxera bidean pasonibelaren aurrean geratu zen, hau zen Martinek denborarekin zuen jokoa, «*nor iritsiko da lehenago ni edo Irun-A Coruña expresoa*». Gaur trenea izan zen lehena, eta horregatik, bakarrik, bazekien ordu bata eta laurdenak paseak zirela.

Lukas jadanik bazkaltzen ari zen etxean, Maria Luisa emazteak babarrunak jarri zituen eta, Maria Luisak berak mahaia jartzerako, berak egina zuen lan hori, babarrunak ongi etortzen baitira egun hotz eta euritsuetan.

Susana etsita zegoen, beste egun bat, telefonoak oraindik ez zuen hitz egin nahi, urduri zegoen eta telefonoa

berarekin eraman nahi izango zuen gaur, sakelekoa ez zitzaion horrenbesterako tontakeria iruditzen gaur. Etxeko ordulari berriak bi kolpe emateko ez zen asko falta eta Manolirena joan beharra zuen, janaria prestatzeko. Manoli bere alaba zen, Bijol herrian bizi zen Monparretik bi kilometrora. Bidea oinez egin ohi zuen, gaur bezalako egun eguzkitsuetan, baina gaur autoz joango zen, ahalik eta denbora gehien telefonoaren ondoan egoteko.

Telebistako albisteek ordu biak paseak zirela erakusten zutenean ireki zuen Martinek Lukasek zintzo (baina berandu) bota zuen karta marroiska. Denbora geratu zen. Bi aldiz irakurri bazuen ere, ez zuen ezer ulertzen, odola gorputzean haruntz-honuntz zuen, ez zion pentsatzen uzten, dardarka zegoen azkenean sukaldera zuzendu zenean.

Susana bere alabaren etxean zegoen jadanik, eta etxean telefonoak jo zion, hitz egin nahi zion, baina Susana ez zegoen etxean. Entsalada bat prestatzen ari zitzaion Manoliri, bazekien ez zitzaizola gustatuko, lanetik etorri eta hori jan beharra, baina Susanak ez zuen lanerako gogorik.

Lukasek plazako kanpaiek bostak zirela entzutearekin batera utzi zuen karroa postetxean. Azkenean, ohi baino 10 minutu beranduago bukatu zuen, arratsaldean bizkorrago ibili zen, euria joan egin baitzen eta eguzki izpi batzuei sartzen utzi baitzien.

Etxean Maria Luisa ez zegoen umorez, Seat zaharrak garajejan lo egin beharko zuen berriro, «*Martin madarikatua, bihar goizeko zortzietan autoa behar nuen! Eta ez dit bukatu, tontakeria bat da, arratsalderako hemen izango duzu, kaka zaharra!!*».

Martin motel ibili zen arratsalde guztian, trakets, burua ez zuen aurrean ziztuen gurpil, motor, edo galgetako likidoetan, burua karta marroiska batean zuen eta oso urduri zegoen, «*zergatik ez*

*ote dit telefonoa hartu? Damutu egingo al zen?».*

Susana etxera zihoan; urduri, dardarka, telefonoan pentsatzen, telefono hotsarekin obsesionaturik. Etxera iriterako trenak klaxona jo zuen hiru bider, indartsu. Susanak susto latza hartu zuen, telefono zarataren barruan murgilduta baitzegoen. Irun-A Coruña expresoa zen, Susana begira geratu zitzaion, nola ume batek begiratzen dion pailazo saio bati telebistaren aurrean.

Lukas buruko mina izaten hasia zen, izan ere, Maria Luisa ez zen isiltzen, oihuka hasten zen Seat zaharra etxe aurrean ez zegoela gogoratzen zuen bakoitzean. «*Eskutitz bat iritsi zaiola, arreba bat daukala, eta kaka, niri bost!! Ez zenion ba zuk emango eskutitz madarikatua ez, Lukas!!*».

Susana etxera iritsi zenean argi gorri bat ikusi zuen telefonoan. Ia-ia, bihota gelditu zitzaion. Martin Arezagako Errandone kaleko 2. portaleko, 3. pisuko, B ateko salan zegoen, eskutitza irakurritz, eta bertan zegoen telefono zorbakiari so. Kartazala mahai gainean zen, Monpas, Serapio Miranda 8 erremitean, Arezaga Errandone 2 aurrekaldean.

Sakelekoa hartu zuen berriro Martinek, hatza zorbakietan zuen, baina ez zen ausartzen. «*Zer esango diot? Kaixo, Susana? Kaixo, arreba? Edo, Martin naiz, zure anaia?»*. Nahastuta zegoen bat-batean, arreba bat jaio zitzaion, 48 urtekoa.

Afaria prest zegoen, oilaskoaren usaia etxeko horma guztietan irristatzen zen, eta bere sudurzuloetara erori zen. Baina horrek ere ez zuen altxatzen. Sakelekoari begira zegoen, iluna zegoen dena eta kalean hotza zegoen, oso hotza, eta berriro euria hasi zen, irratiak «*Iluntzeko bederatziak dira*» esatearekin batera.

Susanaren etxean telefonoak jo zuen.

*Iker Zaldúa Zabaluá*

## KIMIKAKO IRAKASLEA

**B**ere eskela ikusi dut gaur. Hamabost urte dira bere berririk ez nuela. Institutuko laugarren mailan Kimikako eskolak eman zizkigun aste batean. Ikasle gutxi ginen gure gelan. Astelehen, asteazken eta ostiraletako lehenengo orduan izaten genuen Kimika. Haurdunaldi baten ordezkapena egitera etorri zitzaigun. Lehenengo eguneko lehenengo minututik lortu zuen gure arreta bereganatzea.

«Nor gara gu?» galdetu zuen, gelan sartu eta bere burua aurkeztu ere egin gabe. Denok isilik geratu ginen. «Gu ez al gara Geu?» esan zuen azkeneko GeU hori arbelean idazteaz batera. Gure harridura ahoei arretarik jarri gabe hizketan jarraitu zuen eta «Geu ez al gara ba Neu eta Heu eta Heu eta Heu batuketa» esan zuen atzamarraz tiro bana ematen zigula. Jarraian formula idatzi zuen arbelean:  $GeU=NeU+HeU$ . «Eta zuek zenbat zarete?». Lehenengo lerroan esertzen zen Oihanez atzera begiratu bat eman eta «hamaika» erantzun zion. Hori entzunda formula osatu zuen:  $GeU=NeU+11HeU$ . Ez zigun bestelako azalpenik eman. «Eskola amaitu da» esan eta alde egin zuen. Hamar minutuko eskola izan zen. Horrelako aukera baten aurrean gela berehala utziko genukeen normalean, baina, guztiok formulari begira geratu ginen. Oihane bere koadernoan zer bait idazten ari zen. Ez zuen denbora luze egirik behar izan arbeleko formula ulertu eta gainerakooi azaltzeko. Izenordainen lekuan sinbolo kimikoen zenbaki atomikoak jarritz gero batuketa bete egiten zen.

Asteazkenerako irakasle haren izena Antton Zabaleta zela jakin genuen, baina besterik ez. Bigarren egunak ere lehenengoaren bidea hartuko zuela zirudien. Ezer esan gabe HIEK idatzi zuen arbelean. «Zer da hau?» bota zuen airera. Sekula ez zigun galderarik banaka egin, beti talde osoari zuzendu zitzaion. Eta horrelako kasu gehienetan gertatzen zen bezala, Oihanez erantzun zuen. «Hidrogenoa, Iodoa eta K potasioa, baina E ez da sinbolo kimikoa». «Eta hiek zer uste dinae?» galdetu zigun gainerakooi hain modu bitxian. «Ados haudete hien lagunarekin?». Guztiok, Oihane barne, mutu geratu ginen, baina ez zirudien gure erantzunik espero zuenik. Hizketan jarraitu zuen. «Hiek badakinae zertarako ikasten dunaen kimika? Badakinae kimikak zenbateraino eragin dezakeen hien bizitzetan? Badakinae kimikarik gabe ez haizetela ezer?». Galderetan bertan ustezko erantzunak zekartzaten itaunak egin eta egin igaro zuen ordu osoa, bat-batean eta lehor «eskola amaitu da» bota zuen arte.

Bukaeran lehenengo egunean baino harrituago utzi gintuela uste dut. Alde egin zuenean Oihaneri begiratu genion

guztiok. Azalpen baten beharra geneukan. «Hieka aritu zaitgu. Bigarren pertsona plural berria asmatu du eta, ez hori bakarrik, bere adizki guztiak ere bai. Noka egitearena gehien-goia neska garelako izango dela pentsatzen dut». Oihaneren hitzak ere ez ziren argiegiak. Gure ezin ulertua igarrita, arbelera atera eta adibide batzuen bidez azaldu zigun.

Ostiraletako eskolak gainerako egunetakoak baino urriagoak izaten ziren. Beti baziren azaltzen ez ziren hiru edo lau, baina ostiral hartan aulki guztiek zuten beren ipurdia. Erabat zelebretuta etorri zen. Atorra orbanetz beteta zeukan eta galtzetatik aterata zekarren gerriaren ezker aldean. Atetik arbelerainoko bidean hanke hiru S gutxienez marraztu zituzten lurtean. Klariona hartu eta arbelean PNV=EA-HB idatzi zuen. «Gas noblei gertatzen zaiena gertatzen zaio alderdi bizkaitarrari» hasi zen hizketan. Mozkor ikaragarria zuela nabarmena bazen ere, ahotsak ez zirudien mozkorrarena. Hala ere, keinuek eta itxurak erabat salatzen zuten. «Noblezia kenduz gero, gasa soilik gertatzen da. Eta zer da ba gure alderdi jeltzalea, gasa ez bada?». Politikaz jardutea nobedadea zen guretzat. Urte hartan edo aurrekoan izango genituen politikari buruzko lehenengo eztabaidak, baina hain gordin hitz egitea berria zen. Are berriagoa, horrelakoak irakasle bati entzutea. «Euskal Herriaren puzkarra. Horixe dira. Beraiek dauden tokian kaka hurbil ibiltzen da. PNVk beti dakar gorotza atzetik». Oihu ozeneziak ari zen egiten.

Ordukoa ere eskola laburra izan zen. Bi irakasle sartu ziren gelan eta beso banatetik hartuta eraman zuten. Ez zuen kontrako indarririk egin. Irteten ari zirela «hurrengo ordura arte, alde egin dezakezue» esan zigun bietako bategi. Ez genuen gehiago ikusi. Hurrengo asteetan gure artean bizirik iraun zuen gertakari hark. Oraindik ere, garai hartako ikasleekin elkartzeko naizen bakoitzean gaitako bat izaten dugu bera.

Eskela ikusi dudanean bigarren eskola hartako galderak etorri zaizkit burura. Bizitza eta kimikari buruzko galdera pila bat egin zizkigun. Ezagun zen kimikari garrantzi handia ematen ziola eta gai asko lotzen zituela kimikarekin, politikarekin barne. Eskelan argazkia, bere izena eta esaldi bat baino ez daude. Ez dakar ez familiakoen izenik, ez hileta elizkizunari buruzko informaziorik, ez eta heriotzaren zergatirik ere. Bitxia iruditu zait baina bere neurri egin-dakoa: *Antton Zabaleta, 2004ko irailaren 21ean eraman zuen Heliok.*

*Asier Iriondo Eguren*

# HITZEZKO SEKRETUAK

**E**ta eskutitzak horrela kontatuko zion ahizpari:

«Kaixo!: hementxe naukazu, ohi denez, zure mahaian ezarririk hitz batzuk idazteko prest. Hitzak: gaurkoan, besteetan bezain alaiak izango ez diren hitzak. Urrun zaituzte. Baina zu sentitu beharrak bultzatzen nau idaztera.

«27 urte dira jadanik egunerokoaren errepideak teilatu beraren azpian bizitzera eramán gintuenetik. Zuk 13 hilabeteko abantaila daukazu hala ere. Eta hori beti nabaritu izan da elkarrekin egiten genuen gauza orotan. Eskolarik gabeko egunetan, goizean goizik, margoen kutxa hartu eta sukaldera joaten ginen, han, mahaian margotzen aritzera gurasoak esnatu bitartean: zuk izan behar zenuen kolorea aukeratzen lehena, eta noski, beti gorria aukeratzen zenuen. Panpinetan, gutxitan aritu izan bagara ere, zuk Barriguita-k nahiago zenituen, eta nik, berriz, Darling-a. Oraindik ere gogoan dut nola “aioiok”, eskolatik jasotzen gintuenean, zu zinen, askariko ogitartekoak zirela medio, zirkuko zuzendariaren papera hartzen zenuena eta ni, berriz, pailazo negartiarena. Arras ezberdinak izan baikara beti».

«Sustraiak ongi finkaturik dituen enbor bereko bereko gara gu biak: lurra elikatu gaitu, erreka beretik edan dugu, hostoek jantzi gaituzte, eguzkiak berotu gaitu eta egun gogorretako haize eta euri bortitzek espazio zabalera nola kimatu irakatsi digute. Baina enbor bereko adar bi besterik ez gara, bata bestearengandik urrutiegi elkar ukitzeko, elkarrengandik gertu egoteko. Zain berekoak gara, odol berekoak. Eta honek nahikoa beharko luke gure artean konplizitate txikiak egoteko, guk soilik ezagutuko ditugunak, guk ulertuko ditugunak, sekula hitz egin-goz ez ditugunak, besterik gabe hor egongo direnak, gure odolean, gure zainetan. Baina ez ditut inondik topatzen».

«Hainbeste urtetan izan bezala, orain ere zure adarrek ez naute ukitzen, gure enborretik urrundu baitzaituzte. Sumatzen zaitut, alabaina. Urrutiko eguzkiak zure itzala dakar egunsentian eta haizeak zure presentziaren usaina. Odola borborka dut zure premia nabariturik; zainak lehertzeaz ditut beharrak tenkaturik; eta gauza bat eskatzen didate, bat bakarria erregutzen: elkarrekin bizi izandako momentuak berreskuratzea».



Irudia: Cristina Fernández

<<Sustraiak ongi finkaturik dituen enbor bereko adarrak gara gu biak>>

«Ezin dut bakarrik egin, ordea, ezin ditut bakarrik berreskuratu. Ez ditut pasarteko horiek aurkitzen asko bilatuagatik ere. Desagertuak direla dirudi».

«Begiak ixten ditut, eta belzturaren artean atzera jotzen dut denboran. Atzera eta atzera. Hor ikusten zaitut, buru barruko bilduma bateko argazkia izango balitz bezala, hor ikusten zaitut, eta hor ikusten dut neure burua ere. Arraroa da: hemen nago eta hor gaude, goitik behera jantzirik. Lepotik amak egindako bufanda, hiru buelta eman ondoren, zintzilik daukagu eta esku-larruek eskuak ezkutatu egiten dizkigute. Momentu goxoak gogoratuz sortzen zaidan irribarretxoak sentitu dut oraingoan ere nire ezpainetan agertzen. Gure berokien urdina hondo elurtuaren gainetik nabarmen geratzen da. Hotz egiten du. Ez dirudi horrek axola digunik. Irudia argi ikusten dut, bai, baina, ez dakit non gauden, zergatik gauden hor; ez eta zer egiten ari garen ere».

«Agian, zu eta biok agertzen gareneko argazkiaren leihoa gehiago zabaldu beharko nuke, handitu, edota txikitu eskuetan zer daukagun ikusi ahal izateko. Horretarako, orduan, betaurreko bereziak beharko nituzke: betaurreko magikoak, irudien tamainak aldatzeko, gerturatzeko eta urruntzeko, eta posible balitz, baita koloreak ere aldatzeko balio duten anteoju magiko batzuk».

«Zure laguntza behar dut. Zuk dituzu niri falta zaizkidan betaurreko magiko horiek. Zu zara nire sekretuen giltza».

Zailena egina egongo zen: ahizpari gutuna idaztea, alegia. Baina egin beharrekoa, oraindik, erabat amaitu gabe. Izan ere, egunkarira bidali beharko zuen idazkia eta bertan argitaratua izatea itxaron. Egun bat, bi egun, hiru, lau, ... ez zekien zenbat iraungo zuen itxarroteak, ezta bere itxaropenak ere, baina egunero adi egon beharko zuen pentsatutakoa ongi atera zedin nahi bazuen, behinik behin. Egunkariak letra argitaratutakoan mezu bat bidaliko zion, beraiak aski ongi ezagutzen zuten bidetik: «Hitzak erabiliz ere sekreturik handienak gorde daitezke. Maitasunez, zuretzat».



## EDO AGIAN

**E**gun hartan berriro gertatu zen. Herensugeen kontu hura, alegia. Baziren zazpi hilabete herensugeak eta dinosauroak entzuten zituela, goizero-goizero, pertsianaren kontra oldartzen, orroka. Iratzargailuak jo baino zertxobait lehenago izaten zen, eta hasia zen ordurako amorratzen, eguneroko bisita haiek, tontamentean, lo-ordu dexente ari zitzaizkiolako lapurtzen. 2.170 minutu, hain juxtu, egindako kalkuluen arabera eta zertxobait biribilduz, nahiz ez zen bera zehaztasun ezaren zalea. 2.170 minutu. 35 ordu.

Herensugeak sentitu zituen lehen egunean, ikarak odola izoztu zion eta ohean mugitu ezinik geratu zen, giharrak gogortuta eta arnasa hartu ezinik. Kolpeak maiztasun ia erritmikoz belarrirutzen zitzaizkion. Gero, hilabete batzuk pasatuta zertxobait ohitu zenean, emakume haurdunek kontrakzioak neurtzen dituzten hoztasun eta arreta beraz kontrolatuko zituen berak ere oldarralditik oldarraldirako tarteak. Baina lehen goiz hartan ikarak zentzumenak eta adimena bera ere uzkurtu zizkion.

Bestetik, orroen kontua ere bazegoen. Herensugeen burrunba baxu, etengabeari, dinosauro hegalarien karraka zorrotzak gailentzen zitzaizkion noizbehinka, kirioak airean ezartzen zutenak. Auzokoek ere ez zuten batere laguntzen —ohikoa zen bezala, bestalde— terrazak ixteko tema hori zela-eta, oihartzunaren bidez marrumak biderkatzea baino ez baitzen lortzen.

Begiak itxita, kolpeen intentsitateak alderatzen saiatu zen lehen aldi hartan, eta horrela deskubritu zuen, laztuta, dozenaka basapiztik hartuta zeukatela haien mende zerua. Mugimendu inkontziente eta zentzugabe



Irudia: Cristina Fernández

batez betaurrekoak bilatu zituen haztamuka gau-mahaiaren gainean eta, sudurraren gainean hala-moduz jantzita, belarriak erne geratu zen ilunpean. Orduan bai, orduan argi eta garbi irudikatu ahal izan zituen munstro hegalaria haiek gauaren azken orduetako iluntasunean jaun eta jabe, eta pertsianaren PVCaren krak bakoitzarekin bihotza txikitu egin zitzaion eta arnasa biriken barruan beirazko bihurtu.

Mugitu ezinik egon zen iratzargailuak jo zuen arte. Orduan, indarrak batu, altxatu eta, sugandila bat balitz legez hormara itsatsita, leihorantz egin zuen. Besoa luzatuta pertsianaren uhalari heldu zion eta, pixkanaka-pixkanaka, tira egin zuen. Pertsianak goia jo zuenerako, dinosauro eta herensuge guztiak ezkutatuak ziren, eta zerua hutsik ageri zen. Halaxe gertatu zen handik aurrera, goizero-goizero, errutina ia aspergarriaz.

«Herensugea» esatea hitz egiteko modua besterik ez da, noski, ordurako bai baitzekien, ondo jakin ere, izen generiko, ia mitiko horren atzean ezkutatzen ziren deitura zientifikoak *Deynonichus Saurornitholestes* eta *Pterosaur* *Pterodactiloide* zirela. Liburutegian sartuta emandako orduak eta interneten egindako sartu-irtenek irakatsia zioten haiek zirela, bai, goizeroko bere larriduren eta estuasunen sorburu.

Zaila da azaltzen zergatik jakin zuen hain argi lehen mementotik herensugeak eta dinosauroak zirela.

Beharbada —eta hipotesi bat baino ez da, baina hipotesi nahiko sinesgarria, irakurleak berak baieztatu ahal izango duenez— beharbada, genioen, herensugeei ahotik zerien sugarren beroa nabari zezakeelako bafadaka kristalean barrena.

Froga ere egina zuen behin. 17. as-tean edo izango zen. Ordurako, ohituago egonik, pertsianaren kontrako kolpeek ez zuten ikara batean iratzartzten. Esnatu bai, jakina, esnatzen zuten. Hor kanpoan etxeko leihoa hautsi nahian dabilen dinosauro baten erasoak entzun eta lo jarraituko duenik ez da mundu honetan. Baina, esan bezala, gorputzak jadanik ez zion ohean saltorik ematen entzundako lehen danbatekoarekin batera.

Egun hartan, beraz, inoiz baino ausartago sentitzen zelako edo, batek daki, heriotzari beldur gutxiago diogun egun horietako bat suertatu zitzaiolako, estrategia aldatzea erabaki zuen. Izarak alboratu eta, oin biluziak ez ezik, gorputz osoa ere bota zuen lurrera. Horrela, bada, buruz behera etzanda eta narrastien moduan arrastaka, leiho zabalaren azpiraino ailegatu zen. Bidea ez zen erraza izan, pijamaren prakak zertxobait jaitsi eta, gerrialdea bistan, zoruaren hotzak ez baitzuen batere laguntzen; eta, bestetik, horrelakorik etxean inoiz probatu duenak ondo dakien bezala, han-hemenka sakabanaturiko oztopo ugari saihestu behar izan baitzituen ibilera deseroso hartan: tx-

pinak, lanpara, apur bat atzean utzitako idazmahaiaren aulkia...

Behin leihoaren azpian, hango tenperatura altuak salatu zion beste aldean, Deynonichus bat zegoela atezuan. Poliki-poliki, eta beti zoruan arrastaka, leihoaren ezkerreko ertzerantz mugitu zen, handik eskuineko- ra, eta, azkenik, berriro ezkerrean. Aurrez imajinatu bezala, kanpoko bero bafadak lagundu egin zion ibilbide hartan, iman batek pieza bikiari paperaren beste aldean laguntzen dion bezala: herensugeak jarraitu egiten zion. Gero, hormaren babesean, bat-batean zutitu eta pertsiana altxatzeari ekin zion. Egun hartan ere, hoge minutu geroago lanera abiatzean bezain lasai ageri zen kalea.

Ezin ulertu zuena eta, zazpi hilabete, 210 egun pasatuta ere, oraindik zentzugabea iruditzen zitzaiona, bes- teen jarrera zen. Alegia, behin kalean, metroan, inguruko guztiak agertzen zuten axolagabekeria hura, logura- aurpegi atzean goizean bizi izandakoaren ikaragarria ezkutatzeko ahalegin barregarri hura. Gezur kolektiboa, azken finean. Ez zuen etsitzen, ordea; batzuetan aurreko eserle- kuan egokitu zitzaionaren begitarte- miatzen zuen, eta konplizitate soak bidaltzen zizkion. Baina den-denek, salbuespenik gabe, plantak egiteko jarrera erridikulu horri eusten zioten. Edo agian...

*Isabel Etxeberria Ramirez*

**K3** *inprimategia*

Amillaga 1 - 6. Pabiloia  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 27 41  
Faxa: 943 76 49 05  
E-maila: k3@k-3.es



## IRATXOA ETA GOTZAINA

**G**uztiz aztoratuta zebiltzan gurasoak, urduri zein pipertuta, inoiz ikusi ez nituen bezala. Txikia nintzen, sei urte baino ez nuen; baina edadeari jaramonik egin gabe, edozein unetan eta edozein arrazoigatik (nolabait esatearren) errieta egiteari ekin zioten. Ez nekien zergatik, eta egia esateko, galdetzera ere ez nintzen ausartu.

Negar-malkoek aurpegia urratu zidatenean, ordea, amonak maitekiro laztandu ninduen, bere magalean eserarazi, ezker-eskuinera begiratu, eta:

- Gotzaina dator —esan ahapeka, norbaitek entzungo ote ziokeen beldur bailitzan.

Ahoa zabaldu nuen eta neure burua bildu, ikarak jotako animalitxoak egingo zukeen modura.

- Deabruaren morroia al da, amona? — galdetu nuen, nik ere ahapeka.

Bat-batean aulkia goritu balitzaio bezala, jauzi egin zuen. Aitaren egin, eta:

- Ama sortzez garbia, *ora pro nobis* — esan.

Larritu egin nintzen.

- Baina nondik atera duzu holakorik?

Hitz haietan, amonaren bihotz-taupadetan izua trabatu zela antzeman nuen.

- Zer da, ba, gotzaina?

Ahotik oharkabeen erori zitzaidan galderak piska bat lasaitu zuen.

- Ez al dakizu, ala? Jainkoaren mandataria da gotzaina.

Ahoa zabaldu nuen berriro, orduan Jainkoa haserretuko ote zitzaidan beldur.

• • •

Sekula ikusi nuen mahairik apainduena zen hura. Jakin, ez nekien sikiera etxean halako mahai-oihal, ezpain-zapi eta mahai-tresnarik zegoenik. Une batez, ipuin bateko pertsonaia nintzela pentsatu nuen. Zorionaren hegadak atximurka egin zidan ahoan.

Baina ez nuen gustuko bertaratu zuten lurrina, guztiz ez-errealak baitzen: naturaltasunak hanka egina zuen (ala etxetik bota zuten?, pentsatu nuen neurekiko).

Ez dakit zergatik baina Jainkoaren mandatariak altuak izango zirelakoan nengoen; azukre koloreko bizar luzeak izango zituztela; udako ortzea bezain urdinak, begiak; zuriz jantzita ibiliko zirela; eta ahotsa, txioaren antzeko izango zutela.

Baina hura nahiageba nirea, etxean gotzaina sartu zenean: txikia baitzen oso, oinak ipini zioten baloi baten antzekoa; ez zeraman bizarririk; atzera orraztuta beltzak ziren ile bakanak; arratoiarenak ziruditen begiak gauaren kolorekoak zituen; beltzak (baita ere!) praka eta gainontzekoak; ahotsari zegokionez, belearen karranka zirudien. Gainera, herrena zen. Eskuin aldeko hanka alfer samarra zeukan, zeinen ondorioz makila ikusgarri bat zeraman.

- Zein da txikito hau? —galdetu zion.

- Zi-zigor —erantzun nuen totalka.

- Zigor?! —betartea zimurtu zitzaion.

- Eser zaitez mahaiburuan, Bernardo — esan zuen aitak, piska bat aztoratuta.

- Bekatu izango litzateke honelako mahaiazi muzin egitea —gotzainak. Irribarreak, otsoarena zirudien ahoa jarri zidan begi-bistan.

Mahaiburuan jarri zen, aitak esan bezala; eta makila goratu. Inor joko ote zuen beldurtu nintzen.

- *Hartu makila, etxeokandre: denetan gogorrena, esku trebeek landua guztien artean ederrena; hartu, etxeokandre, gotzainaren makila, trinkoa eta esanekoa.*



Sekulako poemaz oparitu gintuelakoan antza, barre egin zuen zalapartatsuki. Gurasoek biziki txalotu zuten; baita amonak ere. Erotu ote ziren pentsatu nuen.

Tximiniako apalean utzi zuen amak gotzainaren makila.

Aitaren egin zuen amonak; konortea galdu amak; aitak, begiak sutan zituela, ukabilkada batez lurrera bota zuen gotzaina. Nik, ordea, inoiz baino gustuago barre egin nuen.

*Juan Mari Zunzunegi Garmendia*



# AMET

**M**ila bederatzirehun eta hogeita hamalauko ekainaren 28an izan zuen lehenbizikoz amets hura, hamar urte betetzen zituen egunean. Ametsean ume esku bat agertu zen behatzetan luma bat zuela. Haren aurrean nobela bat, nobela lodi bat, orri guztiak zuri zituela. Eskua poliki-poliki mugitzen hasi zen, marraz marra, letraz letra, hitzez hitz, lehen orriak betetzen, ehungarreneira iritsi arte.

Hogeita eta hogeita hamar urte bete zituen ametsa errepikatu egin zen. Ia orri guztiak txuriz zituen nobela lodi bat eta gazte esku bat behatzetan zuela berrehun eta hiruehungeren orrira iritsi arte zerbait idazten. Baina bazen amets haiek bereizten zituen zerbait. Ezin zuen ikusi, baina sentitu, sentitzen zuen.

Berrogei eta berrogeita hamar urte bete zituen ametsekin jakin zuen zer zen hainbeste larritzen zuen hura. Ez zen ametsen gertatzen zena, ez, hura nahiko berdintsua baitzen amets guztietan. Nobela lodi bat, pertsona heldu baten eskua behatzetan luma bat duela ehun orri gehiago betetzen, laurehun eta bostehunera iritsi arte. Erritmoa!! Bai, diferentzia erritmoan zegoen. Lehen amets hartan eskuak oso poliki idazten zuen eta orriak pixkanaka pasatzen ziren aurrera. Gainera, aurrera azkarrago jarraitzeko desioa sentitzen zuen, jakin-mina. Hogeita eta hogeita hamar urte betetzean, eskuak ez zuen jada hain poliki idazten eta orriak ere ez ziren hain astiro pasatzen. Orrietan aurrera jarraitzeko gogoak ere bertan jarraitzen zuen, baina presaren desioa ez zen horren nabarmena. Hurrengo bi ametsetan eskua azkarregi idazten hasia ez ote zelako susmoa izan zuen. Orriak pasa eta pasa, amets hura gero eta motzagoa iruditzen zitzaion. Gainera, gehiago ziren idatzirik zeuden orriak hutsik geratzen zirenak baino. Horrek larritu zuen, baina azken orriaren zenbakia begiratzen saiatu zenean, aurrekotan bezala, ametsa bukatu zen.

Ximurtzen hasitako esku batek ziztu bizian bete zituen ehun orri 60. urtebetetze egunean. Ametsean orriren batzuk atzera bueltatzen saiatu zen, gauzak berridazten, baina alferrik zen. Orriak bakarrik aurreruntz pasa zitezkeen eta behin zerbait idatzi ondoren, betiko geratzen zen orri madarikatu haietan. Bigarrenez ere ezin zituen gauzak irakurri, oroitzenak ziren aurreko orrietakoa berrikusteko modu bakarra.

Ximurrez gain dardar batzuk izanagatik ere, hurrengo ametsen ez zen idazketa abiadura jaitsi. 70 urte betetzen zitueneko amets hartan, ordea, beste guztietan gertatu ez zena gertatu zen. Lehenbizikoz, ametsa ez zen bukatu azken orriko zenbakia ikusten saiatu zenean. Zazpirehun eta laurogeita bi.

2004ko maiatzaren 20a ez zen bere urtebetetze eguna. Egun arrunt bat zen, edo hala izan zen behintzat gaua iritsi arte. Orduan, arrautz frijitu pareta eta patata frijituak prestatu zituen afaltzeko, bere afaririk gustukoena. Bere adinekoei gertatu ohi zaiena, berari ere lo hartzea kostatu ohi zitzaion. Horregatik, berde koloreko pastila horietako pare bat ahoan sartu eta ur pixka batez lagunduta irentsi zituen. Bukatzeko, ohean sartu zen.

Gaueko ordu biak aldera, eskua nobela ireki eta idazten hasi zen. Hasieran azkar, motelago ondoren, gero eta idazkera dotoreagoaz. Amets hartako 81.

orria bete eta pasatu zuenean, 782. orriarekin egin zuen topo, eta haren eskuinean liburu-azala. Eskuak gero eta mantsoago idazten jarraitu zuen, hitzez hitz, letraz letra, marraz marra, orriaren erdialde inguruan, iraganezko aditz baten ondoren puntua jarri zuen arte.

Amet-entzat bizitzako egunik zoriontsuena izan da gaurkoa. Zailtasunak zailtasun, bere guraso eta anai-arreba guztiak bildu dira gaur Bagdad-eko bere etxe zaharrean. Gauzak dauden bezala, ez da erraza gaur egun familia osoa biltzea, baina Amet etxeko txikiena da eta hamar urte ez dira egunero betetzen. Une batez urduritasuna zabaldu da etxean, bonba hotsak entzun baitira anaietako bat artean iritsi gabe zenean. Baina azkenean denak bildu dira eta horrexegatik eskerrak eman dizkio Ala-ri oheratu denean. Eskerrak eman dizkio familiako guztiak bizirik direlako eta hala jarrai dezatela eskatu dio urtebetetzeko opari gisa.

Eguneko zoriontasuna dela eta, kostata izan bada ere, azkenean loak gainditu du Amet. Orduan ametsetan hasi da eta ume baten esku bat agertu da behatzetan punta gutxiko arkatx bat duela. Haren aurrean, dena zuriz, ehun orri eskaseko ipuin labur bat.



Irudia: Cristina Fernández



# Oier Guillan

<< Zer konta diezaiokezu hainbeste sufritu duen pertsona bati, barrikadak bere eskuekin altxatu dituen emakume indigena bati, ama aluan eskopeta sartu eta bortxatu eta gero paramilitarrek hilda galdu duenari, zer konta diezaiokezu>>

# • Solasean Mikelazulow/z •

**M**ikelazulo ireki berria zuen Oierrek. Sartzean irakurtzen topatu genuen. Hitzak dira bere mundua, hitzak sortu eta hitzak taularatu. Mingainetik ere, erraz justen zaizkio hitzak, solaskide atsegina eta interesgarria da bera, eta lekua eroso. Piano baten soinuaz hasi genuen elkarrizketa, argilunean, eta elkarrizketa amaitzean ere, pianoak jotzen jarraitzen zuen Mikelazulon.

## Iker Zaldia

### ► Nola sartu zinen Literaturaren mundura?

Beno, ba ez dakit, egia esan ez dakit zer ote den literaturaren mundu hori.

### ► Irakurketa bidez...

Bai, nik egia esan, txikitatik, haur nintzenetik nuen bai irakurtzeko eta bai idazteko zaletasuna. Egia esan txikitik ez da oso ohikoa izaten, baino gusturago nengoen liburu artean, futboleko edo bestelakoetan baino, eta txikitik jada, nire pertsonaiak sortzen nituen, irudimen handiko haurra nintzela esan daiteke. Baina, benetan orain hamar urte sortu genuen halako literatur talde bat, jende gazteen artean Oreretan, *Momodijidopoak* deitzen zena. Hasi ginen fanzine bat kaleratzen jende askok egiten duen moduan, eta halako batean, Mikelazulo ireki zutela jakin genuen, eta bertara gerturatu ginen gure Fanzina saltzeko asmotan. Baietza jaso genuen eta lehen errezitaldia egitera animatu gintuzten. Hori izan zen gure lehenengo agerpen publikoa, eta, egia esan, garai hartan gehienok 18-20 urte inguru genituen eta asko animatu gintuzten, eta esan daiteke, bultzadaxo horren bitartez, hamar urtez jarraitu dugula.

### ► Eta zer eman dizu Literaturak?

Ño, bigarren galdera izateko oso sakona e? Gauza asko, agian bi arlotan banatuko nuke literaturak eman didana, batetik, liburuekiko gozamenak, norbe-

raren burua, nire burua ezagutzeko modu bat eta osatzeko modu bat eta egunerokotasuna: egunez eguneko jardunean gelditzeko aukera txiki bat, sentimenduak oroitzeko aukera txiki bat; eta kanpora begira, bada, batez ere, literaturara loturik, jende asko ezagutzeko aukera, zuzeneko emanaldiak zer diren ikasteko aukera. Egia esan, ni antzerkiaren saltsan ibili izan banaiz, poesiaren eskutik izan da.

### ► Beraz poesiaren mundutik sartu zinen antzerkiaren mundura...

Urte luzez, gure gidoiak antzerki gidoiak izan ziren, poesian. Hasi ginen, *Momodijidopoak*-ekin poesia errezitaldi xumeak egiten, pixkanaka esperimentatzen, jende berria ezagutzen hasi ginen, Mikelazulon ibiltzen zen jendea ezagutzen, ba, pintoreak, musikariak. Giro horretan oso erraza suertatzen zen gauza berriak probatzea eta horri ekin genion, eta azkenean bukatu genuen, beno, nik behintzat, izan ere, taldea desegin egin zen, ba antzerkiak egiten. Eta oraintxe bertan ere askotan edo gehienetan, antzerkia egiten dudanean, literaturaren eskutik izaten da. Neurri handi batean poema gidoia izaten da, eta poemak ez badira, poetikotasuna ziur.

### ► Beno, hauek zerbait esango dizute, *Begi bien sujauzia; Beste bat apalera-koeta Bixotz tam!padak, zer esaten dizu bakoitzak?*

Beno, *Begi bien sujauzia* oso liburu xumea izan zen, abentura txiki bat izan

zen, oraindik ez zeuden, gaur egun eskura dauden medio teknikoak, ia ia artisau liburu bat izan zen.

### ► Noizkoa da?

98koa uste dut, eta beno bi lagun artean gehi Mikelazuloren artean egindako lan berezi bat da. Oso gazteak ginen eta oso heldugabea zela esan daiteke, baina, oso oroitzapen polita gordetzen dut, oso gauza... ezin zaio ia ia liburu deitu ere, gehiago da luxuzko fanzine bat, garai hartan nuen ilusioaren isla.

### ► *Beste bat apalerako...*

*Beste bat apalerako*, ba, hemen bai, hemen esan daiteke, jada jauzi bat egon zela. Liburu horren argitalpenak etapa berri bat ireki zuen Mikelazulok poesiaren inguruan. Lan talde berri bat sortu zen liburuaren inguruan eta jende asko ezagutu genuen, gauza askoren abiapuntua izan zen, orduan oroitzapen polita gordetzen dugu, askoz hobeto egin zitekeen beti bezala, baina... arreta eman genion, intuitzen genuen, horrelako ekimen bat izan zitekeela abiapuntu bat, ez helburu bat, ez da dinamika baten ondorioa, hasiera baizik, orduan ba...

### ► Hastapen puntu bat

Hori da, bere funtzioa izan zuen, batez ere jendea elkartzeko. Nire ustez liburu horri zentzu asko eman diote, gerora lau-bost urtez egin diren gauza guztiek, ze gauza asko egin dira eta neurri batean "*Beste bat apalerako*" izan zen guzti hori bultzatu zuena.





► **Azkenik, Bixotz Tam!padak**

Bada, *Bixotz Tam!padak* talde lanean egindako liburua da, nahiz eta testuak nik idatzi nituen; dinamika baten ondorioa da, berez Senegalen egin genuen proiektu baten emaitza, zeren eta emaitza gehiago egon ziren erakusketa moduan edo ikuskizun moduan, eta oso oroitzapen polita gordetzen dut, baina egia esan liburuaz baino gehiago, proiektuaz. 15 pertsona joan ginen Senegalera, ikuskizun batekin, gauza asko bizitu genituen eta oraindik mantentzen dugu harremana han ezaguturiko jendearekin.

► **Senegaleko bidaiaren ondorio hutsa al da?**

Ez, ez, ez, bueltan, bueltan, guztiz bueltan. Bagenekien Senegalera joatea esperientzia iturri garrantzitsua izango zela, ikuskizun batekin joan, modu autogestionatuan, hamabost pertonekin, eta hala izan zen; eta gerora, bizi izan genuen hura kaleratu nahi izan genuen: han bildutako material guztia, argazki, marrazki, poema... Material guztia bildu eta kaleratu. Esan daiteke, liburu horretan, nik idatzitako testue-

«Liburu horretan,  
nik idatzitako testuetan,  
hamabost pertsonen  
sentimenduak daude»



tan, hamabost pertsonen sentimenduak daudela. Garbi dago halako lan bat, talde lana dela, nahiz eta batek idatzi, hor dauden sentimenduek islatzen dute momentu hori posible egin zuten guztien sentimenduak nolakoak izan ziren.

► **Hau da, denon arteko bizipenak, plazaratzea, ala?**

Bai, azken finean, Mikelazuloren inguruan proiektu bati lotutako liburuak egon dira. Proiektu hori ez da inoiz pertsona baten kontua izan, bai Kili-mamuak, bai Ekuadorrekoa eta bai aipatu ditu horiek, azken finean, mugimendu baten adierazle dira, eta beno, batzuk dugu gaitasuna, zaletasuna, bizitakoa hitzen bidez adierazteko, beste batzuk kuadro bidez eta kasu honetan, bada, liburu horren bidez.

► **Poesia joratu duzu, iritzi artikulua ere bai, elkarrizketak, erreportaiak, zein genero atsegin duzu gehien?**

Errepikatu mesedez?

► **Alegia idazterako garaian zein genero duzun gustokoen.**

Inongo zalantzarik gabe poesia, pertsonalena delako eta azken finean bizitako esperientzia bitala oso modu zuzenean isladatzen duelako. Agian ez da besteak baino gehiago, niretzat elkarren osagarriak dira. Poesia emanaldi bat egitea eta antzerki emanaldi bat egitea osagarri diren moduan, poesia eta kazetaritza ere halaxe dira.

► **Bata ofizio eta bestea afizio?**

Ez zeren eta nik, kazetari moduan, ere beti saiatu naiz parte hartzen interesatzen zaizkidan gaien inguruan, bai herri komunikabideetan, bai komunikabide handiagoetan. Egia esan karrera bukatu nuenean, oso erreta bukatu nuen eta ez nuen kazetaritza ez jakin nahi, behintzat lanbide gisa. Orain, jada, pixka bat karrera atzean gelditu da eta...eta beno, kazetaritza gogoko dut baina, so matzen da kazetariak noiz sentitzen

duen idazten duena, nahiz eta sasi objektibo batean idazten, baina somatzen da kazetariak noiz duen interesa. Horregatik gustatzen zait, posible dudan neurrian behintzat, gustoko dudan gaien inguruan lan egitea. Gainera kazetaritzak ate asko irekitzen ditu, jende asko eza-gutzeko aukera ematen du, pertsona askoren lanean sakontzeko aukera ematen du, eta beno, idazteko beste modu bat da.

► **Eta irakurtzeko zein nahiago?**

Bada, egia esan, txikitatik, beti irakurle amorratua naiz; ari naiz irakurtzen, eta normalean, beti ari naiz irakurtzen poesia liburu bat, saiakera bat, eta eleberrido edo narrazio liburu bat; egia esan, beti ditut hiru liburu inguru mahai gainean. Eta ditudan une guztietan, egongo nintzateke irakurtzen, Mikelazulon askotan egoten naiz irakurtzen, autobusean, eta egia esan, genero aldetik denetik, beste gauza bat da, gai aldetik. Gai aldetik, beti dituzu momentuak eta beno, etapak bizitzako ez, interesen araberako etapak. Baina genero aldetik behintzat, narrazioarekin ez daukat arazorik, saiakera aldetik ez daukat arazorik, poesia aldetik zer esanik ez.

► **Beno, sari batzuk ere irabazi dituzu.**

Bai, Kar, kar, kar, kar... txiki batzuk bai, baina besterik gabe.

► **Beno, ea ondo esaten dudan, *Ñani Mishakunchik* esaten badizut, zer erantzungo zenidake?**

Ba... Amen, kar, kar, kar, baina zer esaten duzu, izenburu bezala edo esamolde bezala?

► **Izenburu bezala, izenburu hori agian esamolde bat izango da, baina printzipioz izenburu bezala.**

Bada, izenburu moduan da, Mikelazulok argitaratu duen azken liburua eta



ez dakit lortu dugun ondo islatzea proiektu horrek suposatu duen guztia, baina nolabait esateko, orain arte egin ditugun gauzen artean esperientziarik sakonena izan da guretzat. Gauza asko egin ditugu, ezin da konparatu ez, baina Ekuadorrera egin genuen projektua oso gogorra izan zen, intensoa. Jadanik bi urte pasa dira, baina oraindik oso presente daukagu, gure egunerokotasunean. Egin ditugun gauzen artean, erreferentzi garrantzitsua izan da. *Ñani Mishakunchiken* inguruan, izugarriko material mordoa eta gauza mordoa genuen aukeratzeko eta ez dakit lortu ote dugun dena, modu orekatu batean kalera-tzea. Liburuak baditu hizkuntza ezberdinetan ipuinak, bada, hizkuntza indigenetan adibidez; hara eraman ge-

nuen ikuskizunaren gidioa; eguneroko moduko bat, egun bakoitzeko kronikekin eta poema, argazki, eta ikuskizunekin; hango indigenen mugimendueta-ko kideek idatzitako gutunak, Euskal Herriari zuzendutakoak, Mikelazulori...; artikuluak, bi urte hauetan zehar, komunikabide ezberdinetan kaleratu ditugun artikuluak batzuk, argitaratugabeak beste batzuk; elkarrizketak... Bada, nolabait esateko, zergatik izan zen hain intensoa? Ez dakit, agian sormena baliatu genuen zubi gisa, bada, kultura lekukotasunaren ildotik, hango indegenekin harremanetan jartzeko baina sormena ez zen kulturara mugatu, arlo sozialera, arlo politikora ere zabaldu zen sormen hori. Orduan izan zen sentitzea, sormena bizitzari adaptatua, no-

labait esateko, eta beno, azken finean eraman genuen ikuskizunaren bidez, horma asko erori ziren, oso zaila zen, asko sufritu genuen indigenekin komunikatu ahal izateko, baina bat-batean ikuskizuna egin eta gauzak aldatu egin ziren. Hamar urtez emanaldi asko egin ditugu Mikelazulon, eta baita kanpoan ere, baina agian hamar urte eta gero, sentitu ginen lehenbiziko aldiz, biluzik publiko baten aurrean. Batez ere *Pucahuaico Imbabura* sumendiaren magalean dagoen indigenen komunitate batean, hango nekazal talde baten aurrean egin genuen ikuskizuna, haiek ez zuten inoiz ikusi antzerki bat euren bizitzan, ez behintzat antzerkia guk ulertzen dugun bezala, eta... hau zen komunitate bat oso gaztigitua izan zena paramilitarreatatik, asko asko sufritu zuena, izugarri gogortua zeukaten aurpegia, ba... euren lanbideagatik, eta baita ere, sufrimendu guztiagatik,

eta bat-batean izan zen... Ez du zerikusirik hemengo publikoarekin, hemengo publikoa ohituago dago, aspertu egiten da, txalo egiten dizu ala ez, zaila da jadanik hemen, jendea harritzea. Baina han benetan sentitu ginen biluzik halako publiko baten aurrean eta asko sufritu genuen emanaldi horretan, baina hala ere, izugarri betegarria izan zen, handik atera ginen, ni behintzat, bat-batean ulertu izan bagenu bezala egiten dugun guztiak zein zentzu daukan, zeren eta eguneroko bizitzan askotan pentsatzen duzu, zertarako egiten ditugu poesia emanaldiak? Zertarako egiten dugu poesia?, eta han bat-batean ulertzea izan zen, emanaldia bukatu zen eta "kolokio" moduko bat egin genuen, eta beraien komunitate indigenaren aldeko dauden militanteak animatu ziren sentitu zituzten sentipenak azaltzera; asko kostatzen zitzairen, baina saiatu ziren azaltzen sen-

titu zutena. Hamairu ginen ikuskizunetan eta beno, hamairuok negarrez bukatu genuen, beraiekin hitz egiten, beraiek negarrez...

## ► **Eta beldurra? Antzeztu aurretik beldurra izango zenuten.**

Beldurra ez, errespetua, beldurra ez, errespetua, zer kontu diezaiokezu hainbeste sufritu duen pertsona bati, barrikadak bere eskuekin altxatu dituen emakume indigena bati, ama alua eskopeta sartu eta bortxatu eta gero paramilitarrek hilda galdu duenari, zer kontu diezaiokezu. Gainera guk gidoia sortu genuen munduko borondate onenarekin, baina ezin dugu ekiditugure mende baldeko izaera. Oso ironikoak eta oso kritikoak ginen, baina gure modura ulertzen den ironia eta kritika bat, beraz sentitzen ginen, nolabait esateko, tontoak beraien aurrean, eta horrek errespetua sortzen zigun.



*<<Hemengo publikoa ohituago dago, aspertu egiten da, txalo egiten dizu ala ez, zaila da jadanik hemen, jendea harritzea. Baina han benetan sentitu ginen biluzik halako publiko baten aurrean>>*





► **Liburuari eutsiz berriro, gutunak sartu dituzue, Mikelazuloren barruan berrikuntza bat.**

Bai, bi gutun sartu ditugu, oso balore sinboliko handikoak guretzat, Nidia Arrobo Rodasek idatzia dira, “*Fundación Pueblo Indio del Ecuador*”reko emakume militante bat, izugarri markatu gintuen haren presentziak, oso borrokalaria, kristautasunari loturiko mugimendu bateko kide, *Teología de la Liberación*eko apaiz ezkertiar edo indigenen aldekoak, eta hauek gogor ari ziren lanean, eta Nidiak izugarritzko intelijentzia zuen. Ni desiatzen egoten nintzen politikaren inguruko galderak egitera, baina ez nintzen ausartzen, txi-ki txiki sentitzen ginen bere aurrean, eta asko markatu gintuen emakume hark. Amaieran olerkibatzuk idatzi genizkion, oparitu genizkion, eskuz idatzia, euskeraz eta itzuliak, gazteleraz,

eta eskatu genion, Mikelazuloko kideei, etorri ez zirenei gutun bat idazteko, eta beste bat Euskal Herriari zuzendua, azken hau itzuli eta berehala zenbait komunikabideetan argitaratu zen, bat edo beste, gainera, euskarara itzulia, eta oso balore sinboliko handia dauka, zeren eta, orri batean, orri bakar batean adierazten du niretzat neurri ezin hobean han bizitu genuena. Oso modu zuzen eta argian hitz egiten du, bizipen guztiez.

► **Beno liburua alde batera utzi eta Mikelazulon sarturik, esadazu, zer da Mikelazulo?**

Beno, lehenik eta behin leku goxo bat da, baina batez ere, elkargune hitza etortzen zait burura, elkargunea egunerokotasunean, besterik ez bada kafetxo bat hartzeko, izan ere, hori da galtzen ari garen ohitura, elkarrekin egon

eta hitz egitearena besterik gabe, eta elkargune bat baita sormenerako ere, bigurutzeko amankomun bihurtu da urte urte Mikelazulo. Gero sormena dator gauzak suertatu daitezke edo ez, baina behintzat badakizu badagoela leku bat, non suertatu daiteken, eta hori asko da. Elkargune finko bat izateak, irekia, publikoari irekia, asko egin duela uste dut, jende askori asko lagundu diola.

► **Zaila da elkargune txiki hori eraiikitzea, literatura elkargune txiki bat eraiikitzea?**

Beno, zaila gauza guztiak bezala, norberak egiten ditu zailak edo errazak, baina ez da literatura elkargune bat hala ere e!, hori azpimarratuko nuke, literaturak bai, urteetan zehar protagonismo handia izan du, baina adibideak jartzearren, esan erakusketak egon

direla hamar urtez hilabetero, eta askok eta askok bere lehen erakusketa jarri dute, gainera normalean jende hasi berriarekin saiatu gara lan egiten, edo normalean bere lana erakusteko aukerarik ez duen jendearekin. Jende ezaguna ere pasa da rekin. Jende ezaguna ere pasa da hemendik, orduan... Beno, hori zen adibide bat, baina hasieran bai, Literaturak protagonismo handia izan zuen *Momodijidopoak*-ekin, baina gero urte batzuetan zehar ez zuen hainbeste izan, antzerkiak izan zuen gehiago. Orain berriro *Beste bat apalerako* sortzearekin lan talde bat sortu zen eta gaur arte irauten du. Orduan ez dakit, guk beti sormen hitza aipatzen dugu Literatura edo beste edozein baino gehiago, eta zaila bada, neurri batean, batez ere, hasieran, ohi-tura bat sortu behar duzulako, eta lehen esan dugun bezala ohitura horiek galtzen ari gara, berez hain gauza sinplea ematen du, komunikazioa, elkarrekin egotea, baina galtzen ari gara ohitura horiek. Ematen du betidanik egin dela ez, taldetan elkartu eta gauzak egin, baina egia esan, ez da hain erraza gaur egun, jendea ezagutu, jende horrekin konektatu eta gauzak aurrera ateratzea. Mikelak egin duena da baliabide batzuk sortu eta jendeari eskaini, zaila da hasiera batean, jendea oso mesfidatia bilakatu delako eta jendeak hasieran zalantzak dituelako, baina gero, jendeak Mikelaren asmoa ikusi duenean, nik uste dut jendeak berak egin duela Mikelazulo eta hori oso garrantzitsua da. Guk baieztatu duguna da, kalean ikaragarritzko gosea da goela, dela literaturan, artean, musikan, eta zuk urrats txiki bat ematen baduzu, jendeak erantzun egiten du, gose hori hor dagoelako. Mikela-zulo azkenean jendeak egin du, jende asko eta asko pasa da hemendik urtetan zehar, batzuk jarraitzen dute, beste batzuk ez, eta jende berriak azaltzen jarraitzen du.

## ► Emanaldiak ere antolatzen dituzue.

Bai, egia esan ez modu oso konsziente batean; esan nahi dut, jarraikortasunez antolatzen diren gauzak erakusketak dira eta herrien astea, hamargarren edizioa beteko duena hurrengo Azaroan, eta azken lau-bost urtetan poesiaren astea, baina berez, programazioa ez da existitzen: jendea agertzen da hona, proposamen batekin eta espazioaren arabera egitea posible bada, ba aurrera, gure mugak horra hauek dira, orduan ez dago jarraikortasun finkorik, jendeak nahi duenaren arabera irekitzen ditugu ateak eta hori izango litzateke programazioa, eta beno, gero gure ekoizpen propioko gauzak, ez ba, herrien astea, eta horrelako gauzak.

## ► Orduan emanaldi finko, zehatzik ez dago

Ez, muga norbera da, eta lokalaren itsura fisikoa ere bai, hormak hauek dira eta neurri batzuk ditu, hori da muga bakarra eta bestela jendearen esku, eta guk gure eskuan dagoen guztia egiten dugu jendea animatzeko. Horregatik asko jende berria da, zuk: aukera ematen diozu, eta jende hori ilusioz, beharrez eta gosez dago, orduan oso gauza ezberdinak egin dira, hitzaldietatik hasi eta moda desfile bat ere egin zen behin.

## ► Zer da zailagoa idaztea ala idatzitako antzezte?

Ez bata eta ez bestea, nik uste dut, sentitzen duzunean, gozatzen duzunean bakarrik ateratzen da dena. Batzuetan bai burua hausten dugu, ondo egin nahian, eta hobeto egin nahian, batzuetan gehiegi agian, gure hegal propioak moztetaino ere bai, baina zaila, sentitzen duzunean ez da zaila.

## ► Duela gutxi 10 urte bete zenituzten, eta festa erraldoi bat edo antolatu zenuten ezta?

Berez hilabetez luzatu ziren hainbat ekitaldi izan ziren, Harkaitz Cano *Mo-*

*modijidopoak*, Yolanda Arrietaren literatura lantegia, gonbidatu dezente, esperimentuak egon ziren *Letren kilimak* antzeko hainbat ekitalditan, eta amaiera bezala, egin nahi izan genuen, nolabaiteko antzezpen berezi bat, hamar urte eta gero sentitzen genuen beharra hamar urte eta gero bizitu genuenaren balantze bat plazaratzea, ez genuen manifestu bat egin nahi, beraz ipuin bat asmatzea pentsatu genuen, pertsonaia bat, ipuin bat, non pertsonaia horrek gogoetak egiten dituen, Mikelazuloren gogoetak, eta gero, gogoeta horiek taula gainera eraman genituen. Jende askok parte hartu zuen taula gainean, eta egia esan, oso zaila izaten da, hainbeste jende koordinatzea, baina oraingo honetan, beste batzuetan baino askoz gusturago aritu ginen, dela iluminazioa, gidoia, jendeak prestatu zituen gauzak, oso berezia izan zen. Batez ere helburua zen, gogoetak konpartitzea, beti bezala modu sortzaile batean eta poesiaren neurrian.

## ► Zer esango zenioke, oraintxe eskailera horiek jaitsi eta “parte hartu nahi dut, zerbait egin nahi dut” esaten duen bati?

Zer eta noiz egin nahi duzu?. Egia esan oso gutxitan gertatzen da, norbait gerturatzea, oraindik gu gara, zerbait egin nahiez dabilela intuitzen dugun jendearengana hurbiltzen garenak, batez ere jende hasi berriekin. Baina beno, tarteka izan ditugu sorpresak, jende gaztea hurbildu eta inor ezagutu gabe galdetu duena, oso gutxitan gertatzen da, baina gertatzen denean “flipatu” egiten dugu, izugarritzko energia ematen digu horrek, zeren eta guk gozatzen dugu jendea detektatu eta animatzen, baino jendea guregana gerturatzen denean, energia asko, indar asko ematen digu horrek, eta nahiko contagioso da hori, norbait berria agertzen den bakoitzean, zerbait egin nahi duela esanez, ba... Gozada bat da!



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

- ✓ **Zure egile eskubideak defendatzeko!**
- ✓ **Zure lanaren proiektzio soziala bermatzeko!**
- ✓ **Zure prestakuntza hobetzeko!**
- ✓ **Puntaren puntako gaien inguruko biltzarretan parte hartu ahal izateko!**
- ✓ **Beste idazleekin harremanetan jartzeko!**

# Izan zaitez EIEko bazkide!

## Bazkide-fitxa:

Urteko kuota: 45 €

Izen-deiturak: .....

Banku edo Kutxa: .....

Helbidea: .....

Kontu-zkia (20 digito): .....

Herria: ..... P.K.: .....

.....

Tel.: .....

Erantsi datu hauei, mesedez, zure CV eta argazkia.

**Euskal Idazleen Elkarte**

Zemoria, 25 • 20013 DONOSTIA • Tel.: 943 27.69.99 • Faxa: 943 27.72.88



## ITSUSI

**E**gunero jartzen da itsusi. Berak badaki. Eta badaki ikusten dugunok, edo behintzat berari arreta pixka bat jartzen diogunok, badakigula. Nahita itsusten dela. Propio zatartzen duela bere itxura. Eta aldi berean bere burua.

Goizero margotzen ditu ezpainak zartatua dagoen ispilu txiki batean begiak iltzatzen dituen bitartean. Ezpainak ezezik inguruko mutur guztia pintatzen du, ia-ia sudur zuloak estaltzeraino. Eta gehienetan aurrealdeko hortzaren batean marka gorriren bat uzten du. Margotzen ari denean polit jarri nahian baino, ezpainak ezkutatu nahian dabilela dirudi. Eta lortzendu. Emaizta ikaragarria da.

Inoiz ile polita izan bazuen, nik ez diot horrelakorik ezagutu. Luzea du, ia ipurdiraino utzia. Kolorea ere ez zaio igartzen dagoeneko. Marroia bezala izan zezakeen gorria ere. Baina orain, grasa eta zolda dirrela tarteko, masa luze itsaskor bat baizik ez zaio atzematen buruaren atzealdean. Moztu zezakeen. Baina ez du nahi. Itsusik karga hura eramatera behartzen du bere burua. Eta ingurukoek bezainbesteko nazkaz begiratzen dio berak aurpegitik zehar maiz zintzilikatzen zaion metxoiari.

Itsusik zaku baten antza du zutik dagoenean. Bere adinako bi sartuko lirakeke erraz daramatzen arropetan. Edo hori uste dut behintzat. Ez baitakit zehazki nolako gorputza duen. Argal edo lodi dagoen. Zelulitisa ba ote duen. Edaten dituen ardo kaxa merkeek tripa aterarazi ote dioten. Baina horrek guztiak bost axola berari. Detaileak baino ez baitira. Polit egoten direnen ñabardura itsusiak. Luxu antiestetikoak. Itsusi

ordea, goitik behera egoten da itsusi. Halakoxea den edo ez den beste kontu bat da ordea.

Guztioi gezurretan aritzea ere posible da. Egunero kaleko izkina zabarrenean eseri eta itsusi jartzen da. Baina ez dakit eguneko 24 orduetan itsusia ote den. Begiak ere ezin baitizkiot aurkitu, kristal potoldun anteojo batzuen atzean gordetzen dituelako. Eta sekula ez dio inori begietara begiratzen. Izkina horretan pasa ditu behintzat azken 10 urteak. Eta nik ez dakit zahartu ote den, zimurrik ba ote duen, gaixorik egon den, hilerokoak aztoratzen duen, menopausia iritsi ote zaion.

Orain bost urte agindu zuen udalak izkina horretan, "Itsusiren izkina" plaka jartzea zintzilik. Adeitasunez, detailea bailitzan egin zuten udalekoek, behinola izkina hartan egun osoa igarotzea erabaki zuen neska, emakume edo andre hari lekua gordetzearren. Eta Itsusik bere lekua ondo baino hobeto betetzen du. Inguruko guztien autoestimuaeren onerako eta berearen kalterako. Han egoten da egun guztian asmatu duen rola jokatzeko eta aldi berean ogia irabazten. Horren truk ematen baitiote auzoek dirua, nik uste. Itsusi izatearen truk.

Norberak nahi duena izateko eskubidea du. Edo ahal duena. Itsusik itsusi izateko eskubidea irabazi du gure auzoan. Eskubidearen eta nahita nahiezko betebeharren muga non dagoen argi ikusten ez badu ere. Norbaitek jakingo du ordea zainek jarri zion betebehari hori, eta zergatik oraindik berak bere buruari eta beste guztiok berari betebehari hori betetzen jarrai dezan eskatzen diogun.

Horrelakoetan gertatzen den le-

gez, Itsusi izateko betebeharra izateaz gain, betebehari hori justifikatzeko istorioa ere sortu da inguruan. Itsusiri ez zaio izenik eta abizenik ezagutzen, ez bizilekurik, ez jatorririk. Bere izkinean dagoen plaka da bere aurkezpen txartel bakarra. Eta auzora datozen bizilagun berriek "zein da hori?" galdetzen dutenean, nola azaldu bilatzea beharrezkoa zen. Gaur egun, Itsusiren sozietate aurreko presentazioak bertsio ezberdinak ditu. Denen artean ordea, bada egiazkoena dirudien bat. Horren arabera, Itsusi hiririk dagoen herri txiki bateko neskarik politena zen. Zazpi anaien artean neska bakarra zen bera eta diotenez, aitzak ezin zuen jasan bere alaba bakarra kaletik zihoran bakoitzean ingurukoek zituzten begirada lizunak. Burua galdu omen zuen kontu harekin. Horregatik, egunero "itsusi nago" esatera behartzen omen zuen Itsusi ispilu aurrean. Bertsio gogorrago batek dio hori esanarazten zion bitartean, aitzak amaren ezpain barra hartuta, zatar margotzen zuela, aurpegi guztia gorritu arte.

Hirugarrenak zera gaineratzen du: ispilu aurrean "itsusi nago" esatera behartzen zuela, amaren ezpainetako barrarekin aurpegia erabat margotu eta bortxatzen zion bitartean.

Horrelakoetan gertatzen den moduan, inork ez dio berari galdetu.

Orain Itsusi itsusia da, nahita nahiez. Itsusi egiten du gure auzoan. Baina hori baino gehiago itsusiarena egiten du.

Eta guri, auzoei, gustatzen zaigula badaki.

# HABI-OHEA

Ilun irakurri ninduzun azken gutunean, badakit. Gaur ere banator negar malkoz idatziriko papera eskuartean dudala. Gaur ere nire txanda da, entzun! Ez didazu hitz egin nahi, beraz, entzun. Ilun usaindu ninduzun utzi nizun azken argazkian, badakit: irribarre isila, begirada galdua, buru makurra, hezur estuak eta azal zimurra antzeman zenizkidan. Eta bihotza? Eskerrak, eskerrak hura ikusterik ez zenuen izan.

Maldan gora nekez, karrketan zehar hotz, bizikleta zaharra soma zitekeen nire atzean, argazkiaren eskuinaldean. Non atera genuen argazki hura? Zuk egin al zenuen? Bai, hala uste dut. Zenbat bizipen kale haietan, oroitzen? Istoria ugari dituzte gurgil horiek, istorio gehiegi ditu txirrin ugertuak. Barre egiten genuen atarian lehertuak. Eta han zinen zu ere: euripean makurtua, iskinan makurtua, izkutuan makurtua, beldurrez makurtua, belauak hartuta, han zinen. Baina, esan: nork egin zizkigun erretratuak?

Hutsik nago barrutik, baina, ez zait ezer gehiago sartzen, ez dago miseria gehiagorentzat lekurik, ez dago odol uholde hau jasango duen kupelik, ez dago barmanik aho beroak hozteko koktel izoztuak egin ahal dituenik, ez dago, ez dago. Nor da inor zure bizimodua epaitzeko? Nor da inor zure epitafioa baimenik gabe txuri beltzean jartzeko? Nor da inor ezagutu zintuela esateko?

Baduzu gogoan Esoporen istorioa? Astoarena? Ba omen zen behin asto trebe eta ausart bat. Egun eguzkitsu batez, astoa izerditan blai eginda zegoen, leher eginda. Alboetan saski bi zeramatzan: gatzez bete-beteak, bata zein bestea. Ibai bat gurutzatzen ari zela, irrist egin eta uretara erori zen asto gaixoa, gure asto nekatua. Gatz gehiena urarekin disolbatu egin zen; eta astoa, bizkarra arin-arin zuela, txistuka irten zen ibaitik, lasai, fresko, deskantsatuta. Baina, beste egun batez, hura ere eguzkitsua, beroa, uda-udakoa, belakiz beterik hurbildu zen ibaira, eta, irrist egin baino lehen, uretara salto egin zuen nahita. Gure asto alferra konturatu zenerako, belakiek, ibaiko ura xurgatu zuten; eta, pisuaren pisuz, ibaian hondoratu eta ito egin zen.

Ni ere hala nago, hondoan, itota. Belakiek ezin dezakete malko gehiago xurga. Eta nire bizkarrak ez du zama hau gehiago jasan nahi. Ibaira bota nahi dut nire burua eta ez ditut kontuan hartuko ez malko gaziak ez belaki bustiak.

Astoa baino astoagoa izan nahi dut, eta hondoan egon, hondoan loak hartuko nauen esperoan, inork aterako ote nauen esperoan, ibai ertzean zure islada ikusiko zain. Malko gabe zain.

Beltz dastatu zenituen bart nire negar anpuluak, eta beltz soma dezakezun larrosarekin natorkizu bisitan orain. Hemendik entzun zaitzaket, hemendik senti zaitzaket, hotz baino hotzago, hil baino hilago. Zelai hezean moilatua nago. Zer gertatu zaizu? Zer egin dizute?

Gure gotorlekua zen ohea, zure erresuma eta nere konkisten agertoki zena, hutsik aurkitzen dut gau eta egun. Argi nahiz ilun, hotz nahiz bero, ez dago lurrunik, ez dago irrik, ez dago zetarik, ez dago deus. Kaosa da: osotasun hutsa eta ezereza. Ez zaude. Lur, zizare eta harrez erai-ki dizuten habi-ohea eragitera etorri naiz faltan zauzkadalako. Ez zauzkadalako.


Ontzitalera baten ostean bezala nago, gidatzen ninduen naoa itsasoak eraman du. Ohe azpian gordetzen zenuen kutxari eutsi natzaio buia bat balitz bezala. Irudi eta letren bilduma

hau igurzten dut uneoro, atera ditut soinekoak, atera ditut armairutik bakero eta kamisetak, zapatak ere, kendu ditut apaletik. Irakurriko ez ditudan liburuak ere utzi dizkizut alfabetikoki gordeak, itzultzen zarenerako, behar dituzunerako, esnatzen zarenerako, berpizten zarenerako, berraragiratzen zatzaizkidanerako.

Agian neu ere ilun nagoelako, ke usaina hartzen dizut. Morez jantzita ikusi zaitut sukaldeko atean, horregatik etorri naiz hona, nire albotik guztiz joan ez zarea jakiteko. Nahi dudanean ikus zaitzakedala ziurtatzeko. Betiko lora eraman zaituena aurkitu arte ez dut etsiko, eta bitartean, zure loa zainduko dut.

Estalkiak ihes egin dio bihotzeko zuloetan ilun eta sakonenari: Pandoraren kutxa ireki da, eta nire erraietako sehaska hotzenean izkutatu naiz: amets gaiztoenen kutxan hartzen dut lo gauero, beldur latzenen saskian esnatzen naiz egunero, laztan arrotzenen ohean lortzen dut kontsolamendua, malko lehorrenen baoan egiten diot min nire buruari, eta zu ez zaude hemen.

*Josune Aranguren*



## TENTAZIOAK

**T**ipustapan etorri dira, batere abisurik eman gabe, zalapartarik gabe. Normalean ondo igartzen zaie nondik dabiltzan, baina gaurkoan jokoaz kanpo harrapatu gaituzte erabat. Atea zabaldu orduko galderak, zein bizi garen hemen, bakoitzaren urteak, etxeko denon arteko harremanak. «Familia mota tradizionala» lerroan gurutzea egin du. Eta hasierako zizka-mizkei buruzko galderen atzetik, hiritartasun arauetara buruzkoak: ea ondo ezagutzen al ditugun, onartu genituenean hartutako konpromisoa gogoan al dugun... Iñakik erantzun die galdera guztiei, lasai eta patxadan, ziur asko ez zekielako ezer poltsan neukanaz eta bezperan egin nuenaz.

Galde-erantzunen orriari gure zirriborroa egin ondoren, etxea miatzeko baimena erakutsi digute. Iñakik dena ondo dagoela ikusi duenean, eskuarekin barrura pasarazi ditu.

Dardarka hasi naiz ni, eta Iñakik arraro bota dit begia, ni horrela ikusita zerbait sumatuko balu bezala. Leirek lo segitu du, eta Sara aitaren ondora joan da, segurtasuna behar duenean egiten duen legez. Ez da nitaz fio. Isilik egon gara hirurok, txakur zaharrenaren ondoan. Sarari keinu batzuk egin dizkio, tentsioa pixka bat baretu nahian edo. Nork ikusi ote nau, laugarreneko atso mozkorrak, akaso. Zenbat aldiz esan ote diot neure buruari kontuz ibili behar dudala. Ikasiko dut hurrengorako.

Segituan aurkitu dute bila zebiltzana.

- Zurea? —egin du zaunka boxerrak.

- Bai —esan diot, etsita.

Galdeketa polizia etxean egingo omen didate, eta hara eraman naute.

Etxetik irteterakoan Iñakik egin didan begirada izan da okerrera.

- Umeen aurrean ere bai? —entzun diot, ozta-ozta.

- Ez, lasai, ez naute ikusi.

Gela batean sartu naute. Aurreko aldirian egindako galdera berak, noiztik, zenbat, non erosten dudana, deklinabide osoa.

- Haurdunaldi garaian ere bai? —txakur zaharrak.

- Ez —nik, poligrafoari begira. Gezurrik txikiaren susmoa hartzen badute, kapaz dira Leire hartu eta probak egiten hasteko, nire bekatuzko jardunaren lekukotasunak bilatu nahian.

Pare bat ordu pasatu ditugu horrela, galde-erantzuntan, uhinei begira. Ondoko gela batera eraman naute ondorenean, eta esan didate segituan etorriko dela norbait prozedura azaltzera. Nik nahi baino lehen etorriko da,







Irudia: Cristina Fernández

seguru. Emakume elegante eta patxadatsu bat etorri zait, eta poliki-poliki ekin dio predikuari: bi aste gutxienez, nire jokabidearen arabera; lehenengo bost egunetan hezitzailea egunero, eta bigarren astean bi egunez behin. Bisitarik? Ez, oraingo ez, ikusiko dugu gerora. Adostasun-orria sinarazi dit gero. Bihar eramango naute furgoneta batean, nire moduko beste bekatari batzuekin.

Ea hau azkeneko aldia dudan. Ez al du haurrengan eragirik utziko behintzat. Badakit Iñakik ez duela nire jokabidea onartzen, baina denborarekin gauzak laster leunduko dira. Behin eta berriz esango diot ez dudala gehiago inoiz egingo, badakidala nolako kaltea egiten diodan neure buruari, eta bai, inguruko denei ere bai, ez naizela berriz eroriko, badakidala zer daukadan galtzeko, eta hirugarrenik ez dela izango.

Goizean furgonetara igoarazi nautenean beste lau igo dira nirekin. Bat ezaguna dut lehendik, ez da gure herrikoa baina uste dut han ingurukoa dela. Bakoitza bere lekuan eserita joan gara, paisaiari begira. Oraingo honetan ez naute azken aldian izan nintzen toki berera eraman. Bi orduko ibilbidea egin ondoren ordu laurdeneko geldialdia egin dugu, eta mokadu bat ekarri digute. Beste hiru ordu behar izan ditugu ailegatzeko.

Baso baten ondoan dago eraikina, dotore, zuri-zuri berde artean. Hasieran ez dirudi horren toki txarra bertan bi aste-ko egonaldia egiteko, egonaldiaren gorabeherak ez bane-kizki, noski. Zuriz jantzitako bi hankako asko dabilta etxe inguruko bideetan, emakume nahiz gizon, guztiak isil antzean, inolako istilu eta zalapartarik gabe, atsedean toki honi dagokionez.

Badakit oso gogorra izango dela, lehenengo aldia jasanezina iruditu bazitzaidan, imajinatu bigarrena. Auzoko bategan esan zidan bigarren aldiko tratamenduak eta terapiak askoz bortitzagoak direla, baina baita eraginkorragoak ere. Hura sendatuta dago. Ea oraingo honetan erabat osatuta joaten naizen, tentazioari aurre egiteko arma hobeeekin. Gainera, hirugarren aldian urtebeteko egonaldia eginarazten dizute, eta hori, infernua izan daiteke. Miren hirugarren aldiz eraman zuten, eta orduan esan zuten erabat osatuta etorri zela. Baina ez da lehengoa. Ondo egiten ditu egin beharreko denak, eta badakit senarra eta seme-alabak ez direla beren azalean kabitzen, pozaren pozez. Baina ez da lehengoa, oso isilik egoten da beti, ez dizu begietara begiratzen, eta bere helburu bakarra besteentzat atsegin izatea dela dirudi. Ez dakit harrezkero irribarrerik ikusi diodan.

Banoa barrura. Ahorekin egindako kezko «O» eder horiek atzean utzi behar ditut betiko. Gehiago balio du nire irribarreak.

*Edurne Lazkano Ibarbia*

## • KOADROKO NESKATXA •



<<Aita kontsultategira itzuli zenean Jokin eta koadroa bakarrik geratu ziren. Egongelako alde eta distantzia guztietatik begiratu zion. Hain sentitzen zen pozik, non pianoari tapa altxatu eta tekla zuri-beltzak zapaltzen hasi zen. Hasieran alfer eta baldar, baina apurka-apurka hatzamarrak askatzen eta abiada hartzen joan zitzaizkion, maisu batek eramanda bezala. >>

**I**rribarre egin berri zion. Ziur zegoen. Baina ezin zion inori kontatu. Ezta bere lagunari. Berriz begiratu zionerako malenkoniak jotako betiko aurpegiarekin aurkitu zuen. Baina ziur zegoen segundu bat lehenago irri leun bat eskaini ziola Danel lagunak besoa zakarki asintzen zion artean.

- Jode! Zein lainotan hago! Hiru aldiz galdetu diat inorekin joan behar duan mozerro festara.

- Aaah!, ez zekiat, eta hik?

- Saioak kalabazak eman zizkidak eta ez zekiat.

- Hi Danel, nork duk koadroko neska hori?

- Ez duk ba horrekin joatea pentsatuko! (barrez leherzen). Bah! Ez zekiat eta ezta inporta ere. Etxe honetara etorri gintuanean hor zegoan eta hor jarraitzen dik izutzeko

moduko errukarri aurpegiarekin. Hormako orbana estaltzen dik bana estaltzen dik behintzat, eta nire gurasoek nola ez ditek behintzat, eta nire gurasoek nola ez duten berria erosteko, ez etxetzar hau konpontzeko dirurik ba...

Izan ere, Danelen etxea ez zen batere arrunta, dorretxe garrantzitsua izandako harrizko eraikin sendoa baizik. Herrietik zerbait aldentuta zegoen eta bertara joateko harrizko zubi estu bat igaro behar zen. Autoz joateko punteria zorrotza behar zuen gidariak eta barrukoek gorputza orratzaren pare estutu eta amasari eutsi behar izaten zioten autoa hegalki ukitu gabe igaroko bazen. Gainontzean dena zen handia Danelen etxean. Garaia zen oso, lau solairukoa, eta larre zabalak zituen etxearen aurre eta ezker-eskuinaldeetan; atzealde guztia hartzen, aldiz, harizti aparta, katamixar, azeri, basurde, orein eta mota guztietako txorien gordeleku.



Jolasleku hobarik ez zen herrian bi gazteentzat; nahiz eta eguzkiak nondik sarturik ez izan; nahiz eta Danelen aitak esan eraikuntza bera eta sarrerako kaskorik gabeko armadura herdoildua beste aztarnarik ez zela geratzen jada, behinola aberats eta boteretsu izandakoenik. Mutikoek bila jarraitzen zuten.

Egun batean gapirio eta harlanduaren arteko amarauntzan tela gorrixka bat atzeman zuen Jokinek. Egundoko saguzar ikaratu aldra barreiatu zen ganbarako sabaian haren garrasira. Hezetasunak, hautsak eta pipiaren goseak desitxuratutako belus gorriaren gainean *Arancibiae novilivm* irakuri ahal izan zuten urregoriz brodatutako letratan. Hortzetarainoko dardarez liburua zirudiena ireki, eta tintaz, milaka puntutxuz eta beste hainbeste marratxo egindako marrazkiak aurkitu zituzten orri beilegituetan. Mutikoek aurpegi beteko begiekin begiratu zioten elkarri, eta ogitartekoak sagu-festarako utzita, herriko liburutegira joan ziren nork baino nork bizikleta pedalei azkarrago eraginez. Liburu bina kolkoan itzuli ziren handik laster. Arratsalde hartan, izenez, datez eta gertakariz betetako liburuak irentsi zituzten askaritzat. Erretraturik apenas. Hala jakin zuten nola jende xehea egurrezko etxeetan bizi zen garaian Arantzibiatarrak bezalako handikiek dorre garaiak ireki zituzten babeslekutzat. Nola Euskal Herrian bi bando zeuden lehian orduan, oinaztarrak eta ganboatarrak, eta Arantzibiatarrak bigarrenen aldekoak zirela, eta borroka odoltsuak eta liskar latzak izan zirela bando eta leinuen artean»

Jauntxo haiek boterea eskuratzeko besteren lurra hartu eta era guztietako gehiegikeriak egin zituztela jakin zutenean liburua etxe osterara atera eta su ematekotan hasi ziren. Gero, hobeto pentsatu eta isilpean gordetzea ebatzi zuten, benetako historialari egiten zirenean inork idatzi ez bezalako liburua idazteko asmotan, erretratuz hornitua eta herritar xumeek jasandakoak azaleratuko zituena. Koadroa ere su-

garretan kiskaltzeko arriskuan egon zen, baina aurpegi goibel hark borroarena baino biktima izateko traza gehiago zeukala eta, Danelen su-gosea itzaltzea lortu zuen Jokinek. Gari koloreko iledun neskatxak irribarre ezta eskaini zion mihisetik; begi-ninietan betiko iltzatuta geratuko zitzaiona.

Hurrengo egun batean Jokin ezin izan zen joan lagunaren etxera. Aitari lagundu behar izan zion; hain justu, herriko margolari bati erositako koadroak kontsultategiko itxarongelan jartzen, Jokinek ez zuen aukera galdu:

- Aita, Danelen etxean badago asko gustatzen zaidan koadro bat. Pareteko orbana estaltzeko daukatela dio. Beharbada, herriko elizaren hau onartuko lukete trukean, hain dira elizkoiak haren gurasoak...

Jokinek bete-betea asmatu zuen. Koadro batekin joan eta beste batekin itzuli ziren aita-emeak. Eta aspaldian ahoa itxita zeukan pianoaren burualdean eskegi zuten.

Aita kontsultategira itzuli zenean Jokin eta koadroa bakarrik geratu ziren. Egongelako alde eta distantzia guztietatik begiratu zion. Hain sentitzen zen pozik, non pianoari tapa altxatu eta tekla zuri-beltzak zapaltzen hasi zen. Hasieran alfer eta baldar, baina apurka-apurka hatzamarrak askatzen eta abiada hartzen joan zitzaizkion, maisu batek eramanda bezala. Nola puxika airez, halatsu joan zen betetzen musikaz aretoa. Luzaz jardun zuen. Gero eta grinatsuago, pozarren. Hartan, bi

hanka mehe parez pare irekita sentitu zituen buru gainetik igarotzen. Ez zuen izan begiak koadrorara jasotzeko ausardiarik eta sala erdira eramane zituenean, hatzamarrak pianotik altxatu gabe. Eta hantxe ikusi zuen oin-punta-puntetan, aintzirako zisnea bailitzan bira-biraka, katamixarraren pare saltari, irribartsu, do lehor luze batek, hanka bat aurrean eta bestea atzean lurrean eserita, besoak luzatuta, Jokini begira geratuarazi zuen arte.

- Munduko neskarik zoriontsuena egin nauzu. Zori-gaiztoko dorre hartatik atera nauzu eta gehien gustatzen zaidana egin ahal izan dut: dantzan. Zoragarri jotzen duzu pianoa.

- Bihar moztorro festa daukagu ikastetxean. Etorriko zara nirekin?



## EGIA OTE?

**G**aldu zituen gurasoak; menditik jaisten ari zirela izugarriko ekaitzak harrapatu eta amildegi batetik behera erori ziren. Ordutik Marirekin haserre bizian zegoen; bera zen trumoi eta tximistak zainitzen zituen dama. Goizeko lehen argizpiekin esnatu zen Ekai. Aurreko egunean kirioak dantzan zituela eta, kosta egin zitzaion lokartzea. Horregatik geratu zen denbora apur batean etzanda. Besoak luzatu zituen, eta begiak itxita, arnasa hartu zuen sakon, oso sakon. Bost minutuz horrela egon ondoren, eseri eta jantzi egin zen. Egurrezko etxe txiki hartatik irten eta egun onak eman zizkion Amalurri egun berria ikusteko

aukera emateagatik. Ez zuen hutsik egiten; hogeita bost urte zituen, eta hamabostekin hasi zen esnatzerakoan hori egiten. Gaixo zegoenean ere, kalera irten beharra sumatzen zuen.

Egun luzea zuen aurretik. Mendira igo behar zuen aspaldiko kontu bat argitzera eta bazirudien egun kaskarra egingo zuela. Kezkatzen hasi zen. Behia jetzi behar zuen, gosaldu gura izanez gero, behintzat. Esne apur bat bakarrik ematen zion larreko behiak, baina ez zuen askoz gehiagorik behar izaten. Gurasoak zendu zitzaizkion, eta berarentzako behar beste janari aurki zezakeen etxe inguruan. Ez zuen go-

se handirik igarotzen, eta noizbait jatekorik eduki ezean Orbain lagunak ematen zion behar zuena.

Behiarekin amaitu, etxera abiatu eta ate gaineko eguzki-lorea zuzenduta sartu zen. Sua egin eta gosari apurra prestatu zuen. Atea jo zuten eta irekitzean Orbainen begi handi eta irribarre zabalarekin egin zuen topo. Sartu eta sutondora gerturatu zen. «*Egun on! Ikusi al duzu? Zerua oso triste dagoela dirudi*», esan zion Ekairi. «*Bai, Mari haserre antzean dago! Lasaituko ote da!? Goraino joan behar dut, eta lasaiago egingo nuke bidea euririk egingo ez balu*», erantzun zuen orduan esnatu berri zegoen mutilak.



<<Ametsa edo egia izan, inork inoiz ezagutuko ez zuen abentura bizi izan zuen>>


Gauza gutxiz izutzen zen Ekai. Baina eguraldi txarrarekin mendira igoztea... urduritu egin zen. Izan ere, horrela galdu zituen gurasoak; menditik jaisten ari zirela izugarritzko ekaitzak harrapatu eta amildegi batetik behera erori ziren. Orduetik Marirekin haserre bizian zegoen, beraz zen trumoi eta tximistak zaintzen zituen dama. Amak esaten zionez, Marik ondo zekien okerrak zigortzen. Horregatik ez zuen ulertzen bere gurasoak eraman izana; berak zekienez, aitak eta amak ez zuten txarrik egin. Baina hobe zen kobazuloan bizi zen hori ez zirikatzea. Sentitzen zuen haserrera ohitu eta horrekin bizitzen ikasi zuen.

Egun hartan ezin zion mendira lagundu; ardiekin geratu behar zuen. Kutun bat eman zion lagunari abiatu aurretik, dena ondo joan zedin. Honak, lepotik zintzilikatu zuen. Orbain zelaitik agur egiten ikusi zuen. Mendian gora zihoala, kutuna ukitu zuen amildegi madarikatu hartatik igarotzean. Beldurra sentitu arren ez zen kikildu eta aurrera egin zuen. Bitartean, trumoiak geroz eta gertuago entzuten zituen eta laster hasi ziren lehen tantak. Ez zuen atzera egiterik; zerbaitek bultzatzen zuen bidean aurrera egiten. Ilun zegoen guztia, hala ere, oinazturek bidea argitzen zioten. Hotza geroz eta nabarmenagoa zen.

Maiz egiten zuen gorako bidea Ekaik, baina une horretan lehenengo aldia zela iruditu zitzaion. Bidezidor guztiak ezagutzen zituen arren, beste mendi batean zegoela zirudien, ez zuen eta ezer bereizten. Hormari ahalik eta gehien gerturatuta zihoan bidean gora. Solte zegoen harri bat zapaldu eta lurrera erori zen. Blai eginda zegoen, eta horri, belauneko zauria gehi-

tu zitzaion. Altxatu, begiak itxi eta arnasa sakon hartu zuen. «*Ezin duzu atzera egin Ekai*», esan zion bere buruari.

Zerbait gertatu behar zela sentitu



zuen, eta hotzikara batek bizkarrezurrara gurutzatu zion. Kikildu gabe, aurrera egin eta gorako bidean, euri gogorra zirimiru bihurtu zen. Metro batzuk atzerago nabaritutako hotza leundu egin zela iruditu zitzaion mutil gazteari. Behe-lainoa ere joan zen apur bat gehiago ibili ondoren. Bero egiten zuela iruditu zitzaion. Baina, nola zitekeen horrelako aldaketa bat-batean ematea? Bere irudimena izango ote zen? Begiak igurtzi, aurrera begiratu eta kobazulotik irteten zen argi indartsu bat ikusi zuen. Geldi geratu zen. Amak behin esan ziona gogoratu zuen orduan. «*Zure aitonak esaten zenez, hor bizi da Mari. Hobe da bakean uztea. Beraz, ez gerturatu hona*».

Burua nahasirik zuen. Gurasoak gogoratu eta haserre sentitu zen; egonezina eta beldurra sentitu zituen bate-ra. Erabakia, baina, aspaldi hartua zuen eta bi aldiz pentsatu gabe sartu

zen kobazulora. Sakonetik zetorren argia. Barrura joan ahala, berotasun goxoa nabaritu zuen. Aurrera jarraitu, ahots leun bat entzun zuen abesten eta harri handi baten atzean ezkutatu zen. Emakume eder bat ikusi zuen bere aurrean, eta hari begira egon zen denbora luzez. Halako batean kantatzeari utzi eta «*etorri Ekai, sartu beldurrik gabe*», esan zion.

Ustekabean harrapatu zuten mutila hitz horiek, eta zer egin ez zekiela geratu zen. Emakumearen aurrean geratu zen zutik, hitzik egin ezinean ezinik. Irribarre xume bat zuzendu zion Marik eta berarengana gerturatuta, besarkatu egin zuen gazte umezurtza. Aspaldi nabaritu gabeko berotasuna, maitasuna sentitu zituen Ekaik.

Barruko ha-serrea poliki-poliki desagertu zen. Denbora luzez mendiko damaren besoek inguratuta egon zen. Begiak ireki eta kobazuloan inor ez zegoela ohartuta, zorutzen hasi ote zen galdezka hasi zitzaion bere buruari. Toki guztietara begiratu eta leizea hutsik zegoela ikusi zuen. Bere arropak lehor zeuden, eta belauanean ez zuen egindako zauriaren arrastorik.

Bere modura bazen ere, ulertu zuen gertatutakoa. Mari ez zen izan bere gurasoaren ezbeharraren errudun. Gertatu beharreko kontua izan zen, patuaren nahia. Lasai zegoen eta mendian behera hasi zen. Bidean, inoiz baino indartsuago eta inoiz baino harmoniatsuago sentitzen zen. Ametsa edo egia izan, inork inoiz ezagutuko ez zuen abentura bizi izan zuen. Goizero Amalurri eskerrak emateaz gain, hil artean irribarre zabala eskaintzen zion mendi hartan bizi zen dama ederrari.

*Zuriñe Velez de Mendizabal*



## AGUR

**P**ello Ariztimuño naiz, Errotaburu baserrikoa. Bati baino gehiagori zail egingo zaio egin behar dudana egin aurretik hau idatzi dudala sinestea, baina, idazten jarri banaiz, errudunak errudun sentiarazteko egin dut, garbi esanda. 15 urte dauzkat, eta DBHko 1. mailan nabil. Mundu guztiak daki ez naizela oso trebea eskola kontuetan. Birritan errepikatu behar izan dut, eta, amari eta aitari kontrakoa esan badiet ere, ez naiz askorik saiatu hori hala ez izateko. Errepikatu egin nahi nuen, gelaz aldatu, edo, hobeto esanda, beste gelakide batzuekin probatu; baina alferrik izan da. Ez da gelakide kontua. Ezin da ezer

Gure amak ez zuen ulertzen, ordea, 13 urterekin bizarra moztu nahi izatea. Umea omen nintzen. Eta nola demontre esplikatatu behar nion nik ez nuela nahi inork *homo no sapiens* deitzerik? *Pellaris* deitzea ere ez zait batere gustatzen, baina hori behintzat ez da nire kontrako ezer. Barre ederrak egin zituzten nire lepotik gure 4L zaharrak bide erdian pot egin eta eskolara berandu heldu nintzen hartan! Ordotik, sekulako lotsa pasatzen dut gure ama traste zahar horretan bila etortzen zaidan bakoitzean. Baina ez da hor amaitzen nire ezizenen zerrenda; *Kaxe*, *Ximor...* ez dakit zenbat gehiago ditudan!



Irudia: Cristina Fernández

<<Gauza asko ukatu dizkideate, dena, zergatik eta baserritar izateagatik. Bai, baserritar izateagatik, eta euskaldun izateagatik>>

egin; baten bat kenduta, berdinak dira beste guztiak: puta seme-alaba galantak.

Hasieran, neure buruari botatzen nion errua. Ze kulpazuten, ba, besteek, finaleko partida hartan atea hutsik egonda baloia kanpora bidali banuen, edo Espainiako hiriburua Madril dela ez banekien? Min eman didate, min handia, baina ze erantzun behar nien *homo no sapiens* deitu izan didaten bakoitzean? Okerrena da harro asko dabilela Kevin, hasierako *hominido* hura baino ezizen zorrotzagoa asmatu duelakoan; nire espeziearen bi ezaugarriak hartzen omen ditu: nire edertasun berdingabea eta nire jakintza gorena.

Uste nuen ohituta nengoela besteen burletara, baina nazkatu naiz. Gaur, nire bizitzako egunik zoriontsuena izan da, eta ez dut jarraitu nahi betiko zaborra irensten; ezin dut gehiago. Gauza asko ukatu dizkideate, dena, zergatik eta baserritar izateagatik. Bai, baserritar izateagatik, eta euskaldun izateagatik. Eskolan ez baitago modan baserritar eta euskaldun izatea; konbinazio hori ez dute onartzen behin ere kakarik zapaldu ez duten gelako kalekume odolgabeek. Animalia bat naiz denentzat; behi, oilo, txerri eta abarrek bizi den animalia bat gehiago; eta, abereak bezala, makilakadaz erakutsi beharrekoa.



Okerrena da ohitu egin naizela tratu horretara, eta nero-  
ni ere animaliatzat hartzen hasi naizela neure burua.  
Inork ez du eseri nahi izaten nire ondoan, eta, tutoreak  
lekuz aldatzen gaituen bakoitzean, «*que no me toque al lado  
del kaxe*» esaten dute askok, nik entzuteko batere kuida-  
dorik gabe. Batzuek usain txarra dudala esaten dute, eta  
agian horregatik apartatzen dute mahaia nirearen ond-  
tik. Baina nik ez diot neure buruari usain txarrik aditzen.  
Ia egunero dutxatzen naiz. Gozoa jartzen zait, ba, ama!  
Baina esaiezu hori nire urtebetetze egunean kolonia poto  
hura utzi zidatenei! “Eau de simaur” markakoa omen.  
Kolonia balitz sikiera! Behin Iñakik gonbidatu ninduen  
bere urtebetetze festara, baina Kevinek esan zion ni gon-  
bidatzen baninduen bera ez zela joango, eta, jakina, bera  
joaten ez bazen, gelako beste inor ere ez. Zer egin behar  
zuen, ba? Pena ere sentitu nuen, hitzak ezin asmatu-  
rik nola ibili zen ikustean. Gizajo halakoa! Mutil ona dela pen-  
tsatu izan dut beti, eta sinetsita nengoen Kevinengatik-eta  
izango ez balitz nire laguna izango zela. Baina besteak be-  
zalakoa da orain; garbi ikusi dut gaur, denak taldean eto-  
rri zaizkidanean. Asko ziren, baina nik bere aurpegia ba-  
karrik ikusten nuen, begiak amorruez gainezka. Zergatik,  
Iñaki? Zer egin dizut?

Lasai, ez ezer esan, badakit erantzuna: funtsean inbidia  
didazu, libre naizelako, ez naizelako ez Kevinen ez beste  
inoren morroia. Eta, gaur, zuk bakarrik ez, denek izan

didazue inbidia, Nerearekin dantzan egin dudalako; bai,  
zuen artean Kevinek bakarrik izan du aukera, eta zuek  
denok inbidiak akabatzen egon zarete. Badakit niregana  
Antton maisuak eskatuta etorri dela, baina etorri egin  
zait, eta hori niretzat nahikoa da.

Eskolako neskarik politena, alajaina! Dantzan traketsa  
naizela pentsatuko zuen seguru asko, bere oinekin traba-  
tu bainaiz etengabe. Baina berdin dio. Sekula ez zait hala-  
ko gauza ederrik gertatu; Bizkor-ek masaila miatzatzea  
baino samurragoa izan da, ardiak umea nola egiten duen  
ikustea baino zirrarragarriagoa... Sorbalda jarri dizkit be-  
re esku leunak, eta nik dardara batean sentitu dut gorputz  
osoa. Kanta osoan zer esan pentsatzen aritu naiz, baina ez  
dut aurkitu berari esateko moduko hitzik, eta, kanta  
amaitu denean, irribarre egin, eta lagunengana joan da.  
Gehiegi izan da hori niretzat. Politegia, egia izateko. Baina  
egia izan da! Ez da ametsa izan!

Horregatik ez dut beldurrik pasatu komunean; eta  
zuek gogorrago egin didazue irribarre ezpainetan nue-  
la ikusita. Baina gaur zuek galdu duzue, eta nik irabazi.  
Eta ezingo duzue errebantzarik hartu, garaipen hori ni-  
rekin eramango baitut betiko, Nerearen irribarre goxo-  
rekin batera.

Maidier Ziauriz

# UNED-BERGARA

Matrikula zaitetz!

*Ezin baduzu egunero joan klaseetara,*



*eta garai batean utzitako ikasketei heldu nahi badlezu,*



*karrera berri bat hasteko gogoia baduzu,*



*hizkuntzak ikasi... edo zure prestakuntza osatu*

▶▶▶ HAU DA BEHAR DUZUN UNIBERTSITATEA!



URRUTSIKO UNIBERTSITATEAK ESKAINTZEN DIZUNA

- 20 KARREERA UNIBERTSITARIO BAIKID EGITAKO
- IKASKETA-PLAN BERRITARA SARTZEKO AUKERA
- DOKTORATZA IKASTARMIK, GRADUONDORAK, MASTERRAK...
- ARABU (GARRIKO) IKASKUNTZA
- TITULATZA TEL. ENBARRAK EBA JARRASPEN PRESENTZIALA
- IKASTARI BIRTUALAK
- HEDAKUNTZEN ERREKORIKO IKASKUNTZA
- USKORO IKASTARMIK
- JARDURAK KULTURALAK
- UNIBERTSITATERA SARTZEKO IKASTARMIK



San Martin Enparantza 2/g  
Plaza San Martin s/n  
30570 Bergara  
Tlf: 943 709 033  
info@bergara.uned.es  
www.uned.es/ca-bergara

UNED-BERGARA IKASTETZE ELKARTIA  
CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA

## Bidaia

**B**idaia bat hasiko nuke  
 guztia berdin, baina, dena desberdina den lekura,  
 kaleak, kaleak eta kaleak besterik ez dauden lekura  
 kaleek ingura nazaten, begiek laztandu nazaten.  
 Nire hizkuntza ezezaguna bihurtzen den txokora  
 keinu hizkuntzan mintzatzeko.  
 Bidaia bat hasiko nuke  
 begi berdinekin, dena desberdin ikusteko,  
 begiradari 180 gradutako bira emateko  
 eta buruan dudan zabor guztia, erretzeko.  
 Bidaia bat hasiko nuke  
 hemen dena berdin dagoen bitartean, egoera ezberdina sortzeko,  
 zure gabeziarekin sufritzeko, kuaderno gorrian idazteko  
 eta abesti lasaiekin negar egiteko.  
 Bidaia bat hasiko nuke  
 nire barnean dauden, baina ezagutzen ez ditudan sentipenak bisitatzeko.  
 Egunerokotasunak eraiki ohi dituen mugak deusezteko.

### 30 Metro

**H**ogeita hamar metro.  
 Hogeita hamar metro kuadro, kaleak husteko  
 hogeita hamar metro kuadro jateko,  
 lo egiteko, kaka egiteko  
 atsedena hartzeko.  
 Hogeita hamar metro kuadro dena hartzeko  
 dena sartzeko, lasaitasuna sortzeko  
 askatasuna lortzeko.  
 Hogeita hamar metro kuadro, osasuna galtzeko.  
 sukaldearen berotasuna osatzeko,  
 ohearen epela dastatzeko,  
 gorputzaren biologia ikasteko eta hortzak garbitzeko.  
 Hogeita hamar metro kuadro bakarrik bazkaltzeko  
 irratiarekin afaltzeko  
 gosaria prestatzeko  
 eta eguzkiari tokia uzteko.  
 Hogeita bat mende  
 arkitektoak azti bihurtzeko.

Iker Zaldua

## EGUNERO

**E**gunero lanera bidean kartzelaren aurretik pasatzen nintzen eta egunero ez nuen ulertzen nola onartzen dugun hau guztia.

Eta orain, orain barruan nagoela, oraindik ez dut ulertzen.

## NEGURIA

**N**egua zabaldu egin da.

Noiz eta orain eguzkia kokotak gorritzen hasia zenean.

Iragarria egonagatik ere, sugeak ez du azala aldatuko eta atzean utzi uzten diren bezala oroitzapenak eta zoriona; memoriaren azala.

Haritza ez da, neguoro legez, elurrari aurre egiteko zentimetro batzuk makurtuko makurtzen diren moduan ilusioak eta bizitza; ausentziaren elurra.

Borroka beste bat da.

Ez zaitut ahaztu nahi. Ez dut egingo.

## MISTRAL

**M**istral belaontziak zazpi metro luze eta mila kilo eskas zituen Bartzelonako portutik abiatu zen egunean. Trabesia txikietarako soilik prestatua,

bidea egiten hasi zen itsaso zabalean.

Arkakuso bat elefantearen azalean.

Antillak, Karibe, Panama. Tuamotu, Tahiti, Fiji. Madagaskar, Timor, Mozambique.

1972an Lekeitioko portura itzuli zen lau urte eta 38.000 milia egin ondoren.

Munduari buelta eta erdi eman ondoren.

Ezagun dira itsasoan hondoratutako ontzi erraldoiak. Ezagun dira portura itzuli ez diren barku itzelak. Ezagun dira sekula portutik atera ere ez direnak.

## MOSKU'80

**M**oskuko olinpiadetan, adibidez, urrea irabazi zuen tximeleta estiloan.

Gero, badakizue fama eta dirua nolakoak diren, arazoak pilatzen joan zitzaizkion eta iluntasunak jan egin zuen.

Baina igerilari bikaina omen zen, onenetakoa.

Horregatik harritu ninduen, agian, etxeko bainuontzian itota aurkitu zutela jakiteak.

## ANTXETA SOLTEAK

**E**guna erortzera doanean etxeko terrazan nago jarria.

Haize leunak adatsa dantzatzen dio leihoan dagoen neskatoari.

Plater hotsak entzuten dira bizi-bizi elkarren kontra, barre algarak, ezagutzen ez duda hizkuntza bat.

Haize otzanak begiak ezkutatzera behartzen du neskatoa.

Bat-batean argi bat itzali egin da antxeta solteak zerutik igaro.

Orduan konturatu naiz udako gau bat hastera doala.

## ESTAS COMO UN QUESO

**K**opa batzuk sobera izan arren, eskertu nion gezurra: «Estás como un queso».

Aspaldi da, baina, belarri hauek horrelakorik entzuten ez dutela.

Eta ohe ertzean, denborak bere bidea egiten duen bitartean, ohartu naiz zeinen erraz lizundu den nire gazta aroa.



## Belar-ikatza

Beharbada umezaroarekiko lera izaten dugu ezin dugulako amestu jadanik, ezin dugulako egiazko ametsik izan, ezin garelako hunkitu, ametsekin, bidaiekin, abentura liburuekin...

Baina harritzen naiz norbaitek umezaro zoriontsu bat izan duela esaten duenean, zeren «ego» antzeko bat besterik ez baitugu sentitzen gehienetan, eta umezaroa «ego»aren ukamena besterik ez da.

Litekeena da norbaitek jolasaldiak, umezaroaren eguzki horren ametsak eta zirrarak gogoratzea, erabateko errespetu eza eta bortizkeria (psikikoa soilik kasurik hoberenean) ahaztuz aldi berean, baina orduan berak daukana ez da umezaro zoriontsu baten oroimena, ahaztutako umezaroa baizik.

Bizitzak dena erlatiboa dela irakasten digunean, zentzua eman diezagukeen guztia, edertasuna, askatasuna, esentzialtasunak... gauzen arabera direla erakusten digunean, bizitza bakarrik absolutua dela, heriotza bezala, etsipenaz oroit daiteke zaharra garai haietaz

zeintzuetan amesteak betetzen zuen, baina koldarra da nekaldu gabe oroitzea.

...

Eguzkiak zuhaitzen arnasa funditzen du kukuletan, azkeneko eguzkiak eta errekek haraneko sakon tokietan hiltzen dira printzerik ezagutu gabe, puskatuak.

...

Egun batean ene alabaren batek, agian, zera esango du nire hilobiaren alboan: «hemen bukatu ziren P.L.T.ren urratsak, hemen amaitu zen bidea», baina nik, orain, oheari begira, gaurko bidea hemen zentzen dela pentsatuz, ezin dut amestu Descartesek esaten zuen bezala ene gorputza diamantea bezain ustelezina den gai batez egina denik eta omen dauzkan hegoz... ezin dut.

Heriotza bat amestu behar dugu: azkeneko argi-odol bat badela, izango ez garenean mundua ezberdina izango dela eta gogoratuko gaituela, eta amestuko gaituela. Bidaiekin egin behar dugu amets: ez hegan egiteaz, eguneroko jatekoaz ez kezkatzeaz, etxe bat edukitzeaz, jakiteaz eta irakurtzeaz, lana edukitzeaz, ama lurrean bizitzeaz, ostiral gau batean etxearen berora iritsi edota film bat ohean ikusteaz afari on baten osteko te gozoa ahosabaian, gero lokartzeko beste astebete ez ote den pasako pentsatu gabe, eguna hiltzera doanean gure eguzki hau zenbakiarri izan ote den pentsatu gabe.

## Anktartiar

Ni hiltzen naizen eguna ez da ezer izango,  
badakit,  
ez da ene bizitzaren bidearen amaiera  
izango.

Nire azken urratsa bakarrik izango da  
ume haren hilartitz gabeko eza,  
gazte haren argirik gabeko ahanztura,  
zahar horren orduz beteriko  
nahia

...

Gosez eta logurez hotzean gabiltzanean,  
gainontzekoen artean bakarrik gaudenean,  
beti besteen artean, ezin dugu pentsatu  
hemen izan garela jadanik,  
eta hemen izango garela haiekin  
berriro.

Agian egungo munduaren bidaiaren  
ezaugarri da  
maiz errailetan sentitzen dugun  
gutarron artean inoiz ez egoteko zirrara  
hori,  
gurean inoiz ez egoteko zirrara,  
ez dakit.

Ziur aski greziarrek ez ziren sarritan  
horrela  
sentitzen, bestela ez bailukete sinistuko  
denbora  
zirkulu bat zela, guztia errepikatzen zela  
itzultze eternal batean.

Dakidan bakarra da batek ezin duela  
horrelakorik  
amestu giro horietan zeinetan  
beti sumatzen duen  
«berria» dela,  
«bestea»;  
eta gure bizitza une horietaz betetzen da,  
eta beti,  
jaiotzerakoan eta hiltzerakoan bezala,  
berria gara,  
bestea.

**A**ntaktiar iraganalditan gelditu baziren hi re begien distirak  
liken arraro gorri eta berdetan, haitz ezezagunen gainean,  
zetazeo hezurren kurba biluzian, zeru grisaren azpian,  
eztainuzko eta merkuriozko haize haietan, hire izena duen  
senaian,  
eta orain hire lamiaren ondoan amaitzera bahator:  
eman iezadak eskua, ez egin zaratarik, eta eseri gaitezen  
lur beltz hau hartzera, eta ura.

Ermitauak badaki eta gorde egiten du,  
lapek badakite beren ezerezean,  
itsasaluak badaki eta bere  
garroen dantzan  
dago, zirripedioen burbuiletako  
abesti heze ahulean  
dago, eguzkitan,  
eguzkitan nire beldur  
den arrainak badaki,  
aukak badaki eta izkirak  
ere bai, liken urtsuetan dago...  
bizirik nago, jarraitzen du  
bizitzak, eta bizitza hau, egun eta  
gau hauek ezingo ditut  
neureganatu,  
badakit.

# Mila eta bat

**M**ila eta bat eguneko istorioak. Istorioak kontatu baino, zuri, irakurleari eskatzen dizu istorio hauek asmatzea. Eta asmatzea baino, sentitzea. Egilea gidaria baino ez da izango. Ez dakigu nor den, berak halaxe nahi duelako, baina bigarren pertsona baliatuko du zugana hurbildu nahian. Areago, barnean duzun sentsibilitatea loratu nahian hainbat zein den bere asmoa:

«*Lore bat —hartu— eta hostoz hosto —erantzi— eta harek zu ere —amets— eta harek zu ere —erantzi eta hostoz hosto —hartu— lore bat...».* (Sarrionandia).



Argumentua Barneko Psikomotrizitate Eskola batean kokatzen da eta, lehen esan dudan moduan, sentimenduak jorratzen dira batez ere. Baina, horretaz gain, azpimarratu nahi nituzke liburua-ren ezaugarri nagusietariko bi: batetik, edozein garaitan koka dezakegun liburua dugula gure esku artean eta bestetik, egilearen objektibotasuna:

«...y, en la disparidad interpretativa, que no en la descriptiva, surge la intencionalidad...».

(Pierre Lancre).

Egileak (Eskolako irakaslea) gidatuko dizkizu ariketak. Bakoitzean, pertsonaia

baten gonetan sartu behar zara, gezurrak sentitu barik ariketa gaindituko baduzu. Eta, ariketa bakoitzak 24 ordu badirau ere, kontuan hartu behar duzu, errealitatean, askok euren bizitza osoan besterik ez dutela.

Beno, laburtzearen eta liburua erosten anima zaitezten proposatzen diren lau ariketaz baino ez dut jardungo.

## 1. ariketa: jipoitua

Honek gizon-laguna du, baina ez dirurik, ez lanik (Erregistro zibilean: bere sexua), ez sindikatzeako eskubiderik, ez no-

ra/norengana jotzeko modurik eta janariaren truke edozer pairatzera heldu da. Gizon-lagunak, berriz, lana du, etxea, eskubideak eta, etxera lansaria eramaten duenez, etxeko patroiz du emakumeak. Horrekin guztiarekin ere, koldarra da, eta potroetan sexurako hazia baino ez duenez, bere koldarkeria emakumearen gainean hustu behar du, ostiaka.

Ariketa ez da erreza, baten bat izan behar duzulako ondoan ostiatzeko prest. Horren aurrean, zuk zeuk jipoi dezakezu zeure burua. Lasai, gure gizartean gogoragoak entzun dira.

Ondo jipoituta eta gorputza minduta duzula larrua jotzeko.

## 2. ariketa: torturatua

Pertsonaia honek aurreko ariketan azalduko ezaugarriak izango ditu. Eta torturen artean tortura psikologikoa aukeratzea gomendatzen dizut; batetik, ankerrena delako eta bestetik, inork ikusi ezin duelako. Dena den, inor konturatzaren bada, zu lasai, ez da ezer gertatuko.

Pertsonaia honen gonetan sartzeko gutxietsi, iraindu, kakaztu behar duzu zeure burua, hogeita lau ordu jarraian, ahalik eta irain krudelenak erabiliz. Ezer bururatzen ez bazaizu, hemen dituzu adjektibo batzuk: emagaldua, putakumea, urdanga, gangarra, garbitzeko baino ez duzu balio, traketsa halakoa, zurea duzun itxura, zu baino inutilagorik, baldarra... Eta sentitu esaten duzuna, pentsatu hori baino ez zarela.

Nekatzen bazara, ez kezkatu, gogoratu Afrika, Hegoamerika, Asia eta beste herrialde batzuetako emeak, euren egoera, bizimodua, janzkera, etorkizuna eta jarraitu gogor hutsaren hurrengo sentitu arte.

## 3. ariketa: bortxatua

Bortxaketa, zakilaz zein makilaz. Ariketa honetan makila erabili behar izango duzu, iltzez betea bada hobe (bada-kizu zer egin behar duzun). Pertsonaia edozein eme izan liteke eta sentimendu higuigarrienak ezinbestekoak dira, besteak beste: zikin, lohi, likits, lizun nazkagarri, higuigarri sentitu behar duzu zeure burua, jakinik ez duzula ezer egin. Ariketa hau ere ez da erraza, ze bortxaketa jasandakoan zuri leporatuko dizute errua, badakizu emea zara eta batzuek arazoak omen dituzte euren grinak kontrolatzeko edo baliteke bortxaketak berak euren nortsuna sendotzea.



#### 4. ariketa: hila

Baliteke ariketa zailena izatea, hil ostean ez duzulako aukerarik izango, dena amaituko zaizu segundo baten. Heriotzari egin behar diozu aurre eta bakarrik egoteari, ze maite zintuenak hil egin nahi zaitu. Zuk badakizu, baina ezin diozu inori ezer esan inork sinetsiko ez dizula-

ko. Gutxien espero duzunean hurbilduko zaizu, labana aterako du eta zure gorputza zulatzeari ekingo dio. Orduan, azken amasa hartu baino lehen pentsatu, hiltzen zaituen bitartean, irakurleok zenbat hiltzen zaituzten zenbatzen ari garela.

Eta, ariketa guztiak sentitu ondoren pentsatu zoro hori ez dela gizona, ema-

kumea baino. Eta, orain, itzuli berriro lehenengo olerkira:

«Lore bat —hartu— eta hostoz hosto —erantzi— eta harek zu ere —amets— eta harek zu ere —erantzi— eta hostoz hosto —hartu— lore bat...». (Sarrionandia).

*Arantxa Aurrekoetxea*

## Une laburreko gogoetak • Bizitza osorako ariketak

I  
Bizitza,  
pizteko hitza  
mintza

II  
Gure(a) eza  
gutuz.

III  
Egin, ez egin, desegin.  
Egiten dena egiten dela  
beti egin

IV  
Alferkeria nora  
Burua hara

V  
Etsi, bai  
baina, etzi.

VI  
Aldea,  
alde eginez  
alde batera.

VII  
Sugeari nola begiratu,  
hala hezi edo hesitu

VIII  
Sugeari nola begiratu,  
hala hezi edo hesitu.

IX  
Etsaiak,  
inoiz ez  
alaiak.

X  
Nori eta inori-ren artean  
Hi

XI  
Hi, ni  
plurala larregi


XII  
Eme,  
ene-ren aurreko?

XIII  
Errealitatea,  
zentzumenen egia  
makurra.

XIV  
Egun  
Ka  
Ari  
Egunkari.

*Arantxa Aurrekoetxea*

# Sugus



<<Obsesio palindromikoa, leku guztietara berandu iristeko edo ez iristeko...Sugusen paperak ispiluan irakurtzen nituen, sugus zirela baieztatuz. Eta ama ama eta irriak irri eta errua urre>>

**S**ugusak beti sugus. Betidanik gainera. Txiki-txikitatik izan dira nire bizio, nire gozagarri, aringarri. Gainontzeko dena zaplazteko denean, hor izaten dira sugusak, laztan leunak. Sugusak beti sugus. Errua ordea, errua urre bilakatzen da. Harrigarria, baina halaxe. Dena zure errua dela esaten dutenean, dena oker dagoenean, hor dago atea zabalik, bestalderako zubia. Bitartean, ordea, sugusak. Ondoren ere bai. Besterik ez agian. Hemen edo han, sugusak beti sugus.

Eguna goizean goiz hasten nuen garai haietan ere, lan egiten nuen egun haietan, bakarren bat eramaten nuen patrikan. Plazebo dosi txiki bat. Etxerakoan, autobusean jaten nuen ia beti. Horia, laranja edo urdinen bat, eguneroko grisa kolorez jantzi nahian. Gainontzekoan egunak

zuri beltzekoak ziren. Bata bestearen gainean pilatzen ziren, inolako zentzurik gabe. Bat gehiago edo gutxiago, lehena edo azkena, denak berdinak. Sekulako piloa, sekulako zama. Ordu bakoitza, egun bakoitza, tona bat gehiago zen. Gauak berriz amesgaizto ziren. Bitartean nora joanik gabe, inora joan nahi gabe nenbilen. Ez nuen artean irtenbidea ikusi.

Sasoi hartan ezerezetik gertu nenbilen, denboraren zama ia estalita, ilunpean. Eta argia piztu zen, matraileko bat emanez errutinari. Etxerako bidean, autobusean sugus urdin bat jaten ari nintzela hasi zen dena. Urdina zen bai, nire guskoena. Sugusak beti sugus. Txikitako garaiez oroitu nintzen, amaren faltaz eta aitaren gerrikoaz. Nire errua zela eta gerrikoa. Eta nola amamak ne-

garrez ikusten ninduenean sugus bat ematen zidan. Bai, hori dena gogoratu nuen, beste askotan bezala. Baina oroipen berri bat segidan, itsutasunean kandela piztu bat. Ez negarrik egiteko eta ispiluan begiratzeko. Ispiluari so jarri, leihotik begira bezala, eta bestaldean ez zela arazorik, irriak irri zirela, errua urre bilakatzen zela eta sugusak sugus zirela. Sugusak beti sugus. Eta hala suertatu zela, ez zela nire errua ez inorena. Niri bizitza emateko berea galdu zuela. Baina ama ere ama zela bestaldean. Eta beste sugus bat.

Eta musu bat. Amamaren ahotsa zen. Berak ere zerbaiten falta, norbaiten falta eta agian gerrikoa ere ezagutuko zituen. Agian. Baina sugusak beti sugus.

Hurrengo egunean bertan erosi nuen ispilu handi bat. Bi metro luze eta metro erdi pasatxo zabal, egurrezko marko eta guzti. Egongelako paretan zintzilikatu nuen, bigarren ate bat. Egunero egoten nintzen begira, minutuak, orduak. Lanetik etorri eta ispilu aurrera. Bertan ahazten nituen eguneroko akatsak, builak, nire errua zela eta kito horiek eta gaueko amesgaiztoak. Bazirudien bestaldean dena desberdina zela. Erlojuaren orratzak ere kontrako aldera, pentsa! Ordura arte zama ziren tak-tik horiek aringarri behar zuten izan bestaldean. Area grabitateari gailenduz. Eta amamak zioen bezala, noski, amama beti amama, irriak irri eta sugusak sugus bezala, errua urre zen han. Erlojuari begira, haren islari begira egotea gustatzen zitzaidan, obsesio palindromikoa, leku guztietara berandu iristeko edo ez iristeko. Baina ez nuen inora joan nahi. Sugusak betisugus. Ez alde hartako inora behintzat. Nahiago nuen erlojuaren islari begira egon, denbora galdua irabazten bezala. Sugusak jaten nituen, baina ez jada autobusean, ez bainintzen etxetik irteten, ez bainuen paretan zintzilikatu nuena beste aterik ikusten. Sugusak beti sugus. Sugusen paperak ispiluan irakurtzen nituen, sugus zirela baieztatu. Eta ama ama eta irriak irri eta errua urre. Joko berriak asmatzen nituen: inoren ero ni eta nik enara neraman amaren aranekin bezalakoak. Arkatza eta papera hartu eta frogatzen nuen behin eta berriz ama ama zela eta irria irri eta errua urre eta beste hainbat hitz joko. Azkenean berdin idazten nuela eskuinetik ezkerrean zein ezkerretik eskuinera ohartu nintzen. «Erru» idazten nuen orritxo batzuetan, islan urre bilakatu zirela ikusi eta patrikan sartzen

nituen. Patrika bete-betea nuen. Jada ez nintzen lanera joaten. Han nire errua izaten zen dena, txikitzen bezala, dena gaizki egiten nuen. Sendabidea banuen, ordea, ispilua nuenetik. Paretan zabaldua ate bat, beste norabait, pitzadura bat elur izoztuan. Goizean jaikitze arrazoi bat bihurtu zen, sugusez gain beste bat, paradisu bat. Loa ere gozoagoa zen bolada hartan. Han begirata zamak arintzen ziren. Irtenbide bat zen, bakarra. Lekuz kanpo egongo ez nintzen mundu bat ikusten nuen ispiluan. Neure islari begira egoten nintzen: erlojuak kontrako eskuan ikusiz, orratzak denbora oparitzen.

Pareko bikiari eskua ematen nion, hark ere nola eskua gerturatu zuen ikusiz. Irri egiten nion, hark ere nola irri egiten zuen ikusi. Irriak beti irri. Eta nik zerbait esatean hark ere bai, eta kontrako aldera esaten nion eta hark ulertu. Idatzi ere egiten nion, eta hark kontrako aldera nola idatzi zuen gauza bera erakusten zidan. Eta halako batean etortzeko egin nion eskuaz eta hark ere berdin erantzun. Orduantxe egin nion buruaz keinu, baietz, hara joan nahi nuela. Berak ere baieztatu eman zuen une berean. Hura zen zirrara!

Sekula aurkitu nuen irtenbide bakarra zeharkatzerantz nindoan, kaiola utzi eta bizitzen hastera, nire lekuan, merezi nuen lekuan. Biok batera hasi ginen ispilurantz, geldo, beldurrez bezala. Esku bat lehenik eta ispilua biguna zen, ur jauzi bat bezala. Hanka bat ondoren, bikiak eta biok batera eta saltotxo bat. Zera bat sentitu nuen, kilimak edo sabelean, dutxatik irten berri bezala baina lehor eta bestaldean jada.

Ordutik hemen nago erlojuaren tik-tak soinu berrira eta bihotza ezkerrean izatera ohituta. Patrika gainera urrez beteta. Beste aldean nintzela, hemen primeran izango nintzela uste nuen. Baina urrea gutxitzen doa, ordea, eta amesgaiztoak itzuli dira. Ispiluko bikiari ere nabari diot desilusio bera aurpegian. Amildegia ertzeko egunetan bezala, loari beldur diot berriz, han agertzen baitzait aita, gerrikoa, «hire errua duk» eta labankadak; labankadak eta odola aitaren oihuak esnarazten nauten arte. Orain, ordea, ez dut bestaldean itxaropenik. Ez bestaldean ez inon. Kaiola simetriko berean nago. Sugusak bakarrik gertatzen zaizkit. Sugusak beti sugus.

«Orain, ordea,  
ez dut bestaldean  
itxaropenik.  
Ez bestaldean ez inon.  
Kaiola simetriko berean nago.  
Sugusak bakarrik  
gertatzen zaizkit.  
Sugusak beti sugus»



## Koloreak Mintzo

### GORRIA

Sorterritik dakart jantzi gorria,  
eta halabeharrak aginduta izan dut beti  
zoriona eta loria;  
beroenen artean beroena naizenez,  
lurtarren odola bete dut adorez.

Enbor eta kearen artean nintzen ernatu,  
supazterretan,  
hainbat istorio miazkatu, girotu eta berotu  
bitartean;  
arerioaren oldarrek, bestalde,  
han eta hemen, etenik gabe,  
sua pizteaz gain,  
nire gorritasuna areagotu dute.

Amorruak eman dit hazia zein bizia,  
eta,  
txori, lore, harri, mendi... zer guztiei  
erantsi diet nik merezi duten dotorezia;  
badut, ordea, beste balentria,  
ustekabeen baititut elkartzen  
amodioaren doinua eta mindutako errabia.

Askotan lagundu nion ARES handiari,  
bere gerlariak etsita,  
bakarrik ekiten zionean borrokari;  
amarruetarako behar zuen horrek kemena,  
beste batena zelako berak gehien maite zuena;  
erasoaldia, ordea, ez zen izan berea,  
gorriz jantzita etorri zitzaionean VENUS maitalea;  
odola, sua eta amorru gorria  
behar izan zituen VULKANOK  
berreskuratzekeo maitasun-zoria.

### HORIA

Ekialdetik natorrela dionik bada,  
neuk ozta-ozta dakidan arren,  
noiz mendebaldekoa, noiz hegoaldekoa den  
haizea;  
garia izan dut beti ordezkari,  
zelaia orrazten dituztenean,  
nahiz urruti,  
ikusten delako hori hori  
aberats plantak egin asmoz,  
Urrea hartu nuen mozzorro;  
ospearen atzetik ibili nintzen garaian,  
galdu nituen lagunartea eta fedea;  
ezerk asetzen ez ninduela ikusi nuenean,  
aurkitu nuen Jakituria.  
Dena izan zen orduan grazia,  
gabeziaren ondoren  
berreskuratu nuelako izate horia.

Lurraren erdigunetik lur azalera biraka nabilela,  
mila bider mila,  
auskalo zenbatgarren aldian  
aurkitu izan dudan inoiz Dragoi Horia!;  
heriotza ote dakar horrek azpian?  
Urrea, ospea eta eguzki lorea ditut ordezkatzan,  
baina, kontuz!,  
Herioa ere askotan ezkututzen delako Horian.

### URDINA

Hegoaldea, iparra, ekia zein mendebaldea,  
ostertzeko punta bat ala bestea  
berdin,  
babesten ditudala diotsuet zintzo .  
Goian edo behean,  
supituki edozein lekutan,  
ageri naiz beti,  
euri-jasen ostean edo  
lainoen artean.

Nondik natorren,  
ez dakit;

nork sortu nauen,  
ez dakit;  
baina,  
Urdina naizen aldetik,  
zerua denona dela  
egia da,  
nahiz askotan esan,  
hitzekoak direla Beltza eta Gorria,  
aitzitik,  
gezurti jaio zela Urdina.

Gezurti izatera bultzatzen banau ene senak,  
ez dakit nolatan,  
jainkoak ditut jantzi  
hainbat leku eta lurraldetan:  
AMONek Egipton,  
SHIVA eta KRISHNAk Indian,  
ordezkarizat hartu naute

## ZURIA, BELTZA,... ETA BESTEAK

Bizirik ez dago,  
ernatzen ez bada hazia,  
eta,  
hortik datorkit niri  
ugalkortasuna pizteko abilezia.  
Arraza garbia, nahasi gabea bada  
aurreko hirurak bereizten dituen ezaugarria,  
hemen gatozkizue, azkenik,  
Zuria, Beltza, Berdea...eta  
ni neu, Laranja, iji eta aja.

Zuria izateari utziz gero,  
iritsi ez nintzenez Beltzaren barrunbeetaraino,  
hala ere,  
alaitasuna dut tinko gorde,  
eta,  
orduz geroztik gaur arte,  
Grisa naizela errepikatu didate.

Jakituria omen da bizitzaren ardatza,  
eta,  
hori aurkitu asmoz  
igaro ditut negu latzak;  
ez naiz, oraingoan,  
datorrenaren beldur,  
baina, jakin ezazue,

Gris jaiota ere,  
zahartzaroak egingo nauela jakitun.

Koloreak ez, loreak baizik,  
dira  
Lotoa, Hiazintoa eta Dalia:  
bizi berriaren leloa  
bata,  
gorpuzkera segailekoak  
besteak,  
adur doi eta eraman onekoak izan dira hirurak,  
hartu nahi izan ez badituzte ere,  
guk eskainitako jantzi preziatuak:  
Purpura, Bioleta zein itxaropen iturri den  
Berdea.

Iritsiko da abendua, ondoren Garizuma,  
eta,  
Ubelak, Moreak edo Bioletak,  
atsekabeak baztertuz, hausnarketara eramango gaitu:

“Eguzki horiaren eskutik dator ISIS ederra;  
Egipto osoa zeharkatuz doa:  
hegoaldeko eremu idorretan zehar,  
tenplu zein basamortuak arakatuz,

etengabe,  
senarraz galdezka, iparraldera doa.

Hondar gorria lagun, maite-sua eta garra berarekin ditu;  
Feboren horitasunak fedea eta irmotasuna dizkio oparitu;  
Nilo urdinaren distirak bidean jarriko du,  
eta azkenean,  
ibai ertzeko itxaropen berdeak  
Zuriz jantzaraziko du.  
Gau ilunarekin batera ANUBIS agertuko da,  
eta heriotzaren morroi leialak  
lur ospelaren barrunbe laiotzetara eramango du.  
Bertan agertuko da Beltza,  
eta horri esker  
berreskuratuko ISISek  
bizi poza:  
OSIRIS maitea zain dauka.”

*Anttoni Lopetegi*

# Idazle Eskolako lehenengo kurtsorako horoskopoa



## ARIES.

Martxoak 21 - Apirilak 21

Lehen, orriaren aurrean jarri eta idazteko teknika falta zitzaizula pentsatuz pasatzen zenuen denbora, orain teknika eman dizutenean astirik ez daukazula diozu. Gehien gorroto duzun hura egin, eta gero probatu ezazu idaztera.



## TAURUS.

Apirilak 22 - Maiatzak 21

Hitzak falta zaizkizula sumatzen duzu azkenaldian, zenbat gairen inguruan, lehen esaten zenituen hitzak orain ez dituzu prest. Ez da zahartzen ari zarela, baizik eta zure interesak aldatzen ari direlako. Orain esateko duzunak bide berriak eskatzen dizkizu, eta kasu egin beharko zenioke. Ez itzazu hitzak baloratu, denak berdin balio baitute. Ez duzu hitzik galduko.



## GEMINIS.

Maiatzak 22 - Ekainak 21

Etzerako lanak egiteari garrantzi gehiago eman beharko zenioke. Eskolara etorri zara, eta bertan, egin beharra dago ikasteko. Bestela salerosketa izango litzateke.



## CANCER.

Ekainak 22 - Uztailak 22

Idazterakoan sartuko zaren zuloetatik nola irtengo zaren beldur zabilta, baina idazten duzun bitartean ez zaitzu biderik itxiko, beraz ausartu zaitetz.



## LEO.

Uztailak 23 - Abuztuak 22

Idazle eskolan hainbat hilabete pasa ondoren ez duzu idatzi zure obra, eta zer pentsa jarrita zaude. Jakin ezazu orain sumatu duzun ar horrek kutsatzen dituela idazle ikasleak, eta, nahiz eta batzuek sendatu egiten diren, besteak idazle izatera iristen dira.



## VIRGO.

Abuztuak 23 - Irailak 22

Obra erotikorik ez zenuela idatzi nahi esan zenuenetik, zure idatziak sexuren bueltan jira osoa ematen dute erdi erdian tontor bat islatuz. Onartu ezazu sexuaz ari zarela idazten, eta agian horrela beste kontuak ere izango dute tokia zure idatzietan.



## LIBRA.

Irailak 23 - Urriak 22

Aspaldiko kezka da zurea; idazleak idazterakoan bere bizi esperientzia galtze ote duen. Hori horrela izaten da, edo zer uste duzu? Irakurleak jaso nahi duena zer dela? Ba irakurleak nahi duena idazlearen bizi zati bat da. Eta idazleak neurria hartu behar du. Baina gogoratu ezazu, esku irekia ez dela sekula hutsik geratzen, baina alde, esku itxia bai.



## SCORPIUS.

Urriak 23 - Azaroak 22

Klaseko lehen ariketak egiterakoan sinpleagoa izan zaitetz. Atzera bueltarik gabe idatz ezazu, horretarako, zure asmoak behar hainbeste apalduz, eta bihotza bizkortuz. Uste ez baduzu ere, ez zara honetan aspertuko.



## SAGITARIUS.

Azaroak 23 - Abenduak 22

Oraingo ezazu idazten. Sortzen ari zaren atal solteak josten dituen haria gutxiena uste duzunean aurkituko duzu. Baina hari mutur hori idazlan baten bukaeran agertzen da beti, eta azaltzen denerako gertu izan josi beharreko atalak.



## CAPRICORNIUS.

Abenduak 23 - Urtarrilak 20

Sikoanalistareneko sesioen modura sentitzen duzu idaztea, baina orain ez da nahiko zure fantasmak salatzea. Idazteko, zure mamuekin, beraiekin, harremanetan jarri behar zara, eta probetxua ateratzen saia zaitetz harreman horretatik.



## AQUARIUS.

Urtarrilak 21 - Otsailak 19

Idazterakoan udaberriko pizkundearen moduko inpultso horiek aprobetxatu, baina horiekin bakarrik jai daukazu. Akordatu zaitetz; dieta, goseak dagoenean hasi ezkeru ondo funtzionatzen duela.



## PISCIS.

Otsailak 20 - Martxoak 20

Zer idatzirik ez duzula? Ba zure bikotekide berriarekin etxean presentatu eta etxeokoe galderak egin zain gertatu ordez, hurrengoan, hilabete lehenago esan iezaiezu etxean zer sentitzen ari zaren, bazkariaren erdian. Agian orduan izango zenuke zer idatzirik.

Juan Mari Apaolaza





asmoz

# Asmoz Fundazioa

## On-line Ikastaroak

HIZNET

### Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

- Soziolinguistikako goi mailako formakuntza
- Punta-puntako irakasgaiak
- Irakaslegoa: normalkuntza teknikariak, EUHko irakasleak
- Hizkuntza normalkuntza alorrean lan egiteko ezinbestekoa
- On-line ikastaroa aukerazko taller praktikoak tartekatuz

LINGUANET

### Lan Munduko Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

- Hizkuntza Politikarako Sailburuondetza, EMUN, ELHUYAR eta ARTEZ-ekin elkarlanean sortua
- Euskararen erabilera erakundeetan, enpreetan edota elkarteetan sustatzeko oinarritzko ikastaroa
- Euskararen erabilera indartzeko lanean diharduten edota horretan aritu nahi dutenei zuzendua

JAKINET

### Eusko Ikasgaietan Ikastaroa

HERALDIKA

### Heraldika eta Genealogia

- Izen delturen edota eremu geografiko baten ikerketa genealogiko eta heraldikoa egiteko trebakuntza ikastaroa
- Irakaslegoa: gaien adituak diren unibertsitate irakasleak
- Norberak aukeratutako ikastaro amaierako proiektu genealogiko edota heraldikoa egiteko irakaslegoaren laguntza osoa


**Asmoz Fundazioa**

Jose Elozegi Hiribidea 275

20015 Donostia

Tlf: 943 212369

[www.asmoz.org](http://www.asmoz.org)




## KOMUNIKATZEN

### Karlos Linazasoro • Glosaliak eta beste. Alberdania, 2004

Urteak daramatza Karlos Linazasorok literatur lanak kaleratzen. Hamabost inguru, eta liburuak, aldiz, hogeitik gora. Hainbeste orrialdetan aukera dago gauza askori buruz hitz egiteko, hamai-ka konturen gainean aritzeko. Hala izango da seguru aski Tolosako idazlearen kasuan ere, baina ez dakit zergatik beti lotu izan dut bere literatura gai jakin batzuekin, Linazasoreen izena entzun eta berehala identifika-tzen ditudan gai horiekin. Es-kuar-tean dudan liburuan, noski, beste behin errepikatzen dira: bi-zitza, heriotza, berauen absurdua-ren kontzientzia edota liburuan besteen gainetik gailentzen dena, gizakion arteko erlazioen konple-xutasuna eta, batez ere, komuni-katzeko ezintasuna.

*Glosolaliak eta beste* deritzon narrazio bilduma hau idazleak duela urte batzuk aginduriko dekalogiaren bosgarren emaitza da. Aurretik jada, kaleratuak ditu "Eldarnioak", "Zer gerta ere", "Ez balego beste mundurik" eta "Ipuin erotikoak". Bosgarren ale honek, Joseba Jaka bekaren babespean idatzia izan denak, aurreko lan horien ildo bera jarraitzen du eta akaso gordinagoa da, baina emaitza aukeran ez da aurreko lan batzuk bezain biribila. Betiko obsesioak kontatu dituen arren, saiatu da molde aldetik zerbait diferentea egiten, eta hau eskertzekoa da. Egia da forma aldetik liburu bitxia bezain ausarta atera zaiola, baina ipuinen artean aldea dagoela esango nuke, ez duela denekin asmatu. Liburuan zehar aurkituko ditugu ipuin luzeak, motz-motzak, an-

tzerki lanaren traza duen istorio bat eta egileak nobela deitu dion ariketa interresgarri bat. Esan bezala, saiakera ba-



*Liburu arriskatu eta heterodoxoa.*

tzuk nabarmenduko nituzke besteen gainetik, 'Borreroaren nobela' esaterako. Borreroaren figuraren inguruko 172 esapide laburrekin osatu du nobela hau eta, ausardiaz gain, txalotzekoa da lortutako emaitza ere. Ipuin laburren artean ere aurki dezakegu pieza aipagarriak, 'Lili sorta bat, adibidez' esaterako. Antzerki lantxoak, berriz, ez nau asebate, gogoeta interesgarriak irakur badaitezke ere. Karlos Linazaso-

roren izena entzutearekin batera burura datorkidan beste kontu bat umorea-rena da. Umorea literatur baliabide be-zala, baina umorea jarrera bezala ere bai, eguneroko bizitzari aurre egiteko irtenbide bakar bezala. Liburuan zehar umore beltza sarri aurkituko dugu, baita umore garratza, ironia edota sar-kasmoa ere. Istorioak gogorrek diren arren, kontatzen dena batere samurra izan ez arren, irribarrea behin baino gehiagotan azaleratuko zaio irakurle-ari eta pentsatuko du, agian, bizitza tokatu zaiona ez dela hain txarra, okerragoa izan zitekeela. Eszeptizismo puntu bat daukate irakurritako narrazioek, ikuspuntu ezkorra, bi-zitzaren absurduaren aurrean beste jokaerek balioko ez balute bezala, baina ipuinek badute bukaeran es-perantzarako zirrikitu txiki bat, ateak zabalik uzten baititu idaz-leak.

Finean, liburu arriskatu eta he-terodoxoa da *Glosolaliak eta bes-te*. Betiko gauzak kontatzen di-tuena, baina betiko gauzak bes-tela kontatzearen aldekoa. Aipa-tu dugu batez ere inkomunikazioari buruzko gogoeta direla narraziook. Glosolalia hitza ere komunikazio ezin-tasunaren beste adibide bat da, medi-kuntzan hizkuntzarekin zerikusia duen eritasuna baita, non eriak zentzurik gabeko hitzak asmatu eta esanahi bat ematen dien. Karlos Linazasorok jarraitzen du inkomunikazioaren gai-nean liburuaren bestaldean dagoenare-kin komunikatzen. Nahiz eta batzue-tan telefonoaren bestaldean dagoenak erantzun, nahiz eta besteetan, jarraitu komunikatzen.

*Aritz Galarraga*

# BIOLINAREN JATORRIA


Jon Aiastui • Susa, 2004

**J**on Aiastui oñatiarrak *Biolinaren jatorria* izeneko liburuarekin egin zuen iaz euskal letretara jauzia. Hala ere, ez da erabat zuzena kalera-tzen duen lehen lana dela esatea. Aurretik poema sorta bat plazaratu zuen argitaletxe txiki batekin eta zenbait lehiaketatan ere parte hartu izan du inoiz. Baina esan dezakegu eskuartean dugun liburu hau idazle gazte honek publiko zabalagoaren aurrean egin duen lehen agerpen publikoa dela.

Liburua aurkezte aldera, aipatu beharra dago adierazpide ezberdinak batzen dituen lanaren aitzinean gaude-la. Elkar argitaletxearen Poesia bildumako hamabigarren emaitza izan arren, irakurleak poema mordoxka irakurtzeko aukera izateaz gain liburua osatzen duten hiru ipuinekin egingo du topo, baita egileak berak egindako zenbait marrazkirekin ere. Bi poema sorta ezberdinek osatzen dute liburuaren lehen erdia: "Nongo nor" eta "Argia eta itzalaren artean" izenekoek. Poemak bi sorta desberdinetan biltzearen arrazoia hau da: "Nongo nor" atala Oñatiko Potxon argitaletxeak kaleratu zuen 1999. urtean. Bestela, poema bakoitza izan daiteke atal txiki bat, atal berezitu bat, ez dute lotura berezirik gordetzen beren artean. Horien artean badira istoriotxoak kontatzen dituztenak, narratiboak eta erritmoa zaintzen dutenak. Badira laburragoak, hitz gutxirekin leihu zabalak irekitzen dituztenak. Poema biluziak dira Aiastuirenak, artificio handirik gabekak, zuzenean idazleak irakurleari helarazten dizkionak, eskalarik gabeko hegaldien antzera. Bizitzari, bidaiari, bidaiari buruz hitz egiten duten poemak.

Beste erdia, berriz, hiru ipuinek betetzen dute. Lehen biak idazleak berak

idatzitakoak dira eta, garapen egoki bati esker, duin eusten diote erritmoari. "Cuencak" du izenburutzat lehenengoak. Bertan mendeku baten istorioa kontatzen zaigu. Hasiara batean iraganeko zauriak primeran itxita daudela badirudi ere, zoriak aspaldiko zorrak kitatzeko aukera emango dio protagonistari. Txikiteoa, apustu bat eta errepidea tarteko, ipuinak bukaera arte ongi mantentzen du irakurlearen arreta. Bigarren ipuinak, luzeenak, "Eguzkiak jotzen duen aldetik" du izena. Eroetxe batean dago kokatuta eta bertako pertsonaiek bizitako egoera bereziak kontatzen dira ipuin samur eta ero honetan. Irudimenak eta



*Isilsilik eta oin puntetan iragan da, baina pasaeran doinu gozoa utzi digu, ijito batek biolina jotzerakoan uzten duenaren antzera.*

bidaiatzeak duten indar askatzaileaz hitz egiten da eta gaur egungo gure gizartearen alegoriatzat ere har dezakegu. Liburu osoarentzat aukeratutako izenburua azken ipuinetik hartua da. Azpigituluak dioen bezala, Danubio inguruko ijitoen elezhar batekin osatu du Aiastuik bere lehen liburu.

Orain arte irakurritakoarekin ondoriozta daitekeen bezala, liburuak ez du batasun bat gordetzen, ez eta, nire irudirako, gorde nahi ere. Hau ez da, ordea, azken emaitzaren kalterako izan. Hasi eta buka hari bakar bati jarraitzen dioten liburuak dauden bezala, norabide askotako liburuak ere badaude. Agian, beste irakurtzeko modu bat eskatzen dute halako lanek

edo bestelako irakurketa bat eskain diezaiekegu. Liburu honek, adibidez, autobusean goazenean bidaia atseginago egin diezaguke edota bikotekidea etorri arteko itxaronaldia arindu, hasierako orrialdetik azkeneraino irakurtzea ere onartzen duen bezala.


Auskalo zergatik baina *Biolinaren jatorria* isil-isilik eta oin puntetan iragan da gure muturren aurretik. Berri labur batzuk eta elkarrizketaren bat liburuak argitaratu zen unean baina zarata handirik ez. Isil-isilik eta oin puntetan iragan da, baina pasaeran doinu gozoa utzi digu, ijito batek biolina jotzerakoan uzten duenaren antzera.

Aritz Galarraga



## ANNE FRANKEN EGUNKARIA

Erein, 2005 • *Itzultzailea: Josu Zabaleta*



Zaila egiten da ia mundu guz-  
iak ezagutzen duen liburu  
baten gaineko kritikarik egi-  
tea, orrialde asko eta asko bete di-  
tuen liburu baten gainean ezer berri-  
rik aipatzea. Nork ez du, gutxi-asko,  
Anne Franken istorioa ezagutzen?  
Nork ez du, nahiz eta irakurri ez, be-  
rak idatzitako egunkariaren berri?  
Apunte gutxi batzuk emango ditut,  
memoria freskatzeko besterik ez ba-  
da ere: Anne Franken familia judua  
zen eta, otsoari belarriak ikusi oste-  
an, Frankfurt jaioterritik Holandara  
mudatu beharra izan zuten, ihesi.  
Baina 1940. urtean alemanek Holan-  
da hartu zuten eta, bi urte geroago,  
Anne Frankek bere egunkariari ha-  
siera eman eta egun gutxira, familia

osoak ezkutatzea beste erre-  
mediorik ez zuen izan. Egun-  
kariaren idazketa 1944an  
eten zen, era bortitzean eten  
ere, Franktarrak deporta-  
tuak izan baitziren. Otto  
Frank, Anneren aita, izan  
ezik, beste guztiak hil ziren.  
Hasierako orrialde gutxi ba-  
tzuk kenduta, egunkaria  
Annek ezkutatuta eman zue-  
neko garaiaren testigantza  
da, beraz. Esan dugu zaila  
dela halako liburu bati bu-  
ruz idaztea; saiatuko gara,  
hala ere, liburuak eskaintzen  
dituen hizpide anitzen arte-  
an kontu txiki batzuk jorra-  
tzen.

Annek hamahiru urte bai-  
no ez zuen egunkaria idazten  
hasi zenean. Pentsa daiteke,

hortaz, balio literario handirik gabe-  
ko liburu baten aurrean gaudela,  
oraindik nerabegarora iritsi ez den  
ume baten apunte bilduma baizik ez  
dela egunkaria. Baina liburuaren  
orrialdeetan barrena abiatuz gero,  
ohartzen gara heldutasun harriga-  
rriarekin idatzitako lana dela, ez dela  
mugatzen gertaeren edota pertsonen  
behaketa hutsera, saiatzen baita ego-  
eraren, inguruan duen jendearen eta,  
noski, bere buruaren analisisa egiten.  
Mariasun Landak prestaturiko sarre-  
ra mamitsuan antzeko ideia aipatzen  
da eta bat nator erabat bere hitzekin:  
*«Hasierako orrietako gertaeren aipamen  
ia soiletatik, azkenerako gogoeta sakona-  
goetara, bizitzako galderarik funtsezko-  
netara iristen da geldiro-geldiro»*. Idaz-  
teak errealitatea ulertzeko balio dio  
Anneri, baina baita errealitatetik ihes  
egiteko ere. Ezkutuan zeramaten bi-

zimodutik urruntzeko aukera ema-  
ten zion idazteak, gutxieneko distan-  
tzia hartzen zuen egunerokoarekiko.  
Neurri batean, beste irtenbiderik ez  
zuelako idazten zuen. Idatzi ala ero-  
tu. Eta hala ere, muturreko egoera  
horretan ez du galtzen alaitasuna,  
begirada zorrotza, ironiara hurbiltze  
nahi hori. Orrialde hauetan zehar ez  
dago literatura egiteko nahi berezi-  
rik, zuzen-zuzenean eguneroko bizi-  
tzatik edaten duten hitzak dira Anne-  
renak. Horrexegatik du interesa libu-  
ruak gazteentzat zein helduentzat,  
guztiok ere atera diezaiokegu zukua.  
Bide batez, egunkaria euskaratzeak  
(itzultzeko erabili den bertsioa, gai-  
nera, kanonikotzat hartzen dena izan  
da) balio dezake eskoletan-eta jazar-  
penaren testigantza den liburu hau  
lan-material gisa erabiltzeko.

Betidanik gustuko izan dudan ge-  
neroa da egunkariarena. Irakurrita-  
koen artean gogoan gordetzeko mo-  
dukoa da, adibidez, Alejandra Pizar-  
niken "Diarios" liburua. Hala dio ber-  
tan: *«Si trato de escribir de mí es para  
conjurarme»*. Etxekoen artean ere (edo  
«bizilagunen artean» esan beharko  
nuke?), Miguel Sanchez-Ostizen egu-  
nerokoak ezin utzi aipamenik gabe.  
Anne Frankek idazle izan nahi zuen  
nagusitzean. Hori zen bere ametsa  
eta helburua. Eskola ona da horreta-  
rako egunkaria, zeure buruarekin  
aurrez aurre jartzen zaituen ariketa  
den heinean, erregulartasunarekin  
idaztera behartzen zaituen neurrian.  
Utzi izan baliote, auskalo noraino iri-  
tsiko ote zen.

Aritz Galarraga

# SALGAI • Euskal Kontsumo gizartea aztertzen

Patxi Juaristi • Alberdania, 2005

**A**ldaketa garaiak bizi ditugu. Gurasoak edota are aitona-amonak gazte zireneko garaia eta gaur egungoa arrunt diferentek dira, zer esanik ez hamarkada batzuk atzerago egiten badugu. Gizarte berri baten atarian gaudela esan daiteke, eredu sozio-ekonomikoak zalan-tzan jarri eta aldatzen ari baitira. Kontzeptu ugari erabili dituzte gain-gaingan dugun gizartea definitzerako orduan: masa kulturadun gizartea, gizarte arriskutsua, e-gizartea, informazioaren gizartea edo ezagutzaren gizartea, adibidez. Eskuar-tean dugun liburuan, aldiz, kontzeptu baten erabilera nagusitzen da besteen gainetik: kontsumo gizartea, hain zuzen ere. Patxi Juaristi soziologo eta unibertsitate irakasleak gizarte berri baterantz garamaten aldaketa guztien artean kontsumoaren inguruko hausnarketa egin du *Salgai* liburuan. Euskal kontsumo gizartea aztertuz saio interesgarrian. Juaristiren ustean, ikuspuntu sozio-ekonomikotik Euskal Herria nora doan jakiteko «*ezinbestekoa baita kontsumo gizartearen eta bere izaeraren ondorioei buruzko azterketak eta gogoetak bultzatzea*».

Lau atal ditu liburua. Kontsumoaren arloan XX. mendean Euskal Herrian gertatu bilakaeraz hausnartzen da lehenen. Hau da, hamarkada gutxian urritasunaren gizartetik neurrigabeko kontsumoa praktikatzeko duen gizarte arriskutsu batera egin den jauzia erakusten zaigu. Kontsumoa ekintza kolektiboa izatetik ekintza indibiduala izatera pasa da eta erosteko produktuak, uneak, tokiak eta moduak aldatzen ari dira, honek dakartzan ondorio psikologiko eta sozial guztiekin. Bigarren atal batean gehiegizko kontsumo hau ulertzeko arrazoiak ematen di-



*Kontsumo gizartearen gaineko ikuspegi orokor eta osatua.*

ra. Kontsumismoaren sustraitzea erraztu duten motiboen artean, aberastasuna, egitura ekonomiko eta testuinguru politikoa aipatzen dira. Jendeak diru gehiago izateak, 3. sektorearen garapenak eta Europako Batasunaren jaiotzak lotura zuzena dute erosteko jarrera burugabearekin. Modu berean, balio, ohi-tura, pentsamolde berriek ere eragin zuzena dute. Garrantzia ematen zaio, halaber, komunikabideek zein publikitateak balio eta pentsamolde hauek gizarteratzeko orduan duten indarrari. Hirugarren atalean gehiegizko kontsumoak sortzen dituen arriskuei buruz mintzo da Juaristi. Etorkizuna arris-

kuan jartzen duen gizarte ereduaren aurrean gaude. Itxuran egoera onean bizi bagara ere, txanponaren beste alde ahantzi egin dugu, munduko zati batek bestearen beharra baitu bere ongizatea bermatzeko. Natur baliabideen eta langileen esplotazioa, kanpoko zorra eta gerrak bultzatzen ditugu gure aberastasuna eta ongizatea babestearren. Azken atalean kontsumo gizarteari aurre egiteko alternatibak eskaintzen dira, alternatiba praktikoa eta iradokitzailak guztiak ere, produktu eta zerbitzu onargarrien ekoizpena bermatuko duen ikur eta marka baten sortzea esaterako. Transizio garaia bizi dugu honenbestez. Eta transizio garai hau hobeki ulertzeko eskuliburu baliogarria izan zait aztertzen ari garen liburua. Kontsumo gizartearen gaineko ikuspegi orokor eta osatua ematen du, adibide ugari eta gaurkotasunez beteak eskainiz. Errotik aldatzen ari den gizartea da gurea, McDonald's erraldoi bat bilakatzeko arriskuan dagoena. Baina gizarte eredu berria ez da oraindik finkatu, garai gaude nahi dugun etorkizunari buruzko eztabaidan parte hartu eta, kontsumo arduratsua praktikan jarritz, gizartearen bizi kalitatea hobetu eta gure planetaren etorkizuna ziurtatzeko. Jarrera baikorregia izango da agian baina hauxe da liburua irakurri ondoren utzi didan aldartea.

*Aritz Galarraga*

## POSPOLO KAXA BAT BEZALA

Patxi Zubizarreta • Pamiela, 2005

**B**erezia da inondik inora liburu honen abiapuntua: batetik, errezitaldi ezberdinetan erabilitako gidoiak eta bestetik, errezitaldi horietan landutako gaiak estu loturiko ipuinak biltzen dira Patxi Zubizarretak eskaini digun lanik berrienean, *Pospolo kaxa bat bezala* izeneko liburuan. Ibilbide luze eta oparoa duen sortzaila dugu berau: haur eta gazte literatura nabarmendu bada ere, idazle ordiziarraren ibilbidea ezagutzen duenak badaki ez dela soilik genero horretara mugatu eta beste esparru batzuk ere jorratu dituela, txukun jorratu ere. Helduentzako literatura, itzulpengintza, prentsa idatzian kolaborazioak eta abar. Lan horien guztien artean errezitaldi ugari tartekatzen astia egin du azken urteetan, batzuetan primerako musikariaren konpainian, irakurraldi soilen ahots biluziaren laguntzaz besteetan. Eta errezitaldi hauek dira, hain zuzen ere, eskuartean dugun liburu honen bizkarrezurra. Bost ataletan banaturik dago liburua eta atal bakoitzean errezitaldi baina eta bina ipuin bildu dira, azken hamar urteotan astiro sortzen joan direnak. Atal bakoitza gai baten inguruan harilkatzen da eta, dudarik gabe, idazlearen gai kuttunak dira bertan aurkituko ditugunak. Aurrez argitaratutako lanei begiratzea besterik ez dago honetaz ohartzeko. Bere-break dituen gaiak darabiltza Zubizarretak orriotan, nabari da gustura aritzen dela amodioa, bidaia, mestizajea, literatura eta memoria gaiak buruz mintzo denean. Eskertzekoa da, beraz, idazleak bere saltsan ikustea, menperatzen duen eremu batean mugitzen dela ikustea. Eroso dabil hitzen artean eta, ondorioz, irakurleak ere errazago har-

tuko du atsegin. Gainera, idazleak ohi duen legez, samurtasunez eta sensualitatez gainezka egiten duen lana dugu haxe.

Batek baino gehiagok pentsa dezake errezitaldietako gidoiak ez direla liburu batean kabitzen, txiki geratzen zaiela formatua. Eta arrazoi izango du seguruenik. Baina *Pospolo kaxa batean bezala* irakurritakoan izandako sentsazioa bestelakoa izan da, liburu bezala ongi funtzionatzen duela irudituzait. Erdi ipuin erdi saio, teknika ugariaren konbinaketa eginez, liburuak hasi eta buka mantentzen du tonu orokor bat, atalez gaindi batasuna ematen diona azken emaitzari. Hitz desberdinekin esateko, liburu honetan badago proposamen literario jakin bat, badago idazkera, literatura ulertzeko modu konkretu bat. Beste ikuspuntu batetik ere interresgarria begitandu zait liburuak. Intertextualitate hitza modako bilakatu den honetan, han eta hemen aurkituriko testuez baliatuta osatu dira aztertzen ari garen liburuko zenbait zati. '28 letra eta 7 nota munduaren itzulia egiteko' izeneko testuan, esaterako, Julio Villar bidaiari donostiarrak idatzitako "¡Eh, Petrel!" bidaia kronika liburuaz baliatzen da, beste zenbait idazleren testu zatiekin elkarlotu eta bidaiaren gaineko hausnarketa egiteko. Originalta-suna kontu sakratutzat



dute askok, baina gauza jakina da ezer ez dela ezerezetik sortzen, guztiak duela nonbait jatorria. Hala zioen Anjel Lertxundik: «*Irakurleak liburuetan sartzen ditu bere liburuak eta idazleak, oster, bere liburuetan*».

Laura Esquivel idazle mexikar ezaunaren hitzak dira kontrazalean aurkituko ditugunak: «Persona guztiok pospolo kaxa bat daukagu geure baitan eta, horietako bakoitza pizten dugun aldiro, energiak betetzen dugu arima». Beraz aldiro-aldiro piztu beharrek dira gure barneko pospoloak, umeldu ez daitezten. Ez da bide txarra Patxi Zubizarretaren azken lanarekin pospoloak izekitzen hastea.

Aritz Galarraga

# AUZOAK ETA AUZOAK

Urtzi Urrutikoetxea • Susa, 2005


**B**atek pentsa dezake, izenburua irakurri ondoren, hiri edo herri bateko auzoen gainean hitz egiten duen lana dela Urtzi Urrutikoetxearen lehen narratiba liburua. Are gehiago, Joseba Jaka Literatur bekaren IV. deialdia Bilbori buruzko nobela proposamen batekin irabazi zuela jakitean, batek pentsa dezake Bilbo hiriko auzuneak direla lan honen ardatz. Baina orriotan Otxarkoaga, Santutxu edota Zorrotza presente egon arren, «auzo» hitzaren bigarren adiera bat da benetako protagonista, hau da, auzoa edo, elkar hobeto ulertzeko, hiriko biztanlea.

Aipatu beka nobelaren atalean eskuratu bazuen ere, aurkituko dugunak antz handiagoa du narrazio laburren bildumarekin, zentzu hertsian, nobelaz ulertzen dugunaren egiturarekin baino. Azken batean istorio «txiki» eta laburrak dira bertan bildurikoak, Bilborekin nolabaiteko erlazioa duten pertsonaia desberdinenak hain zuzen ere. Zenbaitetan narrazio landuak izango dira, gutxieneko korapilo edo argumentu bat garatzen duten kontaketak. Beste batzuetan ipuinak izatera iristen ez diren mikrokontakizunak izango dira, zertzelada pare batekin marrazturiko testigantza laburrak. Esan beharra daukat ipuin luzeenetan lortzen duela liburuak sendotasuna, egoera kiribiltzera ausartu denean asmatu duela idazleak batez ere. Testu hauek dira obraren oinarri eta bertan ikusten da ondoen Urrutikoetxeak, orain arte poesian nabarmendu denak, narrazio gintzarako duen gaitasuna.

Egiturari begiratu gero kontakizun independenteen bilduma baten aurrean gaudela esan daiteke. Istorio

bakoitza pertsonaia desberdin bati edo batzuei dagokie baina istorio hauen arteko loturarik apenas dagoen, ez bada jarraipen kronologikoarena, 24 orduren buruan garatzen baitira gertaerak oro. Hari finegiak elkarlotzen ditu, beraz, liburuko testuak. Hala ere, osotasunean ulertu behar dira kontaketak, Bilbok osatzen duen sinfoniarren parte baitira guztiak ere eta orokortasunean baizik ez dute ahots desberdinek benetako zentzua hartzen.

Bilbo hiriaren erretratua egitea izan da, hitz gutxitan, helburu nagusia. Erretratu ahalik eta zabalean eta, ondorioz, fidele. Horretarako, pertsonaia zerrenda luzea eta askotarikoa ibiliko da orriotan barna, eta batez ere jende umilenari tarte berezia egiten zaio: turismo gidetan azaltzen ez diren paisaia zokoratueta bizi den jendeari, Azkunaren irribarre zabalean kabitzen ez den jendeari, azken batean. Ahots aniztasun honek bizitasuna ematen dio liburuari eta, azken emaitza ikusita, aniztasunaren alde egingdako hautuarekin asmatu du Urrutikoetxeak, momentu batzuetan egoerak edo pertsonaiak behartu samarrak iruditu bazaizkit ere, oro har asmatu egin baitu. Lortu du, eta ez zen erraza, ahots asko eta, beraz, hiria ikusteko eta bizitzeko modu asko era sinesgarrian kontatzea. Horretarako, pertsonaien aukeraketarekin batera, paisaia, gertaerena edota pertsonaien hizkeraren aukeraketan lan handia egin da, artifizial geratzeko arriskuarekin baina gehienetan onik irten da.



*Lortu du, ahots asko eta, beraz hiria ikusteko eta bizitzeko modu asko era sinesgarrian kontatzea.*

Honen guztiaren gainetik idazleak badarabil behin baino gehiagotan gai jakin bat: euskara. Bilboren aurpegi ezezaguna erakutsi nahi izatean, Bilbo euskaldunaren errebindikazio bat ere badago, euskara eta euskal mundua Euskal Herriko hiri bakarrean ere existitzen direlako aldarria. Hala, konturatzen gara euskaldunak ere badirela Bilboko auzoak, Bilboko biztanleak alegia, eta gainontzeko auzoekin batera sinfonia anitz eta eder bat jotzen dutela egunero, eskuarte dugun liburu honek ederki erakusten duen bezala.

*Aritz Galarraga*



## GAUA BASAMORTUAN

**B**asamortua leku zaharra da. Aspaldian hildakoa. Bere izenaren arabera basoa izan zen behin, baina nonbait heriotza heldu zitzaion, eta basamortu geratu zen. Hau ez da dena; badirudi, orain dela hainbat mila urte, basoa izan aurretik, itsasoak zeudela gaur harri eta hare besterik ez den tokian. Ez litzateke gezurretan ibiliko gaur hare eta harriz osatutako dunetan garai bateko ur olatuak ikusten dituela esaten duena. Tokitik mugitu gabe, forma bera duten bi izaera ezberdin; bata urez, bestea harez osatutakoa. Inon ez da aurkitzen halako gurgil perfekturik, inon ez da betetzen halako ziklo borobila. Esan leike materiaren eraldaketa, alkimisten ametsa, basamortua dela. Horrez gain, ukaezina da berez daukan edertasuna eta ezkutazten dituen misterioak... eta sortzen dituen espejismoak. Aurrean dugun miraria desegin egiten zaigu hatz puntaz ikutzekotan gaude-nean; ihes egiten digute edertasunak eta lilurak basamortuan, trikimailuz jositako lurra... baina trikimailuez bagabiltza nork ez ditu propio trikimailuak erabiltzen gaua bera ez bada, nahiz eta zuk lasai lasai egoteko gogoia eduki? Gauez ateratzen dira katuak euren dantzak antolatzerare, bazter ilunak argitxo ehiztari eta zilarrezko laban distiratsuez urratuz. Baita txakur deslaxiak bezala ibili ohi diren pertsonaiak, ere tabernaz taberna euren amets zatituak kateatzen saiatuz, bakardadeak espaloiko putzuak balira bezala sahiesten, ea amets zatitu hori osotzerakoan zein Eldoradoren atzetik abiatuko ote diten asmatu ezinik... Espazio bat eta denbora bat; egunaren mundua osatzen duten alderdirik ezkutueta-raino bidai bat da Gaua basamortuan.

• **Lehen urratsa: Pigalle.**

Jon Mirandek ezin hobeto utzi zuen



Irudia: Cristina Fernández

*Esan liteke materiaren eraldaketa, alkimisten ametsa, basamortua dela.*

idatzita: *Raymonde, soin umoa mahats umel, Pigalleko mahastietan arno indazu nire ahorako, zazpigarren goian izarrak dakuzkidan!* Ardoa, sexua, gaua... osagarriak baino ez dira; hor pertsonaia bat ezarri da kale hustu batzuetan zerbaiten bila: zazpigarren goia.

• **Bigarena: Ordu berdinean egunero.**

Aurrekoaren antzera, soilik hemen *voyeur* baten antzera kantuak pertsonaiaren ibilbidea jarraitzen duela gauzak interesgarri jartzen diren uean kontatzeari uzteko.

• **Hirugarrena: Gaua basamortuan.**

Urrats honetan mugak gainditu egiten dira. "Gazteen lur" hortan Mirandek ageri da berriz. Euskeraz ezagutzen dudana erreferentzia bakarra da eremu poetiko hori adierazteko. badira gehiago beste kulturetan: Eldorado, Agindutako lurra, Itaca... Toki hauek ez dira izaten gertera batzuen marko. Aitzitik, akzioa bertara heldu orduko istorioa bukatu da. Euren gainean ezer gutxi ez dakigun dugun leku misteriotsu eta urrunak dira... gainditzen diren mugaz ari nintzen, zeintzuk dira? zure lurraldea inguratzen duten babesak, jakina.

Beste hitz batez esanda, zure loturak. Behin muga gaindituta ez dago atzera egiterik, eta batzuetan min egiten du, mugaz bestalde oraingoz ez baitago gauza handirik, zeure barruan entzuten den ahots urrun bat besterik ez...

• **Laugarrena: Maitale urruna.**

Urrun baitago oraindik. Zerbaiten atzetik lurralde madarikatu honetik berrera nabil. Besoa luzatuta hatz puntatik urrun dagoen maitale bati seinalatzten diot. Bada zerbait.

• **Bosgarrena: Agurrak beti dauka zapore garratza.**

Maitemina. Gogoak atzera egin eta iraganean utzitakoa bapatean muturrean ageri zaizu... Bi mailegu: *Most likely you'll go your way... eta the moon was raging...* bi Dylanenak, Bob eta Thomas.

• **Seigarrena: Trenaren zain.**

Istorio guzti honen moldearekin batera erabat datorren kantu autobiografikoa. *Urrun eramango nauenaren zain...*

• **Zazpigarrena: Egunero berriak txaragoak dira.**

*Gauaren ilunak eta ilargiaren zuriak, elur-*

tearen *isilak eta suaren txinpartak*, bata bestearen aurkako indar kontraokoak ez du mugiarazten ba munduaren jirabira erotu hau? Bidaia-aren une kritikoa, behea jotze hau. Kantuaren giroa eta izpiritua lehengo ahapaldian aipatzen den abesti batetik hartuta daude: *Hard times*.

• **Zortzigarrena: Babilonia abenidan.**

Metaforaren bitartez natura ezberdineko bi errealidade kontaktuan jar-tzen dira une iheskor batez, gero bakoitzak bere bidea jarraitzeko. Babilonia abenidan transmutazio hau agertzen da, is-tant motz bat denboran eta espazioan dilatatur. Aitzakia *kabbalah* da, judutarren kode zifratua mundua interpreta-tzeko. Metafora bat zer den esplikatzeko erabili ahal den metafora bat berau, alegia. Kale bakoitza, alafetaren letra bat; estrofa bakoitza, bizitzaren arbola osa-tzen duten sephira bat (jakinduria, mai-

tasuna, legea, zientzia, artea...). Abestian agertzen diren pertsonaia guztiak gauza bat dute amankomunean: denak zer-baiten bila ari dira. Labirinto estetiko ho-netan Jainkosa bakarra dago: Edertasu-na. Bera da *Gaua basamortuan* diskoan gertatzen den guztiaren ardatza, eta kantu honetan ere beraren eskutik ikus-ten du dena istorio hontako ahotsak. Gero bakoitzak bere bidea jarraitzen du, aurretik iragarri den moduan. Errito majikoen beste ezaugarri bi: errepikapena eta zirkularitatea.

• **Bederatzigarrena: Non bizi haiz Errol Flynn?**

Kantu hontan bi istorio ezberdin kon-tatzen dira, edo, hobeto esanda, istorio bakarra bi ikuspuntu ezberdinetatik be-giratuta. Alde batetik pentsamendu erromantikoaren aldarrikapen bat este-tika baten bitartez: Errol Flynnen pirata

ontzia, Noraren gerezi ezpainak... aska-tasun nahia eta maitasuna. Bestetik isto-rio hori ikusten duen niaren bikoiztea: hasierako bufanda horia gero beste ba-ten sorbalda gainean ageri da. Ikusleak bere burua ikusi du ispilu joko baten moduan. Babilonia abenidaren aldame-neko kalea da kantu hau.

• **Hamargarrena: Gauaren magalean.**

Baudelairearen *Trapusaltzaileen* ardoa. Aspaldi irakurri nuen poema liburu hartako giroa ekarri nahi izan dut ho-na. Dekadentzia, galtzaile atera ote ga-renaren susmoa... eta bihar berriz toki berean elkartuko gara denok, sortilejio-aren urrats guztiak errepikatzeko. Bitar-tean, kulunkatu eta atsedean hartu gaua-ren magalean.

Markos Untzeta

## KOKODRILOA OHE AZPIAN

### Mariasun Landa • Alberdania, 2002

**A**nanazko narrastiak dira, muske-rraren antzekoak, lau hanka la-burren gainean erdi narraz ibili eta urte betez ezer jan gabe egoteko kapaz direnak. Bizitzeko, leku epelak dituzte go-goko animalia berdexka hauek. Horoskopo aztekaren arabera, animalia honi dagozkion seinukoak ez dira fidatzekoak, nahiz eta ur-teak pasa ahala euren buruengan konfindan-tza hartzen joaten diren. Errealistak eta prak-tikoak omen dira, eta bikotea ez izateak nor-tasuna eta bizitzeko eran eragiten omen die.

JJ krokodilo handi bat zen, bere ohepeko krokodiloa, zapatak (bere obsesioa, bera) jaten zizkiona, bera irentsiko zuena, bizitza monotonoa aldatu ziona.

Juan Jose gizon heldu eta ezkongabeak, banku administrariak, ordura arte egunero egunero, beti gauzak egiten zituen, errito berberak errepikatu: beti bezala, beti beza-

la, beti bezala...

Hirian, zapata kaxa indefinituen den-dan, bakar-bakarrik bizi zen, salgai zegoen. Ez zuen lagunik, bueno, bakarra: harakin bat. Baina besterik ez. Bulegoan lankideak zeuden, eta Elena, nerbioso-nerbioso jar-tzen zuen ile gorri kizkurdun hura. Kosta egiten zitzaion harengana hurbiltzea, hitze-gitea, eta bere egonezina handitzen zihoan. Egoera nola konpondu? Bizkorregi senda-gilearengana ("Goizeko hamaikak bost gu-txietatik hamaikak eta hogeita bostera ar-te") joan, errezetatutako pilulak, suposito-rio eta pastilla eferbeszenteak hartu, eta ki-tto! Baina kitto?

Mariasun Landa doktoreak JJ-ren kro-kodilitis-a ez du botikekin bakarrik osatu. Bestelako indar bat funtsezkoa izan da gai-tzaren efektuak gutxitzeko.

Egoera kafkiano batean, bakardadea

umorez irudikatzen du idazleak, eta kro-kodiloa, bakardadeak sortzen duen itoal-dia da, noiz edo noiz pertsonak garen hei-nean sentitu eta sentituko duguna. Sakra-tua da, krokodiloak Egipton diren bezala, eta, mota askotako larritasunak daude, kro-kodiloak bezala: *crocodilus porosus*, *croco-dilus intermedius*...

Estutasuna handitu eta txikitu, joan eta etorri egiten da.

2002. urtean argitaratu zen liburua eta 2003. urtean, Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala irabazi zuen Mariasun Lan-dak. Baina ez dut uste haur eta gazteentza-ko denik bakarrik, helduagoentzako ere bada. Irakurketa bat baino gehiago izan di-tzake. Bakoitzak bere krokodiloa du.

Iasmina Gorroño Elorriaga

- ▶ **AIERTZA, Maribel.** (Etxebarria-1962). Egun, Berriatuan bizi da eta herriko *Urepel* aldizkariaren koordinatzailea da. Idazle Eskolako bigarren mailan ikasle da. Zenbait sari jaso ditu: *Lehen Narrazio Lehiaketa* (Gernika-1984), *Antzerki Laburren sariketa* (Ondarroa-1984), *Txomin Agirre kontakizun lehiaketa* (Ondarroa-1990), *III. Eusebio Erkiaga ipuin sariketa* (Lekeitio-1990). Sariketetako argitalpenetatik at, bi egileren arteko liburu bat dauka argitaratua: "*Lertxundi, euskaradun arte unibertsala*", 1989an Argitalpen Hobe-renaren Euskadi saria jaso zuena.
- ▶ **ALBISUA GOÑI, Iñaki.** Idazle Eskolako 1. mailako ikaslea da.
- ▶ **APAOLAZA ESTENSORO, Juan Mari.** Egunkarietako eskutitzen atalean zenbait gaitaz aritu da. *Goierritarra* hamabostekarian, ingurumenari buruz artikulatu egin du. Zegamako Udalaren beka baten bidez, artzaintzaren ikerketa lana idatzi du. Udalerriren iraunkortasuna lantzen duen enpresan, zenbat prentsa ohar prestatzen ditu.
- ▶ **ARANBARRI ARIZTONDO, Garbiñe.** 1974, Ondarroa. Idazle eskolako lehen mailan. Interpretaritzeta eta Itzulpengintzan lizentziatua Granadan. Atzerrian, zerbaiten bila, urte mordo bat ibili ondoren, berriz ere sustaietara bueltatu da, zerbait hori etxean aurkitzeko asmoz.
- ▶ **ARANGUREN, Josune.** (1979, Zumarraga). 18 urterekin Urruzuno saria jaso zuen eta uda hartan bertan motxila hartu eta Bilbora joan zen Zuzenbidea eta Ekonomia ikastera. Egun, Idazle Eskolan 2.urteko ikaslea da.
- ▶ **AURREKOETXEA, Arantza.** Bilbo, 1965. Euskal Filologian lizentziatua. Euskara irakaslea. Idazle Eskolan 2. ikasturtea.
- ▶ **AZKARGORTA, RUIZ DE EGINO, Laida.** Lazkaoarra da. Zuzenbide Ekonomikoa ikasi zuen. Bigarren urtea du Idazle Eskolan.
- ▶ **ETXANIZ, Garbiñe.** 1977, Beasain. Itzulpengintza eta interpretazioan lizentziaduna. Egun itzulpen lanetan dabil Eskura itzulpen-zerbitzuan. Cortazarren zale sustua Jon Alonsori esker.
- ▶ **ETXEBERRIA RAMIREZ, ISABEL.** (Donostia, 1975). Euskal Filologia ikasketak egin. Hainbat lanetan ibili eta gero, argitaletxe batean dihardu gaur egun. Mugarlari gehigarriko kolaboratzailea da.
- ▶ **GALARRAGA LOPETEGI, Aritz.** Hondarribiarra. 1980an jaioa. Euskara irakaslea Irungo AEKn. UPV/EHU Arte Ederrak egin. Bertan ikasi zuen gauza bakarra Arte Ederrak ez zeudela beretzat eginak. Eta orain idatzi nahian dabil, nahiz eta plagioak erabili poemak sortzerako orduan.
- ▶ **GARAITA ARZA, Aritz.** Durangon jaio zen 1978an. Historia ikasi zuen Gasteizen eta Bergarako Idazle Eskolako ikaslea da.
- ▶ **GORROÑO, Iasmina.** Durangon jaioa. Geografia eta Historia ikasten ari da. Idazle Eskolako bigarren mailan ari da. Ikasle gazteena da.
- ▶ **INDAKOETXEA, Oihaneder.** Iruñean, 1978. urtean jaioa. Arte Ederretan lizentziaduna. Egun, Burlatako Askatasuna institutuan irakasle dabil. Idazle Eskolako bigarren mailan ari da.
- ▶ **IRIONDO EGUREN, Asier.** Nortasun agiri espainiarraren arabera 1973ko maiatzaren 23an jaio zen. Familia liburuaren arabera, berriz, maiatzaren 22an. Baina, berez, bere jaiotza-eguna 2003ko urriaren 17an izan zen, Idazle Eskolako lehenengo eskolan hain zuzen ere. Gaur egun, urte eta erdi inguru ditu. Hala ere, daukan adinerako dezente mutil aurreratua da. Denbora labur honetan Arrasateko Eskola Politeknikoan sei suspentsio atera ahal izateaz gain Euskal Filologiako karrera bukatu ahal izan du, Gasteizko AEKn euskara eskolak eman ditu eta, gaur egun, EMUN kooperatiban euskara teknikari lanak egiten ditu. Jaiotzen ikusi zuen medikuaren arabera ehun urtera ailegatuko omen da.
- ▶ **JAUREGI SUKIA, Izaskun.** Lazkao (1977). Kazetaritzan lizentziatua. Nafarroako Unibertsitatean. Egun ARGIA astekariko erredakzioko kide da. Beste zenbait komunikabidetan ere kolaboratu izan du. Urteetan ibili da literatur tailerretan idazketa lantzen Idazle Eskolara iritsi arte.

- ▶ **LAZKANO IBARBIA, Edurne.** Azpeitian jaio zen 1968an eta bertan bizi da harrezkero. Gasteizen egin zituen Euskal Filologiako ikasketak, eta itzultzaile lanean ari da gaur egun Aztiri itzulpen enpresan. Irakurtzeko zaletasunak bultzatuta eman zuen izena Bergarako Idazle Eskolan, idazte kontuetan berria bada ere.
- ▶ **LOPETEGI SENPERENA, Anttoni.** Lezo (1967). EHUn Filologia Klasikoan lizentziatua da. Egun, Hernanin bizi da eta Zubiri-Manteo Institutuan irakasle da.
- ▶ **LÓPEZ DE TEJADA FLORES, Patxi.** (Donostia, 1970) Zuzenbide eta Filosofia ikasketak egin zituen, eta abokatua da lanbidez.
- ▶ **MUGERTZA UNANUE, Juan Luis.** Elgoibartarra jaiotzez; egun, Berangon bizi da. Euskal Filologian lizentziatua eta bigarren hezkuntzako irakaslea da. Honako liburuak argitaratu ditu: *“Lehenengo aldiz”*, *“Aruma, urrezkop oihanean”*, *“Astoari konfiturak”*. 2000.urtean, BBK-Egunkaria erreportaje leihaketaren hirugarren saria irabazi zuen.
- ▶ **ODRIOZOLA LACARRA, Ainhoa.** Azpeitian jaioa, bertan bizi da gustora. Gizarte Hezitzailea, Donostian dihardu lanean harreraetxe batean. Azpeitiako *Uztarría* herri aldizkariko kolaboratzaile da.
- ▶ **RODRIGUEZ LANDA, Alfredo.** Larrabasterra, 1954. Itsasoa makinista lanak egin eta EHUn Kazaritza lizentziatu ondoren Teknologia irakaslea da DBHko Institutu batean.
- ▶ **SUKUNZA RUIZ, Mainer.** Iruñea 1979, bertan jaioa eta momentuz bertan bizi da. Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen. Idazle Eskolan bigarren urtea du Administrazioa-Dibulgazioa espezialitatean. Itzultzailea Nafarroako Gazte Kontseiluan eta irakaslea da Iruñeko IKAn.
- ▶ **UNTZETA, Markos.** Eibarren jaioa, 1970. urtean. *Gaua basamortuan* izenburuarekin 2002an kaleratu zuen lehenengo lehenengo diskoa. Egun bigarrena grabatzen dabil. Ondarroan bizi da.
- ▶ **URBIETA ARANZASTI, Arantza.** 1969an jaioa, Alegian. Egun Gaztelu herrixkan bizi da. Euskal Filologia ikasketak Gasteizen burutu zituen. Hitzekin jolastea gustuko txikitandik eta azkenik Idazle Eskolan animatu da, aurtengoa izanik bere lehen ikasturtea. Mendia du bere afizio nagusietariko bat. Hala, Euskal Mendi Federakundeak “Pirenayca” aldizkarian antolatutako mendi-artikulu lehiaketetan parte hartu izan du eta zenbait urtetan saritua izan da. Egunkaria itxi aurretiko “Mendi Magalean” ere kolaborazioak egin izan zituen. Hitzza eta mendia nola-hala uztartuz idatzi du gaurko kontaketa hau.
- ▶ **VELEZ DE MENDIZABAL, Zuriñe.** Kazetaria. Idazle Eskolako lehen mailan ari da.
- ▶ **SANTIAGO ARIZAGA, Mikel.** Soraluzen (Gipuzkoa) jaio zen, 1973ko irailaren 30ean. Zuzenbide Ekonomikoan lizentziatua da, eta egun Gasteizen dihardu lanean. Idazle Eskolako lehen mailako ikaslea da.
- ▶ **ZALDUA ZABALUA, Iker** (Beasain 1979). Euskal Filologia. Irakaslea lanbidez. Maiatz literatura aldizkari-ko partaide. Idazle eskolako ikaslea.
- ▶ **ZIAURRIZ, Mainer.** Urnietan jaioa. Euskal Filologiako lizentziaduna da. Gaur egun, Urnietako Udalean aritzen da itzultzaile, eta Berria egunkarian zuzentzaile.
- ▶ **ZUBIZARRETA URBIZU, Joseba.** Zegamarra naiz jaiotzez eta Telekomunikazio ingeniari ikasi nuen Bartzelonan. Geroztik ingeniari bezala ari naiz lanean, eta hala beharko du loteria asmatu artean behintzat. Gaztetan idazlan sariren bat edo beste lortu nuen. Ordutik idatzi gabeko liburuz betea da nire bio-bibliografia.
- ▶ **ZULOAGA ARANZABE, Ander.** Donostia, 1971. Euskal Filologia ikasi eta gaur egun euskara irakasle dabil. Idazle Eskolako lehen mailan ari da.
- ▶ **ZUNZUNEGI GARMENDIA, Juan Mari.** Ordiziarra. Gaintzan bizi da. Biologian lizentziatua eta filosofiako ikasle. Kimetz literatur-lehiaketa saria jaso zuen 1996an. Bigarren urtea du Idazle Eskolan.



## EZ GALDU GURE ARRASTOA!

IDAZLE ESKOLAKo idazleek elkarrekin ekindako bideari jarraipena emateko ez dago idaztea, argitaratzea eta irakurtzea bezalakorik. Lotsak bota eta orri-ertzak zeharkatu nahi ditugu.

Irakurleok ere gurekin behar zaituztegu, noski... eta gure arrastorik gal ez dezazuen gisa honetara aurki gaitza-kezue:

### ► Larunbatero egin murgil MUGALARIRA.

2006ko urtariletik aurrera, berriro, IDAZLE ESKOLAKo ikasleek zita izango dute GARA egunkariaren literatur-gehigarrian, MUGALARIn. Bertan argitaratzen ditugu gure lanak, bere bidez jaso dezakegu irakurle errearen oihartzuna, bertan osatzen da idazleen plaza berria.

Larunbatero-larunbatero irakurle zain izaten dira IDAZLE ESKOLAKoak, MUGALARIKo lerro artean.

### ► Bi hilabetean behin ELET@N, IDAZLE ESKOLAKo boletina. [www.asmoz.org/ieskola](http://www.asmoz.org/ieskola)

ELET@n boletinak hainbat helburu osagarri ditu. Bi hilabetetik behin argitara ematen dela, *L. Luma berrien eleak* aldizkariaren osagarri beharrezkotzat jotzen dugu. IDAZLE ESKOLAKo web orrian ematen diren esteka eta informazioz gain, eskolekin osagarri izan daitezkeen beste esteka eta informazio iturri zein sareak ikasleen eskutan jartzea.

Bigarrenik, IDAZLE ESKOLAKo boletin hau nahi duen edonoren esku posta-elektroniko bidez jartzeko helburuarekin sortu da. Bide honetatik, gainera, IDAZLE ESKOLAKo ikasleen lanak ere zabalduko ditugu euskarri digitalean.

Orain artekoak, ikus daitezke IDAZLE ESKOLAKo orrian :

[www.asmoz.org/ieskola](http://www.asmoz.org/ieskola)

### ► Urtean bitan *L. Luma berrien eleak* aldizkaria.

2003-2004iko ikasturteko azken hiru hilabeteetako egin-kizun izan zen *L. Luma berrien eleak* aldizkariaren lehen aleko testuak prestatu eta aldizkaria argitaratzea. Proiektua bizkortu da, izan ere IDAZLE ESKOLAREN helburuetako bat idazle berriak ezagutaraztea ere bada.

Erronka berrizat dugu, beraz, aldizkari hau, bai aurretik argitaratu dutenei eta bai sekula argitaratu ez dutenei ere irekitzea.

Helburu horiek betetzen ari gara. Dagoeneko 2004-2005eko lehen zenbakia agortua da, eta hirugarren zenbaki honetan jaso ditugu MUGALARIKo gehigarrian 2004-2005 ikasturtean argitaraturako narrazio eta liburu iruzkinak ere.



*L. Luma berrien eleak* aldizkariaren lehen zenbakia agortua dago dagoeneko. Hala ere, nahi duenak jaso dezake telematikoki. Bigarren alea salgai dago baina telematikoki ere aurki dezakezue helbide honetara joz:


[www.asmoz.org/ieskola](http://www.asmoz.org/ieskola)

### ► BEKAK IDAZLE ESKOLAN

Bergarako IDAZLE ESKOLAK Beka bat sortu du 2004-2005 ikasturtean. Gutxienez 20 orriko lanak aurkeztu behar ziren. 20 lan aurkeztu dira. Epai-mahaiaren iritzian oso maila onekoak, eta, beraz, parte hartu duten guztiei 200 euroko beka bana eman zaie. Gainera, hiru sari ere eman dira: Narrazioan Juan Mari Zunzunegiri, poesian Arantza Aurrekoetxeari eta Dibulgazioan Oneski Garbizuri.

**Zalantzatan zaude?  
Gramatika, estiloa, Administrazioako idazkiak,  
terminologia...**

# duda-muda



**Horiei erantzuteko dago  
Duda-muda,  
IVAPen kontsulta-zerbitzua,  
eta gainera,**

**DOAN.**



# IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



Euskadi autonomia erkidegoko  
Euzko Legebiltzarra  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**E**txe berria egiten ari zaizkigu eta bertako lanak begiratzera noa. Ipomamua du izena, eta amets guztiak egia bihurtzen diren lekuan dago, Asteasun.

Irudiaren argazkaria: Asteasuneko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzaren

Badator Ipomamua,  
ipuinaren euskarazko  
parkea.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte eta Erakunde  
Haremanetarako Departamentua